

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak

Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca

Travaux eta actes de l'Académie de la Langue Basque

Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language



EUSKERA



2019
64,1
1-246
BILBO
ISSN 0210-1564



EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

Telefona: 94415 81 55 • Faxe: 94 415 81 44

posta elek.: info@euskaltzaindia.eus • webgunea: www.euskaltzaindia.eus

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da

Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones

Cette revue s' échange avec d' autres publications

This journal can be exchanged for others by agreement

Testuen hizkuntza orrazketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrigharen jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege gordailua: BL-1244-58

EUSKERA AGERKARIA

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da eta 1920. urtetik aurrera argitaratzen da. Urteko lehen zenbakiak (buletinak) Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu, eta bigarrenak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu. Zenbakiak urtea bukatu eta hurrengo sei hilabeteetan argitaratzen dira. Ikerketa artikuluak argitaratzeko, Idazketa kontseiluak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du.

Euskera agerkaria honako aurkibide, zerrenda eta datu-baseetan dago:

- Azkue Bibliotekaren katalogoan
- Euskaltzaindiko webgunean
- Latindex Katalogoan
- Emerging Sources Citation Index-en (ESCI)
- Inguma datu-basean
- ISOC datu-basean
- Linguistic Bibliography datu-basean

Kalitate adierazleak:

CIRC (2019): C maila

MIAR (2019): 8.0 (ICDS)

La revista *Euskera* es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. El primer número del año (el boletín) recoge los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia mientras que el segundo se dedica a publicar artículos de investigación originales, reseñas de libros y similares. Los números se publican dentro del semestre posterior a finalizar el año. Para publicar artículos de investigación, el Consejo de Redacción, garantizando el anonimato, recurre a expertos externos.

La revista *Euskera* está disponible en los siguientes catálogos y bases de datos:

- Catálogo de la Biblioteca Azkue
- Página web de Euskaltzaindia
- Catálogo Latindex
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)
- Base de datos Inguma
- Base de datos ISOC
- Base de datos Linguistic Bibliography

Indicadores de calidad:

CIRC (2019): Categoría C

MIAR (2019): 8.0 (ICDS)

La revue *Euskera* est l'organe officiel de l'Académie de la Langue Basque / Euskaltzaindia ; sa publication a démarré en 1920. Le premier numéro de l'année (le bulletin) présente les travaux et la vie de l'Académie ; le second quant à lui publie des articles concernant des travaux de recherche, des comptes rendus de livres, ou autres sujets similaires. Les numéros sont publiés au cours du semestre qui suit la fin de l'année. En ce qui concerne la publication d'articles de recherche, le Comité de rédaction s'entoure d'experts extérieurs à qui il garantit l'anonymat.

La revue *Euskera* est présente sur les catalogues et bases de données suivants :

- Catalogue de la Bibliothèque Azkue
- Page web d' Euskaltzaindia
- Catalogue Latindex
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)
- Base de données Inguma
- Base de données ISOC
- Base de données Linguistic Bibliography

Indicateurs de qualité :

CIRC (2019): Catégorie C

MIAR (2019): 8.0 (ICDS)

Euskera is the official journal of Euskaltzaindia and has been published since 1920. The first number or bulletin published each year reflects the Academy's work and academic activities, while the second one contains original research articles, book reviews and the like. Issues are published in the six month period following the end of the year in question. For the publication of research articles the editorial board seeks the opinions of external evaluators, while preserving their anonymity.

The *Euskera* journal appears in the following indexes, lists and databases:

- Catalogue of the Azkue Library
- Website of Euskaltzaindia
- Latindex catalogue
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)
- Inguma database
- ISOC database
- Linguistic Bibliography database

Quality indicators:

CIRC (2019) : Group C

MIAR (2019) : 8.0 (ICDS)

EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA



IDAZKETA KONTSEILUA

Zuzendaria: ANDRES URRUTIA, Euskaltzaindia. Bilbo
Idazkari akademikoa: ANA TOLEDO, Euskaltzaindia. Bilbo
Teknikaria: JON ARTZA, Euskaltzaindia. Bilbo

Kideak

ADOLFO AREJITA <i>Deustuko Unibertsitatea. Bilbo</i>	ANDONI SAGARNA <i>Euskaltzaindia. Donostia</i>
JEAN-BAPTISTE COYOS <i>Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona</i>	PATXI SALABERRI <i>Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea</i>
JOSEBA ANDONI LAKARRA <i>Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz</i>	MIKEL ZALBIDE <i>Euskaltzaindia. Donostia</i>

Aholkulariak: JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA (*Euskaltzaindia. Bilbo*).

AHOLKU BATZORDEA

MIXEL AURNAGUE CNRS, J. Jaurès Unibertsitatea Tolosa, Okzitania	XABIER ITZAINA CNRS, Centre Emile Durkheim Sciences Po Bordeaux. Bordele
MIREN AZKARATE Euskaltzaindia. Donostia	JOSEBA INTXAUSTI Euskaltzaindia. Donostia
JOXE AZURMENDI Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia	IÑAKI IRAZABALBEITIA Elhuyar Fundazioa. Usurbil
MARTINE BERTHELOT Perpignango Unibertsitatea. Perpignan	JACINTO ITURBE Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa
CHARLES BIDEGAIN Paueko eta Aturriko herrialdeetako Unibertsitatea. Baiona	JABIER KALTZAKORTA Deustuko Unibertsitatea. Bilbo
JOSU K. BIJUESCA Deustuko Unibertsitatea. Bilbo	JON LANDABURU CNRS, Paris. Kolonbiako Kultura Ministerioa
GIDOR BILBAO Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz	ALBERTO LOIZATE Basurtoko Ospitalea. Bilbo
IÑAKI CAMINO Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz	JUAN MADARIAGA Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea
ANA ETXAIDE Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea	JOAN MARTÍ Institut d'Estudis Catalans. Secció Filològica. Bartzelona
JOSE RAMON ETXEBARRIA Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo	ENEKO OREGI Eusko Jaurlaritz. IZOko burua. Gasteiz
MAITE ETXENIKE Universitat de València. Valentzia	JON ORTIZ DE URBINA Deustuko Unibertsitatea. Bilbo
PATXI GOENAGA Euskaltzaindia. Gasteiz	ROSA MIREN PAGOLA Deustuko Unibertsitatea. Bilbo
RICARDO GÓMEZ Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz	JOSE ANTONIO PASCUAL Real Academia Española. Madril
MANUEL GONZALEZ Real Academia Galega. Coruña	TXOMIN PEILLEN Euskaltzaindia. Baiona
MARTIN HAASE Bambergo Unibertsitatea. Bamberg	IBON SARASOLA Euskaltzaindia. Donostia
JOSE IGNAZIO HUALDE Illinoiseko Unibertsitatea. Illinois	JOAN MARI TORREALDAI Euskaltzaindia. Donostia
ITZIAR IDIAZABAL Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz	MIRIAM URKIA Euskaltzaindia. Donostia
	JUAN JOSE ZUBIRI Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

E U S K E R A

AURKIBIDEA

EKITALDIAK:

- **Miriam Urkia González Euskaltzaindian sartzea**

[11-38] *Hiztegitik kofradiara (sarrera-hitzaldia)*

URKIA, Miriam

[39-49] *Miriam Urkia euskaltzainaren sarrera-hitzaldiari erantzuna*

SAGARNA, Andoni

- **Roberto González de Viñaspre Gonzalo Euskaltzaindian sartzea**

[51-63] *Trebiñu, euskararen herrian (sarrera-hitzaldia)*

GONZÁLEZ DE VIÑASPRE, Roberto

[64-69] *Roberto González de Viñaspre euskaltzainaren sarrera-hitzaldiari erantzuna*

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi

AGIRIAK:

- **Euskaltzaindia. Batzar-agiriak**

[72-77] *Osoko bilkura*

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 2019ko urtarilaren 25ean

- [78-84] *Osoko bilkura*
Iruñean, Nafarroako Gobernuaren egoitzan, 2019ko otsailaren 22an
- [85-89] *Osoko bilkura*
Aretxabaletan, Arkupe kultur etxean, 2019ko martxoaren 30ean
- [90-94] *Ageriko bilkura: Miriam Urkia euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia*
Aretxabaletan, Arkupe kultur etxean, 2019ko martxoaren 30ean
- [95-100] *Osoko bilkura*
Trebiñun, udaletxean, 2019ko maiatzaren 4an
- [101-106] *Ageriko bilkura: Roberto González de Viñaspre euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia*
Trebiñun, Done Petri elizan, 2019ko maiatzaren 4an
- [107-112] *Osoko bilkura*
Baionan, Herriko Etxean, 2019ko ekainaren 28an
- [113-117] *Osoko bilkura*
Bilbon, egoitzan, 2019ko uztailaren 19an
- [118-123] *Osoko bilkura*
Gasteizen, Arabako Batzar Nagusietan, 2019ko irailaren 27an
- [124-128] *Osoko bilkura*
Leioan, Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaiko Campusean, 2019ko urriaren 25ean
- [129-133] *Osoko bilkura*
Donostian, San Telmo Museoan, 2019ko azaroaren 29an

[134-137] *Osoko bilkura*

Lekeition, udaletxean, 2019ko abenduaren 20an

Euskaltzaindiaren Arauak

[139-140] *2019an argitaratutako arauak*

IRIZPENAK ETA TXOSTENAK:

- **Onomastika**

[143-148] *En torno al topónimo Arzo / Arzotz*

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi

[149-153] *Informe sobre el topónimo Viguria / Biguria*

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi

[154-158] *Sobre el topónimo Garisoain / Garisoain*

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi

[159-163] *Acerca del topónimo Irujo / Iruxo*

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi

[164-169] *Acerca del topónimo Larumbe / Larunbe*

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi

[170-175] *Acerca del topónimo Muzqui / Muzki*

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi

[176-180] *Un topónimo mayor de Ezkabarte (Navarra): Cildoz / Zildotz*

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi

ADIERAZPENAK ETA HITZARMENAK:

[182-183] *Euskaltzaindiak 2019an egindako adierazpen instituzionalak*

[184-186] *Euskaltzaindiak 2019an zehar hainbat lankidetzahitzarmen sinatu ditu*

BERRIAK:

[188-195] *2019ko albisteen kronika*

[196-214] *Euskaltzaindiaren Mendeurrena (2018-2019)*

USARRALDE, Ibon

OMENALDIAK:

[216-222] *2019an omenduak izan diren Euskaltzaindikoko kideak*

HILBERRI TXOSTENAK:

[224-229] *Jon Lopategiren hilberri txostena (1934-2019)*

AMURIZA, Xabier

[230-234] *Alan Kingen hilberri txostena (1954-2019)*

AZKARATE, Miren

[235-237] *Angel Aintzibururen hilberri txostena (1930-2019)*

ARBELBIDE, Xipri

[238-246] *Txomin Solabarrietaren hilberri txostena (1927-2019)*

BARAIAZARRA, Luis

Ekitaldiak

Miriam Urkia González

Euskaltzaindian sartzea

Aretxabaletan, Arkupe kultur etxean, 2019-III-30

Hiztegitik kofradiara (sarrera-hitzaldia)

URKIA, Miriam

Euskaltzain osoa

Alkate jauna, euskaltzainburu jauna, agintariak, euskaltzainak, lankideak, lagunak, herritarrak, senideak eta etxeokak, egun on guztioi.

1. Joan Mari Torrealdai

Ez dira gauza asko bizitzan behin bakarrik egiten direnak, eta horietakoa dut gaurkoa: zuen guztien aurrean sarrera-hitzaldia egitea. Besoak zabalik hartu naute euskaltzainek eta, ezagutu ostean, are zailagoa eta ausardia handiagokoa egiten zait zuen aurrean mintzatzea. Baina iritsi da eguna, eta aurrera egitea besterik ez dut.

Euskaltzaindiaren araudiak agintzen duenez, bi dira sarrera-hitzaldian euskaltzain berriaren betebeharrak. Bata, ordezkatzeko duen euskaltzaina gogoratzea; bestea, hartu duen gaia azaltzea.

Lehenengo betebeharra dela eta, araudiak ez ezik, bihotzak ere eskatzen dit Joan Mari Torrealdairi aipua egitea. Ez dut, gainera, ordezkatzeko, 29. aulkia berarekin partekatzen baizik.

Joan Mari Torrealdai Nabea, Bizkaiko Foruko semea, 1975eko ekainaren 27an izendatu zuten euskaltzain urgazle, eta 2007ko azaroaren 30ean euskaltzain oso. Ez dut Joan Mariren ibilbidea azalduko, teologian eta informazio-zientzietan lizentziaduna dela, edo zientzia politikoetan eta soziologian doktorea, ezaguna duzuelako eta, gainera, luzeegi joko lukeelako, luzea bezain emankorra baita Joan Mariren ibilbidea. Baina gatzetxotan Arantzazura joan izanak bere bizitza markatu zuela esango nuke, *Jakin* ezin baita Arantzazu gabe eta are Torrealdai gabe ulertu. Euskal liburugintza, bibliografia eta zentsura izan ditu —eta ditu— ikerketagai nagusi. Azkue biblioteka eta artxiboko ohorezko bibliotekaria ere bada.

UZEIn hasi berri nintzela ezagutu nuen nik. Artean ez nituen 25 urte izango eta, garai hartan Ategorrietan zegoen *Jakinera* EEBS corpusa osatzeko material bila joan ginen batean, hantxe topatu nuen hainbatetan baliatutako *Euskal idazleak*, *gaur* liburu mardularen egilea, *Jakin* aldizkariko zuzendaria. Hori zen nik garai hartan —gazte eta ezjakin, bistan denez— nuen bere erreferentzia nagusia, ia bakarra. Bakar-bakarrrik esango dizuet *Jakineko* bazkide eginda atera nintzela etxe hartatik, eta gaur arte. Baina Joan Mari, euskalgintzan eta kulturgintzan, arlo askotan ikusi izan dugu bere onena ematen beti, 2003an bere onen hori kentzen saiatu baziren ere.

Halako itzala duen Torreal dai handiaren ondoan, beraz, ulertuko duzue txiki eta, Sarrionandiak behinola esan zuen moduan, soinean gabardina handiegia banerama bezala sentitzea. Errespetua, esker ona eta miresmena besterik ez ditut Joan Marirentzat, eta 29. aulkia berarekin partekatze ko ohorea.

2. Aretxabaleta

Ikasturte biribila da aurtengoa: Euskaltzaindiak 100 urte, euskara batuak 50 eta Aretxabaletako ikastolak ere mende erdia!

Euskaltzaindia Arantzazun, hemendik oso gertu, euskara batuaren nondik norakoak eztabaidatzen ari zen bitartean, Aretxabaletako guraso-talde bat herrian ikastola abian jarri nahian zebilen, ilusioz beteta eta, zalantzarik ez dut, burugogor. Nire mintzaldiarekin hasi aurretik eskerrak eman nahi dizkiet orduko herritarrei, baina bereziki artean ume ginenon gurasoei eta lehen andereño ei, egin zuten apustua ez baitzen makala izan.

Gure aitari norbaitek esan zion, ni, alaba zaharrena izanda, ikastolara eramateko asmoaren berri izan zuenean, damutuko zela, egunen batean erabaki hori hartu izana aurpegiratuko niola. Bada, ez dut plaza hoberik irudikatzen gaur, gure herrian, zuen guztien aurrean, gurasoei kasurik egin ez izana publikoki eskertzeko. Eskerrik asko, aita eta ama, egindako apustuagatik. Bai, ikastolakumea naiz.

Eta orain bai, gatozen gaur hemen bildu gaituenera, sarrera-hitzaldiaren gai nagusira.

3. Hiztegitik Kofradiara

Euskaltzaindiaren mendeurrenak atzera begira jarri gaitu aurrera zuzen egin ahal izateko. Ehun urteko historia, mende bat euskara ehuntzen, etengabe behar eta garai berrietara egokitzen. Asko da bidean ikasia, eta horrek emango digu bultzada euskara finago ehuntzen jarraitzeko.

Hiztegi-kontuak izango ditut mintzagai datozen minutuetan. Hiztegi-kontuak eta kofradia, euskara ehuntzeko saregileak eta sare-konpontzaileak beharko ditugulako.

3.1. Gaur arteko ibilbidea

MAISU JUAN: Aren auaz, ta buruban, desberguenza gogorak esaten deustazuz.

PERU: Ze berba da desberguenzia? Nik eztaikit. Esan gurako dozu lotsabagakerija. Egizu bada berba euskeraz.

Peru Abarka

J.A. Mogel

Euskaltzaindiak sorreratik aipatu izan du Akademiaren hiztegiaren beharra, eta horren lekuko da 1920an, jaio berritan, *Iztegisail[l]a*¹ eratu izana, Azkue, Broussain eta Olabide kide zituela, Broussain kide izendatu eta gutxira zendu bazen ere. Saila sortu orduko hasi ziren lanean, besteak beste Seber Altube arrasatearrak urte horretan bertan prestatutako “Erderatiko-itzak, itz-barriak eta aintxiña-itzak” (Altube, 1920) txostena eztabaidatzen. Orduko eztabaida haietako batzuk ia gure egunetara iritsi dira. Altube maileguei bide egitearen aldekoa zen erabat, eta Azkue ere bai, modu apalagoan bazen ere:

Erdalitzak euskerazkotzat artzeari ezteritzayot egoki, kutxan gurerik degula beintzat. *Kabal[l]oa ta kar[r]oa ta binagrea ta tanbor[r]a ta kopeta ta panaderoa ta petxoa ta kamisa ta kostura lisoa ta beste amaikareun mordoilokeri erri lauak*

1 1920ko otsailaren 16an eratu zen batzordea (Euskaltzaindia, 1919-20: 18).

= *publiku sentziloak* esan oi ditu ta guk *publikutxo* orri *gustu* emateko *zaldia* il egin bear ote ditugu? *gurdia* eta *orgak* er[r]e? *ozpina* isuri? *ar[r]jazkoa* puskatu? *bekokia* ta *bularra* estali? *okinak* arrotzu? *atorra joksura legun* ta *guzti betiko gorde*? (Azkue 1920: 60-61).

Barkatuko ahal digu Azkue handiak, baina *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, *kopetaz gain*, *petxu*² ere jasoa du Akademiak, gipuzkera eta nafarrera markekin bada ere.

Altubek hitz “mundu guztitarak”³ (egungo terminologian, nazioartekoak) bere horretan onartzea proposatu zuen eta, hori bai, onartu zuen Azkuek:

[...] geyen geyenak beintzat, iguin ez ingira gabe sartuko nituke nik ere ta « política » *politica* [sic] izango genuke; « música » *musika* ; « orquesta » *orkesta*; « zepelin » *tzepelin*; « hotel » *hotel*, h ta guzti, garezti ere ezpaita; ta « café » etxea danean *kafetxe*; ta zur[r]ut egiteko ur beltza bada, *kafe* esango nuke, *kape* nere er[r]iko ar[r]antzaleai ta *aketa* Hazpar[r]en-aldeko atso edaleai utzita. (Azkue, 1920: 55)

Hazparden ez bide dute *akeita* askorik hartzen egun, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*⁴ “gaur gutxi erabilia” gisa markatua baita.

Eztabaida horiek eta beste asko ibili zituzten Akademiaren lehen urte haietan, irizpideak finkatu nahian. Azkueren zuzendaritzapean, gerraurrean, urteak egin zituen Euskaltzaindiak gaztelania-euskara hiztegia osatzen. Eta berriro heldu zion lanari gerra amaitu ostean, Zalbidek ondo jasoa duen bezala. (Zalbide, 1991).

Baina euskara hutsezko hiztegi baten arrastorik ez zegoen artean. 1956an oraindik ere abiatu gabea zen, hala eskatu baitzuen Aita Villasantek:

Oraindik eztugu euskera utsez egindako euskal iztegi bat, euskaldunari gauzen esanaiek bere izkuntzan azalduaz, katalanek duten bezala. (Villasante, 1956: 259-260)

Katalanen hiztegiak⁵ 1932an ikusi zuen argia. Gurean, baina, ez zekiten nondik abiatu edo, hobeto esanda, denok ez zetozen bat hartu beharreko bidean⁶. Hara

2 “*petxu* iz. Gip. eta Naf. Bularra, bularralde. Hiltzen naizenean, *petxua* ireki eta bihotza atera.” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

3 “Mundu guzti edo geyeneko izkuntzaak eurendutako itzak: *politika*, *musika*, *orkesta*, *hotel* eta abar.” (Altube, 1920: 49).

4 “*akeita* iz. g.g.er. Kafea.” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

5 *Diccionari general de la llengua catalana* (Pompeu Fabra, 1932).

6 Urrestarazuk (Umandik) Euskaltzaindiari eskatu zion, gramatika bat idatzi behar zuela eta, ter-

Villasantek Arantzazun 1956an esandakoak:

Len ere izan zan eztabaida Euskaltzaindiak itz berrien sortzaille izan bear duen ala ez, eta ezetzaren alde zeudenak uste dut gelditu zirela gaillen. Auen aburuz, idazleek bear dute bidea urratu. Gaiak euskeraz erabilliz, sortuko du batek itz aukerako bat, beste batek beste bat, eta ala, berez bezala, poliki-poliki, sortutako itzaren balioak eta egokitasunak egingo du berau zabaldu ta finkatu dedin. Eta Euskaltzaindiak orduan, eta ez lehenago, au da, zabaldu-rik ta onarturik daudenean, itzok bere egingo ditu, eta izkuntzan sartuko. Bide ziurra ta zuurra, noski, baiño luzea, luzeegia bearbada. Beintzat ora-inarte idazle gutxi azaldu zaigu, bidea urratu nai duenik. Eta alaxe gaude; idazleak Euskaltzaindiaren zai, eta Euskaltzaindia idazleei begira. (Villasante, 1956: 259)

Corpusaren ideiaaren aurrekaria da hau? “zabaldurik ta onarturik daudenean, itzok bere egingo ditu, eta izkuntzan sartuko”, dio. Horixe da, bada, corpusen egitekoa: erabilerak jaso eta bidea egin dutenak bildu.

Handik hiru urtera, 1959an, “Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz” adierazpena eman zuen argitara Akademiak, Villasanteren hitzen argigarri, neurri batean:

Itzegi-saillean ezta bidezko itz asmatuetara jotzea ezin bestez baizik, eta orduan ere itzen erabidean izkuntzaren joerak gordeaz. [...] *Euskal-itzak dira euskera bizian sustraituak daudenak*. Sustrai ori zenbat eta sakonagoa izan, ainbat eta eskubide gehiago du itz batek erabillia izateko. Itz baten zabaluneak, antziñatasunak eta idazle zaarrak itz ori erabilli ote duten jakiteak, asko esan nai du itzaren sustraia zenbateiñokoa dan neurtzeko. Sustrai aundiko itzak, bada, auskal-itzak [sic] dira, naiz eta erderatik etorri. [...] Beraz, etxeko biurtuak dauzkagu, gure gureak dira itz oiek. Euskal-itzak dira bada, erderatikakoak izanarren. Itz oiek eskubide osoz erabilli ditezke, eta oien lekuan erabiltzeko asmatu diran itz berriak eztira geienetan euskal-itzak eta eztute aiek ainbat eskubide erabilliak izateko. [...] Euskaltzaindiak, bada, itz auk eta antzekoak diran beste asko eskubide osoz erabilli litezkeala erabagitzen du, euskaldunak, jatorrak eta garbiak diralako. Eta idazle ta izlariei erabilli ditzatela eskatzen die, itz asmatuetara jo gabe. Berebat, izkuntza berezien

minologia erabakitzeo, “gramatika-alorrean bearren diren gauzak adierazteko”. Eta hala jaso zuen Villasantek: “Orregatik-edo, dio Urrestarazu jaunak, Euskaltzaindiak aurea artu bear lukela auzi ontan: izen batzuk autatu ta gomendatu bear lituzkela, Euskaltzaindiaren itzalpean onartuak ta erabilliak izan ditezten” (Villasante, 1956: 259).

gaiñetik zabaldurik dauden kultura eta zibilizaziozko itzak ontzat artzea eta erabiltzea Euskaltzaindiak begi onez ikusten du. Adibidez: politika, teknika, literatura, liturgia, metro, kilometro ta abar. (Euskaltzaindia, 1959: 214-215)

Adierazpen honek Azkueren eta Altuberren kezkei erantzun garbia ematen die batetik, baina harago doa, hitzaren hedadura, tradizioa eta idazle zaharrak kontuan hartu behar direla baitio, alegia, erabilera-tradizioari begiratu behar zaio.

Ideia hori guztiz barneratua zuela proposatu zuen Mitxelenak 1968ko Arantzazuko biltzarrean euskal hiztegiaren beharra, oso maila apaletik abiatuta:

Beharrezkoa dugu, bederen, hiztegitxo bat, ia ortografiarekikoa huts-hutsik, nahi-ta-ezko badu ere hitzen esan-nahia laburzki adieraztea, zertaz ari den jakin dezagun. Orain idazten diren euskalkiak kontuan edukitzekoak dira, noski, batasun osorik ez duguino eta, euskera idatzia duenez gero oinharri, zenbait idazle hautaturen hiztegiaren gain eraiki behar litzake. (Mitxelena, 1968: 214)⁷

Eta eman zuen bere fruitua, Arantzazuko biltzar hartatik *Batasunerako Hiztegia* (Euskaltzaindia 1968) atera baitzen, txikia, 625 forma besterik ez zituen, baina garai hartarako lorpen handia izan zena. Bazegoen, 50 urte lehenagoko irizpideekiko eztabaiden eta hainbat saioen ondoren, adostutako zerrenda gutxieneko bat behintzat. Aurrerago etorri zen, 1975ean, *Zortzi urte arteko Ikastola Hiztegia* (Euskaltzaindia, 1975), 1784 forma biltzen zituen, eta H letrari buruzko zerrenda (Euskaltzaindia, 1979) Bergaran erabakita geratu zen 1978an, tartean hiztegitxo batzuk izan baziren ere⁸.

Baina Euskaltzaindiak ez zuen hitzen zerrenda-multzo bat besterik. Hiztegitza batzorderik ere ez zuen, 1981ean sortu baitzuen Akademiak, handik bi urtera onartu eta abian jarriko zena.

Ordurako, baina, hiztegitza modernoak hamarkada bat zeraman bide berriak

⁷ Casaresek (Casares, 1950) esana zuen hizkuntza baten lexikoa biltzeko modurik zientifikoena historikoa edo diakronikoa zela, eta horren baitan baliatu behar zirela gainerako metodoak. Oso ondo ezagutzen zituen beste hizkuntza batzuetan landutakoak (*The Oxford English*, Estatu Batuetako *New Standard Dictionary*, nederlandarazko *Woordenboek der Nederlandsche Taal* eta Suediako Akademiako *Ordbok över Svenska Språket*, besteak beste), eta Mitxelenak ere bazuen horren berri, Arantzazuko biltzarrean autore hautatuak proposatu zituenarako.

⁸ 1973an, adibidez, *Merkatalogo izendegia* eman zuen argitara Akademiak (Euskera, 1973, 18. liburukia, 215-229 or.).

urratzen. Ez gurean, bistan denez. Ordura arte produktutzat hartua izan zena, zientzia gisa onartzen hasia zen kanpoan. Tradizioan zientzia hizkuntzalaritza zen, eta hiztegitzinta artisautza-lan baten emaitza besterik ez (Pruvost, 2005⁹). RAEk, adibidez, 1984ko edizioan sartu zuen *lexicografía* sarreran bigarren adiera, ordura arte ‘Técnica de componer léxicos o diccionarios’ baitzen. 1984ko eguneratzean ‘Parte de la lingüística que estudia los principios teóricos en que se basa la composición de diccionarios’ adiera gehitu zuen.

Gure mugetatik kanpo hiztegiak egiteko modua aldatzen hasia zen, beraz, corpusean oinarritzen hasita zeuden, teknologia —orduko teknologia— lexicografiara ere hurbiltzen hasia zen. Lanerako datu-baseak ere ez zituzten arrotzak, egunerokoan 90eko hamarkadan erabiltzen hasi baziren ere (Atkins & Rundell, 2008).

Hiztegien helburu pedagogikoa nabarmentzen hasi ziren (Dubois, 1971), hau da, hizkuntzari buruzko hutsuneak bete behar ditu hiztegiak, baina, aldi berean, objektu kulturala ere bada, gizartearen testigantza ematen baitu. Estaldura eta irisgarritasuna¹⁰ lehentasun gisa jarri zituzten, eta “ezagutu zure erabiltzailea” (*know your user*) goren mailara eraman nahi izan zuten. Izan ere, hiztegi bat ona izango da erabiltzen bada; hau da, bilatzen duzuna eskaintzen badizu (Atkins & Rundell, 2008).

Alegia, metalexikografiaz —edo lexicografia teorikoaz— hitz egiten hasiak ziren: lexicografia ez da hiztegiak egitea bakarrik —hori lexicografia praktikoa da—, hiztegiari buruzko ikerketa egitea ere bada. Hau da: hiztegiaren egitura, tipologia, edukia, helburua, erabilera eta beste jakite-arloekiko lotura (lexikologia, soziolinguistika, semantika, estatistika eta informatika, besteak beste) ere metalexikografiaren ikerketaren parte dira (Anglada, 1991; Ahumada, 2016).

Ez dut zalantzarik 70eko hamarkadan indarra hartzen hasia zen lexicografia modernoaren (Dubois, 1971; Zgusta, 1971) berri ere bazutela Euskaltzaindiaren Hiztegitzinta batzorde berriko kideek, bestela ez baitago ulertzerik nola asmatu zuten egindako plangintza zabal bezain zehatz hartan, oinarrietatik abiatuta. Hala ere,

9 Pruvostek argi azaltzen du: “Une nouvelle discipline prend donc naissance : la *métalexicographie*. La lexicographie, jusque-là, principalement liée à un besoin du quotidien, perçue surtout comme un outil, fait désormais partie des corpus que l’on étudie pour mieux comprendre l’histoire du genre et le fonctionnement de la langue. Ce faisant, les dictionnaires commencent à ne plus être seulement l’œuvre de philologues et d’excellents artisans, ils deviennent aussi affaire de linguistes”. (Pruvost, 2005: 10).

10 Estaldura (*coverage*): informazio-kopurua; eta irisgarritasuna (*accessibility*): erabiltzaileek erraz erabiltzeko modua.

urteak behar izan ziren emaitza eskuratzeko, aurrelanak ez baitziren nolanahikoak izan. Baina, ondo ezarritako zimenduek beti dakarte uzta ona, epe luzera bada ere.

Batzordeak, hasteko, maileguak nola egokitu¹¹ eta euskarak hitz berriak sortzeko¹² zituen baliabideak finkatzeko irizpideak zehaztu zituen, LEF batzordearen bidez. Oinarriak ezarri zituen, beraz. Eta, irizpideen lanketarekin batera, modu paraleloan, erabileraren berri emango zuten corpusak osatzen hasi zen. Estreinakoz corpusak azaldu ziren Akademiaren baitan, bai eta euskararen baitan ere, gure mugetatik kanpo erabiltzen hasita zeudenak. Garai honetan sortuak dira *Orotariko Euskal Hiztegia*¹³ (orduan *Euskal Hiztegi Nagusia* izendatu zutena) eta *XX. mendeko Euskararen Corpusa*¹⁴ (urtetan EEBS edo *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa* gisa ezagutu duguna). 80ko hamarkadan ezarri zituen egungo egoerara ekarri gaituzten zimendu sendoak: lexikologiako irizpideak eta corpusak. Azkuek eta Altubek 1920an hasitako eztabaida haiek hemen bukatu ziren neurri handi batean, bai eta Villasanteren 1956ko kezkak ere.

Oinarriak ezarrita, berriro ere hiztegiaren beharra jarri zuten mahai gainean, horretarako (ere) sortua baitzen Hiztegitzintza batzorde berria. Baina kanpoan zebilen hiztegitzintza-maila horretara iritsi aurretik, euskal formen ortografia bera erabaki beharra zegoen, alegia, hiztegiaren aurretik ortografia-hiztegia bideratu behar zen (hau ere Mitxelenak 1968an aipatua zuena)¹⁵. Azkaratek berak hala proposatu zuen Laurgainen:

Gaurko errealitatea ikusiaz, [...] ez ote askoz praktikoago eta mesedegarriago egungo euskararen hiztegia osatzea, hasierako 2.000 hitzeko kutxa hura gaurkotuz eta zabalduz? [...] Azken batean, Euskaltzaindiaren ardura litzatekeen hiztegi arau-emaile baten hastapena egon daiteke hor. Eta hastapen horretan, Mitxelenak behinola esan zuenez, errazenetik hastea litzateke egokiena; hau da, formak ezartzetik alegia, forma horretan hitzen erabideak ere bame leudekelarik. (Azkarate, 1991: 1116).

11 Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak (1986) liburukia: <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/hiztegi-digitalizatuak/maileguzko-hitzen-idazkera>

12 Hitz-elkarketari buruzko lau liburukiak: <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/hiztegi-digitalizatuak/hitz-elkarketa>. Eratorpenari buruzkoak ez dira liburu gisa argitaratu.

13 https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu

14 <http://xxmendea.euskaltzaindia.eus/Corpus/>

15 Konparazio baterako, Pompeu Fabrak 1917an egina zuen katalaneko *Diccionari ortogràfic-a*, Euskaltzaindia bera sortu aurretik.

Horrela, bada, 1991n, Zalbidek 10.000-20.000 hitz inguruko ortografia-hiztegia bideratzea proposatu zuen, 50.000ra iritsi nahi zuenik bazen ere, “euskara batuaz dihardugunean ere hainbat hitz eta esapide justu nola idatzi behar den ez dugu[lako] jakiten” (Zalbide, 1991: 1113), zioen. Bide ziurra eta zuhurra, baina luzea, Villasantek esango zukeen bezala.

Urte horretan bertan, Sarako biltzarrean, hiztegia lantzen hasteko egoera egokia zela pentsatuta, Hiztegitigintza batzordeak landutako “Hiztegi batua: lanketa- eta onespenez-prozedurak” dokumentua onartu zuen Euskaltzaindiak:

Haziminak ditu euskal hiztegiak. Nerabegaroko duda-muda eta zalantzetan murgildurik bezala dabil. Euskaraz idazten dugunok behintzat halaxe gabiltza [...]. Alabaina, zalantzak zalantza, inoiz baino egoera hobean gaude hiztegi batua lantzeko, inoiz izan ez dugun informazioa dugulako gaur egun literatur tradizioaz (OEH) eta erabilera garaikideaz (EBBS). Hala uste dugu behintzat batasunaren oinarria batez ere iturri horietan bilatu behar dela pentsatzen dugunok. (Sarasola, eta beste 1991: 135-136)

Eta handik bi urtera hiztegia bera lantzeko irizpideak zehatz-mehatz aurkeztu zituen batzordeak (Aduriz, 1994; Hiztegi Batuko batzordea, 1994).

Hor abiatu zen egungo *Euskaltzaindiaren Hiztegraino* ekarri gaituen bidea.

2000. urtean, bederatzi urteren buruan, ikusi zuen argia 20.000 forma biltzen zituen *Hiztegi Batua* gisa ezagutzen dugun hiztegi ortografikoak (Euskaltzaindia, 2000), eta orduan hasi zen Euskaltzaindia Europan —eta mundu zabalean— ia lau hamarkada lehenago abiatua zen hiztegitigintza modernoa aplikatzen. Orduan hasi zen, eta ez lehenago, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* osatzen, datu gordinetatik hiztegi-rako bidea egiten (Atkins & Rundell 2008).

Quemadak (Quemada, 1987, 1990) esana da hiztegia osatzeko eredu linguistikoak, estralinguistikoak, testuinguru soziokulturala eta ekonomikoa izan behar direla kontuan, hau da, hiztegiak informazio esplizitua —gramatikala, semantikoa, orokorra— eta inplizitua —helburuaren arabera: didaktikoa, erabilera— izan behar dituela aldi berean. Bada, begien aurrean izan zuen hori guztia Euskaltzaindiak, bai eta azken urteetan plazaratutako bestelako berrikuntzak ere: definizioen zehaztasunari buruzkoak, gramatika-informazio zehatzaren beharra, informazio pragmatikoa, fraseologiaren tratamendua eta, bereziki, definizioa argitzeko adibi-

detegiaren beharra (Pruvost, 2005; Atkins & Rundell, 2008; Ahumada, 2016).

Bidea ez da erraza izan, ezta laburra ere, baina hasierako kezka, eztabaida eta ametsek badute erantzuna, eta etorkizunerako bide-orria idatzia.

3.2. Euskaltzaindiaren Hiztegia

3.2.1. Zimendu sendoak: corpusak

*Iturri zaharretik
edaten dugu,
ur berria edaten,
hitz bizia aditzen, beti berri den hitza,
betiko hizkuntza zaharretik.*

J.A. Artze

Orotariko *Euskal Hiztegia*n dugu abiapuntua, hori da gure oinarria. Eta hori baliatu du *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* berak etxea zimenduetatik eraikitzen hasteko, honen oinarri izan zen *Hiztegi Batuak* hala jarri baitzuen abian egun bizirik dirauen bidea¹⁶, atzeak erakusten baitu aurrea nola dantzatu. Iturri zaharretik datorren ur berria, alegia. Horiek ere behar ditugu egungo *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n, gure altxorraren parte baitira.

Hor dugu abiapuntua, baina XX. mendean sortu zen Akademia, XX. mendean

16 Alegia, lehendik Akademiak onartuak zituenak bai, baina OEHN maiztasun batetik gorakoak ere bai. Nolanahi ere, ez zen *Hiztegi Batuaren* hasierako hartan bildu eta tradizioari atea itxi, ez. Ora in ere, *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko lantaldeak horretan dihardu, OEHNko azpisarrerak berrikusten eta hiztegirako berreskuratzen. Badira bere garaian jaso gabe geratu zirenak, OEHN oraindik ere osatzen ari baitzen. Baina badira gaur bizirik dirauten esapideak, lokuzioak, hiztegiak jaso gabe dituenak, edo adibide gisa ezkutatu samar daudenak, bai eta adiera berria hartu dutenak, berrezarpen semantikoaren bidez.

hedatu zen euskara irakaskuntzara, lan-mundura, komunikabideetara, administrazioa eta mundura, orduan eskuratu zuen ofizialtasuna —ez euskararen lurralde osoan, tamalez—, orduan izan zen euskarazko ekoizpenaren pizkundera. Eta horrek ere osatu eta indartu ditu gure hasierako zimenduak: atzo goizekoak dira hauek, gaurkora ekarri gaituztenak. Horren lekuko da XX. mendeko *Euskararen Corpusa*, etxearen lehenengo solairua atontzen lagundu diguna, beheko solairu nagusia tradizio urrutiagokoak osatua baitzuen.

Badakigu, beraz, nondik gatozen, nork eta nola ekarri gaituen hona. Baina, non gaude eta, batez ere, nora goaz? Gu hemen eta orain bizi gara, eta horren isla ere jaso beharra daukagu bigarren solairua prestatzen hasteko. Etxea atontzen dugun bitartean bertan bizi izateak beti izaten ditu trabak, ez dugu distantziak ematen duen perspektibarik izaten, batzuetan deseroso ere sentitzen gara, eta aldaketak etengabeak dira gainera. Baina tresna egokiekin dena da posible. Badugu *Lexikoaren Behatokia* *corpusa*¹⁷, XXI. mendeko euskararen isla etengabe eguneratua, baina horrek ere orotarikoa izan beharko luke, zabalagoa, orekatuagoa, erreferentziazkoa, *Euskararen Erreferentzia Corpusa* izan beharko luke (Urkia, 2007, 2008). Corpusak, gainera, ez ditugu hiztegitileek bakarrik erabiltzen: ezinbestekoak ditu hizkuntza aztergai duen edonork.

3.2.2. *Euskaltzaindiaren Hiztegia, gaur*

Hiztegiak erlojuak bezalakoak dira:

txarrena ezer baino hobea da,

*eta onena ezin espero dezakegu guztiz zehatza izatea.*¹⁸

Samuel Johnson

Euskaltzaindiaren Hiztegia hiztegi arauemailea da, *Hiztegi Batua* adieraz, adibi-

¹⁷ <http://lexikoarenbehatokia.euskaltzaindia.eus/>

¹⁸ “Dictionaries are like watches; the worst is better than none, and the best cannot be expected to go quite true”.

dez eta azpisarreraz hornitzen duena (38.878 sarrera, 7.302 azpisarrera eta 63.507 adiera). Tradizioan eta egungo corpusetan oinarriturik, hitz bakoitzari dagozkion adibide argigarriak eskaintzen dizkio erabiltzaileari. (*Euskaltzaindiaren webgunea*, 2019-01-11ko eguneratzea).

Hala aurkezten du Euskaltzaindiak hiztegia sarean:

Baina hiztegiak formak lantzeko irizpideak 1992an finkatu zituen orduko Hiztegitintza batzordeak (Aduriz, 1994, Hiztegi Batuko batzordea, 1994). Bai ondo finkatu ere, oraindik guztiz baliagarriak ditugu eta. Egunero-egunero iristen zaizkigu hitz berriak, baina Euskaltzaindiak urari bere bidea egiten utzi behar dio, hitz bakoitzak bere erritmoa baitu¹⁹; batzuetan moda kontuak izaten dira, etorri orduko ahazten ditugun hitzak. Guk corpuseratu egiten ditugu eta, ibiliaren ibiliaz lekua hartu dutenean, orduan hiztegitratzen ditugu, betiere maileguei eta hitz-eraketari buruzko irizpideak ahaztu gabe.

Zenbat “utzi oraingoz” esan ote dugu lantaldean forma berri baten aurrean, handik denbora batera “barrura” esateko? *Webgune* hitza ez zen berehalakoan sartu hiztegian, moda kontua izan zitekeela argudiatuta utzi genuen zain²⁰, erabiliaren erabiliaz —eta zazpi urteren buruan— hala jaso beharra zegoela ikusi genuen arte, geratzeko etorria baitzen, *kalimotxo*²¹ bezala, bide batez esanda, batzuen gustuko ez bazen ere. Eta ate-joka dugu aspaldi *zurito*. Ba al du ordain egoki erabilirik (hori da kontua, erabilia izatea, idatzian betiere) forma hori kanpoan utzi ahal izateko?

Maileguen kasuan, egokitzea den edo bere horretan jasotzekoa den ikusi be-

19 Maileguen kasuan, RAEk bost urteko epea uzten du forma bat hiztegitratzekoa den ala ez erabakitzeke. Gurean ez dugu epemuga zehatzik ezartzen, epe zabalagoa eta erabilera-maiztasuna hartzen ditugu kontuan.

20 Hau izan zen hiztegiak lantaldearen proposamena, 2004-01-13koa: “oso berria da, bidea egin gabea; eta pasakorra izan liteke.” (*Hiztegi Batu Oinarriiduna*, s.u. *webgune*). Baina, erabileraren gorakada eta zabalkundea ikusita, 2011n onartu beharra izan zuen forma. Gaur hala ageri da hiztegiak sarrera: “*webgune* iz. Interneteko gune birtuala, erakunde edo kideko batek bere buruari buruz edo gai jakin bati buruz informazioa emateko duena, web orriz osatua dena eta, askotan, beste webgune batzuetarako lotura ere eskaintzen duena. *Durangoko Azokak* urte osoan zehar ateak zabalik ditu *durangokoazoka.com* webgunean. *CIA* informazio eske dabil bere webgunean. *Webguneko* eduki ia guztiak euskaraz idatzita daude.” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

21 Hitz hau isiltzea erabaki zuen Euskaltzaindiak 1997an, baina 2010ean onartu egin behar izan zuen, honela: “*kalimotxo* 1 iz. Ardoa eta kola-freskagarria nahasiz eginiko edaria. *Mutiko talde bat* hurbildu zaie, *kalimotxo* botilak eskuetan. *Izaro*, bere lagun guztiak bezala, jaietara joaten zen, dantzaz egiten zuen, eta baita *kalimotxo* edan ere. 2 iz. Baso bat *kalimotxo*. Beste *kalimotxo* bat eskatu zuen.” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

har da, nazioartekotasun-graduari (“hitz mundu guztitarrei”, Altuberen hitzetan) begiratu behar zaio, inguruko hizkuntzek hartu duten bideari ere bai, hizkuntza ez baita isolatua bizi, euskara ez baita hobeia edo aberatsagoa izango *telefono*²² nazioartekoaren ordeztu *urrutizkin*²³ asmatua erabilita. Exotikoagoa izango da, baina hori da bilatzen duguna ala hiztunen beharrei erantzungo dien hizkuntza modernoa? Txukunagoa izango al da Altubek eta Azkuek proposatu zuten *kaferen*²⁴ ordeztu *akeita*²⁵ erabiltzea? Ikus *Orotariko Euskal Hiztegiak akeita* sarreran argitzen diguna:

Esa palabra —dice J. Urkijo (*La literatura poética vasca* 10)— la inventó una vieja de aquende el Pirineo, para pedir café a una amiga suya, sin que se enterasen sus vecinas. El Dr. Broussain comunicó dicho vocablo al Sr. Azkue y por omisión del primero o distracción del segundo, no apareció la debida aclaración en el Diccionario Vasco-Español-Francés. DRA. [OEh, s.u. *akeita*]

Bada ezinbesteko beste irizpide bat ere, Ipar/Hego banaketari dagokiona, Iparaldeko euskaldun batek ez baitu gaztelaniarik jakin behar euskal hitz bat ulertzeko, ez eta Hegoaldekoak frantsesa forma bat konprenitzeko²⁶. Eta hor gorde behar da, bai ala bai, oreka, batzuetan ia ezinezkoa bada ere. Nola ditugu, bestela, *gasolina*²⁷

22 “**telefono** 1 iz. Ahotsa edo zernahi hots igortzeko behar diren tresnen eta harien sistema. *Telefono elkarrizketa. Telefono-zenbaki berria.*

2 iz. Sistema horren bidez hitz egiteko tresna. *Telefonoa hartu, eskegi. Telefono hotsa. Tirrin... tirrin... telefonoa deika.*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

23 “**urrutizkin** iz. g.g.er. Telefonoa.” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua). Asmatua eta gaur gutxi erabilia (g.g.er.) da, baina badu tradizioa, garai batean nagusitu egin zen eta. Horregatik, gaur forma estandartzat *telefono* hartzen bada ere —horregatik da definitzailea—, hiztegian jaso beharra dago, erabili egin baita.

24 “**kafe** 1 iz. (Multzokaria). Kafeondoaren fruituaren hazia, txigortuz gero beltza dena. Ik. **akeita**. *Zaku bat kafe. Kafe alea, garaua, bihia. Kafea eho.*

2 iz. Kafe ale txigortu eta birrinduaz egiten den edari beltz pizgarria. *Kafea egin. Kafea hartzen, edaten. Kafe hurrua bat. Kafe beltza, hutsa: esnerik bota ez zaiona. Kafe hondarrak.*

3 iz. Kikara bat kafe. *Mutilak bi kafe atera zituen. Kafe beltz bat, mesedez!*

4 iz. Ipar. Kafetegia. *Kafe eta ostatuetan.*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

25 “**akeita** iz. g.g.er. Kafea.” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua). Hau ere g.g.er. markarekin sartu da, garai batean oso erabilia izan baita, jatorria gorabehera.

26 “Ez eta ez dira erabat euskal hitzak gaztelera edo frantsesa jakin gabe euskaldun batek ezin adi ditzakeenak, non baitirudi zenbait euskal telekomunikabidetako zenbait programa aditzeko bortxatzen direla Iparaldeko euskaldunak lehenik gaztelera ikastera eta Hegoaldekoak frantsesa.” (*Euskaltzaindia* 1991: 446).

27 “**gasolina** iz. Heg. Petroliotik ateratzen den isurkaria, erregai gisa erabiltzen dena. Ik. **ezantza**. *Zenbat litro gasolina erretzen du auto horrek?*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

eta ezantza²⁸ hiztegian? Ez zegoen bakarra hautatzeko modurik, inor baztertuko ez zuenik behintzat, eta zeinek bereari eutsi dio oraingoz, erabilera-marka ondoan duela betiere: *Hegfoaldea* gasolinak, *Ipar[aldea]* ezantzak.

Azken urteotan zoritxarrez maizegi entzun eta erabili dugun ingeleseko *bullying* geureganatzeko ere zain egon ginen. Batzuek mailegua bere gordintasunean erabiltzen zuten (*bullying*, alegia); beste batzuek, aldiz, euskarak berea duen hitz-eraketaren bidea hautatu zuten, *eskola-jazarpen*²⁹ erabilita. Bada, azken hau atera da garraile, eta bestelako *jazarpen* motei ere bidea ireki die osaera honek: *sexu-jazarpen*, *laneko jazarpen* eta, zoritxarrez, etorriko diren *jazarpen* berriei, etengabe ingeleseko *-ing* bukaerara jo gabe, halako gutxi batzuk geureganatuak baditugu ere (*casting*, *holding* edo *trekking*³⁰, esaterako). Izan ere, hizkuntza erabiltzaileena da, ez Euskaltzaindiarena. Akademiak erabilerak jaso, ondo sortuak dauden aztertu, forma eman eta zabaltu egiten ditu, ez besterik.

Horregatik, batzuetan erabilerak irizpideekin edo hizkuntzaren beraren arauekin talka egiten du, berriki moldatu dugun *dirulaguntza*³¹ formaren idazkerarekin

28 “**ezantza** iz. *Ipar*. Gasolina. Ezantza xorta bat baizik ez zait gelditzen beribilean.” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

29 “**eskola jazarpen**, **eskola-jazarpen** Eskola bateko ikasle batek beste ikasle baten edo ikasle-talde baten aldetik tratatu txar jarraitua, fisikoa nahiz morala, jasotzea. Barakaldoko eta Santurtziko udalek webgune berria aurkeztu zuten atzo, eskola-jazarpeneko kasuen aurrean biktimak aholkatzeko.” [s.u. **eskola; jazarpen**]. (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

30 “**casting** iz. Ikuskizun batean aktore, aurkezle, modelo edo figurante gisa aritzeko egiten den hautapropa. ‘Hiztegitik hortzera’ saioaren aurkezlea bilatzeko, casting bat antolatu zuten. Diru mordoa irabaztea eta telebistan irteteko gogoia izatea dira ‘Basetxea’-ko castingera aurkezteko amuak.; “**holding** iz. Ekon. Enpresa multzo baten akzio gehienak dituen eta horiek kudeatzen dituen finantza-sozietatea. *Holdingaren akziodunei buruz zalantzak eta bidezko susmoak dituela adierazi zuen.*”; “**trekking** iz. Mendian barrena oinez egiten den ibilaldi luzea. Zeharkaldi luzea da, baina Nepalen egin daitekeen trekking ederrenetakoa.” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

31 Izen + izen motako izenak (ihartuak ez direnak behintzat) bereiz edo marratxoz idaztekoak dira 25. arauak (*Hitz elkartuen osaera eta idazkera*) dioenez. Horraino, denok ados. Bide horretatik arautu zuen Euskaltzaindiak *diru(-)laguntza*. Eta, euskaldunak hizkuntzari dagozkion arauak betetzen inor baino zintzoagoak garenez, ordura arte lotuta idazten zuten ia denak marratxoz edo bereiz idazten hasi ziren. Ia denak, intumisoren bat izan zelako tartean, eta ez nolanahikoa. Administrazioan du erabilera-maiztasunik handiena hitz honek, eta urduri jarri genituen, nonbait, *foru-dirulaguntza* moduko hiru osagaiko hitz elkartuak egiteko bidea etenda ikusi zutelako. Batzuek, gogoz kontra bazen ere, bete egin zuten araua; beste batzuek ez. Eta Euskaltzaindira helarazi zuten haien ezinegona, ondo argudiatuta. Bada, tarteka Akademiak ere atzera egin behar izaten du, zuzentasunak praktikotasunarekin talka egiten duenean, onena egokitzea izaten baita. Eta halaxe egin berri du Osoko bilkurak: “**dirulaguntza** Diruz ematen den laguntza, bereziki Administrazioak edo erakunde pribatu batek

gertatu den bezala. Erabiltzaileek ondo argudiatutako eskaerak kontuan hartzen ditu Akademiak eta, hala dagokiola ikusten duenean, atzera egiten ere badaki, euskara erabiltzaileena baita, ez araugileena. Eta Euskaltzaindiaren lana ez da hitza hiztegian sartzen denean bukatzen, erabiltzaileak hitza bere egin eta erabiltzen duenean baizik.

Lexikografia ez delako artisau-lana, kanpoko faktoreak ere bere egin behar dituelako. Horrek Akademiaren malgutasuna erakusten du, gainera, eta gizartearen zerbitzura dagoela islatzen.

2000. urterako zehaztu zituen Euskaltzaindiak hiztegia bera osatzeko irizpideak ere, makroegitura eta mikroegitura, garaiko estandarrak kontuan hartuta. Errazagoa da lexikografoarentzat, araugintza mailan ari denean, ortografiari dagozkion kontuak zehaztea —alegia, aipatu berri ditugun hiztegi-formei buruzkoak— esanahi lexikoaren domeinuari buruzkoak baino (Zgusta, 1971). Baina heldu zion horri ere.

Sarreraren deskribapen linguistikoan hiru osagai hartu behar dira kontuan (Du-bois, 1971): morfologikoa, sintaktikoa eta semantikoa. Hauek, artikulua ondo egituratua badago, hizkuntzaren ezaugarriak modu egokian ezagutzea ahalbidetuko dute.

Sarreraburuak eta azpisarrerak nola banatu zehaztua zegoen lehendik, *Hiztegi Batuaren* garaitik, baina definizio-eredua³² eta, horrekin batera, adibidetegiaren garrantzia finkatu zen, maiz adibideek lagunduko baitute definizioa eta erabilera argitzen³³. Eta, horrekin batera, ohar gramatikalak, euskalki-, erregistro- edo era-

gizabanako bati edo beste erakunde edo talde bati helburu jakin baterako ematen dion laguntza ekonomikoa. *Gobernuak 2.300 euroko dirulaguntzak emango dizkie kalteak izan dituzten herriei izurriteari aurre egiteko. Lana aurkitu ezean dirulaguntza jasoko du familiak. Aitaren dirulaguntza zuelako.*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

32 Definizioak neutroa, xehetasunetan sartu gabe, baina ulergarria izan behar du. Hiztegi arauemaileari ez dagokio ez informazio entziklopedikoa, ezta espezializazio mailakoa ere.

33 Adibideen bidez eskaini ahal izango dugu informazio estralinguistikoa edo “lexikulturala”, neurri batean entziklopedikoa, nahi bada, Pruvostek (Galissoni hartuta), “information lexiculturelle” deitzen duena:

Tous les mots employés dans une communauté linguistique dont le lexicographe est le légitime descripteur n’ont pas nécessairement une charge culturelle partagée, mais cependant à y regarder de plus près, ajouter une définition lexiculturelle s’impose pour beaucoup. Pour ne donner que quelques exemples supplémentaires, un mot comme *muguet* est en France forcément associé au 1er

bilera-markak, jakite-arloa, hedadurazko edo irudizko erabilerak eta erreferentziak nola landu ere zehaztu behar izan ziren. Eta hori guztia oso modu xehean landuta, betiere erabiltzailearentzat ulergarri izan behar zuela ahaztu gabe.

Horiek guztiak esanda, ezer ez da betiko, are gutxiago hiztegia. Moldatzen eta eguneratzen ez den hiztegiak ez du deusetarako balio (Stamper 2018). Lexikografia ez da zerrenda alfabetikoan esanahia jasotzea bakarrik: alderdi psikologikoa eta soziologikoa ere kontuan hartu behar da. Gizartearen zerbitzura, behar errealei lotua egon behar du. Horregatik da hain garrantzitsua etengabe berrikustea. Gizartea aldatuz doa eta, halaberharrez, hiztegiak ere egokitu beharra dauka. Familia-ere-
duak ez dira duela urte batzuetakoak, bikote-harremanak pertsonen artekoak dira, ez gizonen eta emakumeen artekoak soilik, ezkontzak ez dira elizaz bakarrik egiten, erlijio- eta arraza-aniztasuna gure gizartearen parte dira egun, genero-berdintasuna oinarritzko printzipioa da behingoz, eta hori guztia islatu behar du hiztegiak. *Amaginarreba* ‘ezkontidearen ama’³⁴ da, ez senarrarena edo emaztearena; *hiesa* ‘egoera klinikoa’³⁵ da, eta Giza Immunoeskasiaren Birusa (GIBa) ez da gaitza, infekzioa baizik. Eta Azkuek erabilitako “Hazparneko atsoen” kontua ez da egokia, *atso*³⁶ hitza markatua baita, hiztegiak ohar bidez argitzen digun moduan. Baina jaso beharra dago, helburu didaktikoa ere baduelako hiztegiak. Horregatik daude lagunartekoa, peioratiboa eta bestelako erabilera-markak, erabili egiten diren neurrian hiztegiak

mai, jour de la Fête du travail, cette fleur en représente en effet le symbole. Elle est vendue à ce jour précis : acheter le muguet le 15 mai ou le 15 avril n’aurait aucun sens pour un français. Au reste, il n’en trouverait pas chez les fleuristes... Aussi, définir le muguet comme une « liliacée à petites fleurs blanches d’une odeur douce et agréable » est certes très intéressant, on est en pleine « culture savante », mais ne pas ajouter dans un exemple ou dans un développement encyclopédique qu’il s’agit d’une fleur symbolique vendue le 1er mai dans les rues, dans toutes les boutiques, dans le métro, etc., c’est passer à côté de l’essentiel. La composante lexicoculturelle doit ici être mentionnée sous peine de présenter au lecteur du dictionnaire une définition du mot des plus lacunaires. (Pruvost, 2005: 19).

34 “*amaginarreba* iz. Ezkontideetako baten ama beste ezkontidearentzat. *Ama alabaren aurka eta amaginarreba errainaren aurka ezari.*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

35 “*hies* iz. Med. Giza Immunoeskasiaren Birusak eraginiko egoera klinikoa. *Hiesak erasanda hil zen, gazterik. Hiesaren birusa.*” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

36 “*atso* iz. Emakume zaharra. *Isilaraziko ditut herriko atso zahar guztiak. Hasi da atso zimurra bere hasbeherapenekin. Atsoa kontu hartzen ari da eta auzoan dena zabalduko du. Atso bat hiltzeko ez da gauza: ez du ezertarako balio. Onets nezan gure atsoa, iduri zekidan neskatoa (esr. zah.).* [Oharra: hitz markatua da, gutxiespen balioa du eskuarki, eta ezin erabili daiteke “adineko”-ren sinonimo oso balitz bezala.]” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua)

jaso egin behar dituelako³⁷, baina argi adierazita nola erabiltzen den eta, beraz, nola ez den erabili behar. Sexuak, jatorriak edo adinak ez dutelako bereizkeriarik behar ezta hiztegiaren ere.

Hiztegiaren azken eguneratzeak lagunarteko, behe-mailako eta herri-mailako hainbat forma berri ekarri du —eta bidean dira adierazkorrak—, bat edo beste asal-datu dutenak, gainera: *bokata*³⁸, esaterako. Bada zerbaiten seinale, maila formalari eutsita ere, bestelako erregistroetan normalizatzen ari baita euskara batua. Bai, batua, erregistro hauetarako ez duela balio diotenentzat, hemen kontrako argudio bat. *Bokata*ren kasuan, euskal forma estandarra eta neutroa *ogitarteko* da ‘Barnean jakiren bat daukan ogia edo ogi zatia’ gisa definitua, baina Hegoaldean eta lagunartean *bokata* ere erabiltzen da, eta ez gutxi, datuek erakusten duten moduan, eta ‘Ogitartekoa’ gisa definitua ageri da. Hori da hiztegiak jaso duena, ez besterik, erabilera markatzen duen neurrian. Hitz formalak, estandarrak bere bidea egin du eta, beraz, gaur lagunartekoak ere sartzen has gaitezke, edozein hizkuntza garatuk

37 Hala dio RAEk *Diccionario de la Lengua Españolaren* (DLE) sarreran:

Del mismo modo que la lengua sirve a muchos propósitos, incluidos algunos encaminados a la descalificación del prójimo o de sus conductas, refleja creencias y percepciones que han estado y en alguna medida siguen estando presentes en la colectividad. Naturalmente, al plasmarlas en un diccionario el lexicógrafo está haciendo un ejercicio de veracidad, está reflejando usos lingüísticos efectivos, pero ni está incitando a nadie a ninguna descalificación ni presta su aquiescencia a las creencias o percepciones correspondientes. Se diría que existe la ingenua pretensión de que el diccionario pueda utilizarse para alterar la realidad. Mas lo cierto es que la realidad cambia o deja de hacerlo en función de sus propios condicionamientos y de su interna dinámica; cuando cambia, se va modificando también, a su propio ritmo, la lengua que es reflejo de ella; y es finalmente el diccionario —en la culminación del proceso, no como su desencadenante— el que en su debido momento ha de reflejar tales cambios. (DLE, Preámbulo 23ª edición, 2014).

38 “*bokata*² iz. Heg. Lgart. Ogitartekoa. Goazen kalera, *bokata* bat jango dugu!” (Euskaltzaindiaren *Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua). Datu bakar bat aipatzearen, *bokata* 159 aldiz ageri da *Lexikoaren Behatokia* corpusean [2019-03-27an begiratua], horietatik 157 agerraldi ‘ogitartekoa’ adierakoak eta bi besterik ez hiztegiak aspaldi jasoa duen ‘lixiba’ adierakoak (“*bokata*¹ 1 iz. *Ipar.* eta *Naf.* Lixiba, lixibatzea. / 2 iz. *Ipar.* eta *Naf.* Lixiba (arropa multzoa). / 3 iz. *Ipar.* Nahastea, istilua. *Ba omen dira ehun eta zenbait diputatu ere, auzi horietatik eskuak garbi aterako ez direnak; zer bokata!*”) (Euskaltzaindiaren *Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua). Ogitarteko adierakoaren lehen agerraldia XX. mendeko corpusean aurki daiteke, 1992ko testuliburu batean (*Bene-benetan 1*), hain zuzen. Forma estandarra, *ogitarteko*, inongo erabilera-markarik gabea, 635 aldiz ageri da *Lexikoaren Behatokia* corpusean.

eta normalizatuk egin ohi duen bezala. Erdal kutsurik hartuko ez bagenio, lasaiago hiztegitratuko genuke hitza, ezta? Baina horixe da Hegoaldean erabiltzen dena.

Hiztegiak lexiko orokorra du helburu, ez terminologia (zentzu hertsian hartuta). Baina erabilera arruntean hitz teknikoak etengabe erabiltzen ditugu, erabilera arrunteko terminoak diren neurrian, eta horiek ere jaso behar ditu hiztegiak erabilgarri izango bada. Oso espezializatuak direnak terminologoen ardura dira, hor dago UZEIko lankideek hasiera-hasieratik kudeatzen duten *Euskalterm*³⁹ banku publikoa, baina *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ere halako asko behar ditu, batzuetan espezializazio-markarekin hiztegitratu behar badira ere⁴⁰. *Tinpano*⁴¹ sarrerak, esaterako, hiru marka desberdin behar ditu, hirurak espezialitatekoak baitira: anomiakoa ('belarri barneko mintza'), arkitekturakoa ('ateburuaren gaineko hiruki formako gunea') eta musikakoa ('danbor mota'). Informazio hori guztia eskaini behar du hiztegiak baliagarri izango bada.

Berandu hartu genuen lexikografia modernoaren trena, baina iritsi ginen, eta ez genuen eserleku txarra hartu, gainera. Baina, hori guztia, aurretik oinarriak ezarri zituztenei zor diegu: treneko errailak prest utzi zituzten eta, baita abiadura handikoa hartzeko ere.

Geure esku dago aurrerantzean egiteko dagoena, eta horiek ez ditut isilean gordeko, lan batzuk hasiak baditugu ere. Badira osatu beharrekoak: azpisarrerak kategoriaz osatzea⁴², edo garai batean "hobe" marka zutenen sailkapen moduko bat egitea, guztiak ez baitziren bigarren mailakoak, euskalkiak ere tartean ziren eta. Adibidez, ez dira maila berean jasotzekoak *dedikazio* eta *domeka* sarrerak: lehenengo erdal forma da, euskal ordain egokia duena (*arduraldi*); bigarrena bizkaierako hitz arrunta da, euskalki-markarekin bada ere, hiztegian normaltasun osoz jasotzekoa⁴³. Txikikeriak dira hauek, aurrekoek egindako lanaren aurrean. Hirugarren

39 <https://www.euskadi.eus/euskalterm/>

40 56 jakite-arlo ditu *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*, eta 3.623 adieratan ageri da espezialitate-marka, hau da, hiztegi osoaren % 5,7 markatua da, 63.507 adiera dituela kontuan hartuta.

41 "tinpano"

1 iz. Anat. Belarri barneko mintza, belarriko hezurtxoei hots-uhinak igortzen dizkiena. *Eztandak tinpanoa zulatuz zion*. 2 iz. Arkit. Ateburuaren gaineko hiruki formako gunea; eliza eta kidekoetan, ateburuaren eta arkibolten arteko gunea. *Katedralaren atariaren gainean tinpano bat dago; bi giza irudi ditu alboan, bata belauniko eta bestea eskuetan kutxa bat duela*. 3 iz. Mus. Danbor mota." (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2019-03-27an kontsultatua).

42 Azpisarrerak kategorizatzea oinarritzkoa da, besteak beste, hiztegi-kontsultak kategorien araberrako bilaketen emaitza osoak erakusteko.

43 Hiztegi Batuan "*dedikazio* h. *arduraldi*" eta "*domeka* h. *igande*" gisa jaso zituen Euskaltzain-

itzulia hastean ordura arte arautua zegoena corpusean balidatu genuen moduan, ezarpena abian jarritz⁴⁴, ez litzateke txarra izango orain dugun esku arteko corpus handiaren kontra berriro ere probatzea, ea bide onetik goazen oraindik ere —erabiltzaileen oharrek asko laguntzen badute ere—. Eta, nola ez, hiztegia goitik behera lematizatu eta estekaz josi beharko dugu berandu baino lehen, barruko nabigazioa errazteko. Casaresek hitz bat bilatzeko aurrena hitz hori aurkitu egin behar zela zioen⁴⁵. Bada, lematizazioak bidea arinduko du. Izan ere, Casaresek berak dio “el Diccionario de la Lengua [Española] es la obra más difícil de consultar porque no tiene índice”. 1921ean⁴⁶ esandakoak dira hauek, duela ia mende batekoak. Kolokazioei ere berandu gabe heldu beharko diegu, gogoeta bideratua badugu ere, hori baita hizkuntza biziaren beste erakusgarri bat (eta euskarara hurbiltzen direnentzat ezinbesteko izango dena epe oso laburrean).

Honaino iritsita, 46.000 formatik gorako⁴⁷ euskal hiztegi arauemailea adieraz eta adibidez hornitua izatea ez da hutsala, horretarako ia ehun urte behar izan baditugu ere, baina honek ez du etenik⁴⁸.

Egia da hiztegiak egiteko modua lexikografia modernoaren sorrerarekin eta, nola ez, corpusekin aldatu zela eta, corpusak gizartearen isla diren neurrian, hiztegiak zuzendu, moldatu eta eguneratzeko modua ere aldatu dutela (Rafel 2011; Béjoint 2000, 2007). Hala dio Institut d’Estudis Catalans-ek *Diccionari de la llengua catalanaren* sarreran:

diak. *Euskaltzaindiaren Hiztegia* “h.” (hobe) guztiak kendu ziren, baina sarrera horiek definitzaile soilarekin utzi ziren, hau da, adibiderik gabe. Gaur hala daude hiztegia: “**dedikazio** iz. Arduraldia”, eta “**domeka** iz. Bizk. Igandea”. Azken honek adibidea beharko luke “hobe” markaren arrastoa kentzeko.

44 Saio horren emaitza esanguratsuenetakoa da baztertua zegoen *amankomun* hitza onartzea, debekua izanagatik ere, corpusetan etengabe erabiltzen zelako. Izan ere, ‘lanak komunean egin’ modukoek sortzen zuten anbiguotasuna (barre-eragilea, askotan) izan zen arauak arrakastarik ez izatearen arrazoi nagusia, antza.

45 Casares: “Para poder buscar una palabra hay que empezar por haberla encontrado” (Casares, 1921).

46 Julio Casaresek RAEn esandako hitzak dira, bere sarrera-hitzaldikoak.

47 38.878 sarrera eta 7.302 azpisarrera direla kontuan hartuta (2019-01-11ko eguneratzeko datua).

48 Mikel Zalbidek 1991n idatzitakora ez gara oraindik iritsi, baina ez gabilta urruti, eta ortografiakoa gainditu genuen aspaldi. Gogora dezagun Zalbidek esandakoa: “Lehen estimazio baten arabera, 10.000-20.000 hitz inguruko zerrenda izango litzateke hiztegi hori. Bada gorago jo nahi lukeenik ere, 50.000 hitz ingurura iritsiz”. Duela 27 urteko batzordekide baikor hori poztasunera iristear dago, atzerapen txiki batekin bada ere.

En lexicografia, qualsevol que sigui la mena de diccionari que hom faci, és imprescindible fer el seguiment de la utilitat per als destinataris, per tal de copsar-ne les deficiències i de posar-hi remei. La millor prova de la bondat d'un corpus i de la seva presentació i descripció és el grau de satisfacció en aquells qui hi recorren, sabent que mai no s'arriba a l'obra completa, acabada del tot; sempre és possible més exactitud, més eficàcia, en les diverses classes d'informació. (DIEC2, Introducció - Part II)

Horrez gain, hiztegiak erabiltzeko modua teknologia berriei esker aldatu da azken urteotan, eta horrek guztiak eman du aukera bilaketa aurreratuak bideratzeko eta, batez ere, barruko kontrola gure gain hartzeko. Hizkuntzalaritza aplikatuaren garaian gaude, eta ezin dugu tren hori galdu, honetan ere hizkuntza galduko ez bada, egungo arriskua heriotza digitala baita (Kornai, 2013). Bai, beste tren baten aurrean gaude berriro ere.

Eta, hala ere, hau aski da? Ez, ez niretzat behintzat. Egiteko horiek guztiak bideratu eta erakundearen beste baliabideekin lotu beharko genuke hiztegia bera.

Eta hitzaldi honen azken puntuari helduko diot.

3.3. Kofradia



Mendeurreneko “Euskara ehuntzen” leloa ezin egokiago datorkit aipatu nahi dudana azaltzeko, kofradiaren nire ametsa zuekin partekatzeko. *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* gure erakundearen baliabide asko jasotzen eta, batez ere, erabiltzen ditu; hiztegia bestelako lanen erabilera praktikoa ere bada eta, informazio osagarria eta adibideak biltzen dituen neurrian⁴⁹ (Casares, 1950).

Beraz, zergatik ez lotu hori guztia teoriarekin, zergatik ez erakutsi, modu gardenean, darabilguna zergatik darabilgun? Guztia sarean ehunduko bagenu, balio erantsia emango genieke Akademiaren lanei, erakusgarriago eta erabilgarriago egi-

⁴⁹ Casaresek esan zuen: “Es tan íntima y esencial la interdependencia de las múltiples ramas en que hoy se divide la lingüística, que no es posible cultivar una de ellas sin llamar en su ayuda a las restantes” (Casares, 1950 [1992]: 29).

teko. Gardentasunaren garaian, edukiak saretzea/ehuntzea dagokigu.

Euskaltzaindiaren Hiztegia aitzindaria da hiztegia osatzeko baliatu dituen oinarriak gardentasunez erakusten. Hor ditugu, hiztegiko sarrera bakoitzaren ondoan, ‘Estekak’ laukian klik eginda, horretarako oinarri izan dituen *Orotariko Euskal Hiztegia*, *XX. mendeko Euskararen Corpusa* eta *Lexikoaren Behatokia*, euskal tradizioa eta egungoa islatzen duten corpusak. Baina ez hori bakarrik: hiztegiko formak erabakitzeke baliatu dituen irizpideak, izandako eztabaidak eta erabakiak ere biltzen ditu *Hiztegi Batu Oinarri*duak. Bada, lexikoaren alorrean oinarri gisa erabili ez diren, baina osagarri izan daitezkeen bestelako baliabideak ere eskaini beharko genituzke aurrekoekin batera, alegia, lexiko berezituen atalean ditugun *Zientzia eta Teknikaren Hiztegi Batua*⁵⁰, *Oinarriko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa*⁵¹ eta *Literatura Terminoen Hiztegia*⁵². Lexiko espezializatuak (Oinarriko Hiztegi Teknikoak —Matematika, Fisika, Kimika eta Astronomia— batetik, eta *Oinarriko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa* bestetik) *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* irizpideak aplikatuta osatu dira, eta horietako hainbat forma —eta, bereziki, adiera— bilduak ditu hiztegiak, baina ez sistematikoki, helburuak ere desberdinak dira eta. Baina *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* jaso dituenak hiztegi berezitueta eta jakite-arlo zehatzetan ikusi ahal izateak bi aukera eskainiko lizkiguke: bata, bere familian kokatua izatea eta, bestea, erdal ordainak ikusi ahal izatea. *Literatura Terminoen Hiztegiak*, gainera, sarrera bakoitzaren definizioa eta artikulua osoa ikusteko aukera eskainiko digu.

Eta, aurrekoekin batera, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* ere hiztegiarekin lotu beharko genuke, prest izango denean, hitzaren ziklo osoa osatzeko. Orain *Orotariko Euskal Hiztegiak* eskaintzen digu formen etimologia kasu batzuetan, hiztegiko sarrerara joanda, baina modu laburtuan eta ez sistematikoan egiten du, ez baita hori OEHren egiteko nagusia.

50 <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/hiztegi-digitalizatuak/oinarrizko-lexiko-teknikoak>

51 <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/hiztegi-digitalizatuak/oinarrizko-hiztegi-juridiko-parlamentarioa>

52 https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_list&search=1&view=frontpage&Itemid=474

Dialektologiaren esparruan, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasak*⁵³ lexikoari dagozkion 2.163 galderen erantzunetan hiztegian jaso diren forma ugari biltzen ditu, euskalkietako aldaerak bereziki⁵⁴. Eta horiek guztiak mapa batean islatuta ikustea guztiz argigarria da. Egun modu automatikoan egiten da lotura hori, baina kontzeptuen arabera loturak falta dira, eta berandu gabe osatu beharko lirateke. Bi proiektuok, zein bere bidetik osatu badira ere, eta helburuak erabat desberdinak diren arren —semasiologikoa da hiztegia, onomasiologikoa atlasa— ahokoaren eta idatziaren arteko koherentzia-maila uste baino handiagoa dela erakusten dute, eta elkar aberasteko balia daitezke. Atlasak hiztegian egon daitezkeen hutsuneak edo euskalkietako zehaztasun-mugak salatuko ditu eta, gure irizpideekin talkarik egiten ez duten heinean, osagarri izan daiteke elkarrizketetatik eskuratutako informazioa. Eta alderantziz ere bai: atlaseko forma lematizatu horietako asko sarrera dira hiztegian, eta balio erantsia emango lieke hiztegiaren definizioak eta adibideak bertan bistaratuko balira, forma bakoitzaren osagarri eta erabiltzaileen lagungarri.

Aipatu berri ditudan hauek guztiak bilduta, Euskaltzaindiaren Iker Saileko Hiztegitzinta eta Dialektologia atalak saretuak izango genituzke⁵⁵. Gehienak eskuratu ditugu, sarean kontsultagai, baina hiztegitik abiatuta ikusteko aukerak aberastu egingo luke guztia, eta sendotasuna emango lioke egiten dugunari. Euskalkiak, jakite-arloak, kategoriak, taxonak eta bidalketak osatzen eta fintzen lagunduko lukete hauek guztiek. Eta, diodan bidenabar, kontrako bidea ere aberasgarri izango litzatekeelakoan nago. Horrek eduki guztiak lotzea eskatuko luke. Lana da, baina ez ezinezkoa, eta emaitza oso aberasgarria izango litzateke, koordinazioaren kontrola indartuko lukeena, gainera.

Euskaltzaindiaren Hiztegiak gramatikari buruzko informazioa ere eskaintzen du. Ez dira gutxi gramatika-oharrak dituzten formak, eta horietatik arau solteetan ar-

53 https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&Itemid=466&lang=eu&layout=sarrera&view=frontpage

54 *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko sarreraren aldaerak *Hiztegi Batu Oinarri*dunean ikus daitezke, corpusean erabili diren neurrian.

55 Bada dialektologiaren esparruan aipatu ez dudana beste lantalde bat: *Euskalkien lantaldea*. Jagon Sailaren barruan dihardu, ez Iker Sailean, eta ez du, oraingoz behintzat, Iker Sailarekin —zehatzago, hiztegiarekin— loturarik, bere egitekoetan “2006. urtetik, euskalkiek euskara batuari egin diezaioketen ekarria aztertzen ari da lantaldea, «Euskalkietatik euskara batura: nola osatu Hiztegi Batua» lan egitasmoarekin” aipatzen badute ere. <https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/organigrama-osoan/jagon-saila/325-jagon-lantaldeak/810-euskalkiak>

gitaratuetara edo EGLU⁵⁶ liburukietako azalpenetara joateak testuinguru zabala-goan kokatuko luke hiztegiko oharra zein azalpena. Are gehiago, oraindik araurik edo proposamenik ez dagoen kasuetan, iaztik eskura dugun *Euskara Batuaren Eskuliburuak*⁵⁷ ematen dituen argibide garden bezain praktikoeekin lotu beharko litzateke hiztegiko azalpena.

Adibidetegia zabala da oso, eta hor islatzen dira Euskaltzaindiaren arauak⁵⁸, gomendioak eta irizpideak, zein bere aldetik ditugunak, bide batez esanda. Izen propioz josia dago hiztegia. Onomastika (toponimia eta antroponimia) eta exonomastika inon aplikatzen badira, adibidetegian da. Izen horiek EODArekin⁵⁹ eta, nola ez, ECOrekin⁶⁰ lotzea zinez aberasgarria litzateke, gure adibidetegiak arau horiek etengabe aplikatzen baititu. Onomastikak hiztegiari herritarren izenak ekarri dizkion moduan, Exonomastikak ere lexiko orokorreko hainbat forma eman dizkio (kanpoko herritarrez gain, hizkuntza- eta etnia-izenak, esaterako). Baina hiztegitik onomastikarako eta exonomastikarako bideak ere lagunduko luke, hiztegian adieraz zein adibidez osatu diren lexiko arrunteko sarrera horiek osorik bistaratzeko aukera emanda.

Ahoskera ere aipatuko nuke gustura. Arau orokor bakarra dugu oraingoz, “Euskara Batuaren ahoskera zaindua” (87. araua)⁶¹, eta egingo du bere bidea. Baina hiztegitik sarrerak entzuteko aukera behintzat aztertu beharko genukeelakoan nago.

Bistakoa da, saregilez josia dago Euskaltzaindia: zein bere aldetik bere sarea ehuntzen, hau da, arautzen. Armiarma-sare handi bat osa dezakegu Iker Sailekoen artean. Eta, horrekin batera, ez ditzagun Jagon Saileko lagunak ahaztu, sare-konpontzaileak, sareak oraindik erabat bukatu gabe ditugu eta. Eta ez ditugu makalak geurean: *Jagonet*⁶² eta *Euskara Batuaren Eskuliburuak* (EBE). Azken honen

56 *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*. Liburuki horiek eta gehiago hemen kontsultagai: <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/gramatika/eglu-dokumentuak>

57 https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&task=sarrera&Itemid=1161

58 <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/baliabide-orokorrak/arauak>

59 EODA: Euskal Onomastikaren Datutegia. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ecoeoda&task=bilaketaPortada&Itemid=472&lang=eu

60 ECO: Euskal Corpus Onomastikoa.

61 https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_euskaltzaindiarenarauak&view=frontpage&Itemid=424&lang=eu&arauId=87

62 https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_jagonet&lang=eu&view=faq&Itemid=423

arrakasta ikusita, agerian geratu da gure sareek oraindik ere zuloak dituztela. EBEn modu argian, didaktikoan jasotzen diren azalpen horiek ere argituko lukete hiztegian erakusten duguna, eta erreferentzia bibliografikoek hiztegiari berari sendotasun are handiagoa emango liokete. EBek berak, bere aldetik, egiten ditu hiztegiaridalketak, gainera. Eta bidean da sare-konpontzaile berria, *Euskara Eskuz Esku* (EEE), begirada Iparraldean ezarria duena.

Azkenik, eta ez garrantzirik ez duelako, *Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak* (IKT) egiturazko batzordea oso kontuan izatekoa da, saregileek eta sare-konpontzaileek lanabes egokiak behar dituzte eta. Zerbitzu honek saretu beharko ditu edukiak egungo teknologiak baliatuz, estandarrak bere eginda.

KOFRADIA bat da amesten dudana, saregileak eta sare-konpontzaileak batuko dituen, teknologiak lagunduta betiere. Eta izan, badugu, Euskaltzaindia, baina guztiak modu finean saretzea besterik ez da falta, hau da, koordinatzea. Halako ehuntze-lan batek berez ekarriko luke koordinazioa, eta ezinbesteko kontraesanak saihesteko tresna egokia izango litzateke, gainera. Ez dezagun ahaztu gure Akademiaren helburua zerbitzua eskaintzea dela, baina XXI. mendean gaude, eta berehalako zerbitzua ere beharrezkoa da, benetako beharrei erantzun nahi badiegu behintzat. Sare-konpontzaileek prestatu beharko dute berehalako eta behin-behineko erantzuna, ondoren saregileek behin betiko lana buru dezaten, luzamendutan ibili gabe. Honela, zintzo eta azkar erantzun ahal izango diogu txantxetan esan izan den “Zalantza non, Euskaltzaindia han” horri. Eta hala egin behar du gizartearen parte izaten jarraitu nahi badu. Baditu horretarako baliabideak, badu ezagutza, eta badu itzala euskal gizartean. Konfiantza horri erantzutea dagokio Akademiari.

3.4. Bukatzeko

Garaiak aldatu egin dira. 2016an paperetik sarerako jauzia egin genuen hiztegian, eta berehala banakako produktutik sareko lan bateratuagoetara —corpusetara eta HBOra garamatzaten esteken bidez—. Baina gehiago egin dezakegula uste dut. Teknologia berriak eskura ditugu, horiek geure zerbitzura daude eta baliatu egin behar ditugu. Hizkuntza-teknologiaren aroan erabat murgildu beharra dauka Akademiak aurrera egingo badu. Webgune berriak aldaketa kualitatiboa ekarri

dio Euskaltzaindiari: erabilerraza da, intuitiboa, landua eta egituratua dago, baina hizkuntza-teknologiei zuku handiegirik atera gabe, oraingoz. Eta dituen baliabide guztiekin, zer ez luke egingo!

Gizartea aldatu egin da, hiztegiak egiteko modua aldatu egin da. Egin dezagun urrats bat aurrera eta presta dezagun egungo eta biharko beharrei erantzungo dien eduki integrala: baliabide teknologiko berrietan oinarritutako edukiak, askotarikoak.

Hiztegi ortografikotik abiatu ginen, adieraz eta adibidez hornitu genuen, XXI. mendera ekarri dugu. Zergatik ez guztia integratu?

Duela gutxi lantaldeko kideok *Orotariko Euskal Hiztegiari* ikasi dioguna ekarriko dut hona bukatzeko, Toribio Etxebarriari hartuta, beretzat —neure antzera, barrualdekoa izanda— ‘kofradia’ hitzak kostaldekoaz beste adiera bat ere badu eta: *Kofradixakua danak, kandelía jasoko dau*.

Eskerrik asko.

BIBLIOGRAFIA

- Aduriz, J. A., 1994, «Hiztegi batua lantzeko irizpideak: aurkezpen-hitzak», *Euskera*, 39 (3), 1087-1110.
- Ahumada Lara, I., 2016, «Metalexicografía del español: clasificación orgánica y tipología de los diccionarios en el Diccionario Bibliográfico de la Metalexicografía del Español (DBME)», *Anuario de Estudios Filológicos*, XXXIX, 5-24.
- Altube, S., 1919-1920, «Erderatiko-itzak, itz-barriak eta aintxiña-itzak / (Garrill. 23ko batzarran Altube yaunak egindako ikerpena)», *Euskera*, 1. urtea(2), 44-54.
- Anglada Arboix, E., 1991, «Lexicografía, metalexicografía, diccionario, discurso», *Sintagma*, 3, 5-11.
- Atkins, S. & Rundell, M., 2008, *The Oxford Guide to Practical Lexicography*. Oxford University Press.
- Azkarate, M., 1991, «Euskara batuko lexikoaren plangintzaz zenbait gogoeta»,

Euskera, 36 (3), 1115-1117.

Azkue, R. M. (1919-1920). «Euskaltzaiñen iker-azterpenak. X. Erderatiko itzak, itz sorberriak eta beinolako itzak (batzar bertan Azkue yaunak egindako ikerpena)», *Euskera*, 1. urtea (2), 54-62.

Béjoint, H., 2000, *Modern Lexicography: An Introduction*. Oxford University Press.

Béjoint, H., 2007, «Informatique et lexicographie de corpus: les nouveaux dictionnaires», *Revue française de linguistique appliquée*, XII(1), 7-23. <https://www.cairn.info/revue-francaise-de-linguistique-appliquee-2007-1-page-7.htm>

Casares, J., 1921, Nuevo concepto del Diccionario de la Lengua. [RAEko sarrera-hitzaldia]. http://www.rae.es/sites/default/files/Discurso_de_ingreso_Julio_Casares.pdf

_____, 1950, *Introducción a la lexicografía moderna*. Madrid: CSIC. [1992, 3. argitalpena].

Dubois, J. C., 1971, *Introduction à la lexicographie: le dictionnaire*. Paris: Larousse.

Euskaltzaindia, 1919-1920, «Euskaltzaindia'ren Batzorde ta Ardurak» *Euskera*, 1. urtea (1), 18.

_____, 1959, «Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz», *Euskera*, 4, 214-217.

_____, 1968, «Batasunerako Hiztegia», *Euskera*, 13, 251-265.

_____, 1975, «Zortzi urte arteko ikastola hiztegia», *Euskera*, 20, 7-153.

_____, 1979, «H letraren ortografi arauak», *Euskera*, 24 (2), 659-695.

_____, 1991, «Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz» *Euskera*, 36 (2), 445-447.

_____, 2000, «Hiztegi Batua», *Euskera*, 45 (2), 480-757.

_____, 2016, *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* (2 liburuki). Bilbo: Euskaltzaindia. Kontsultak sareko hiztegi etengabe eguneratua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiانبilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu

- Hiztegi Batuko batzordea, 1994, «Hiztegi batua lantzeko irizpideak», *Euskera*, 39 (3), 1093-1110.
- Institut d'Estudis Catalans. «Introducció», in *Diccionari de la llengua catalana* (DIEC2) (Segona edició). https://dlc.iec.cat/introduccio2_1.html.
- Kornai, A., 2013, «Digital Language Death», *PLoS ONE*, 8(10), e77056. <https://doi.org/10.1371/journal.pone.0077056>
- Mitxelena, K., 1968, «Ortografia», *Euskera*, 13, 203-219.
- Pruvost, J., 2005, «Quelques concepts lexicographiques opératoires à promouvoir au seuil du XXIème siècle», *ÉLA. Études de linguistique appliquée*, (137), 7-37. <https://www.cairn.info/revue-ela-2005-1-page-7.htm>
- Quemada, B., 1987, «Notes sur lexicographie et dictionnaire», *Cahiers de lexicologie*, (51), 235-245.
- Quemada, B., 1990, «La nouvelle lexicographie», in M. T. Cabré et al. (eds.), *La lingüística aplicada* (55-78). Barcelona: Universitat de Barcelona-Fundació Caixa de Pensions.
- Rafel i Fontanals, J., 2011, «Lexicografia e informática. Aplicación a la lengua catalana», in A. Sagarna, J. Lakarra eta P. Salaberri (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina* (Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra, Iruñea 2008). IKER 26 (557-565). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Real Academia Española, 2014, «Preámbulo», in *Diccionario de la Lengua Española* (23ª edición). <https://www.rae.es/sites/default/files/Preambulo.pdf>
- Sarasola, I. eta beste, 1991, «Hiztegi batua: lanketa- eta onespenezko prozedurak», *Euskera*, 36 (3), 1135-1145.
- Stamper, K., 2018, *Palabra por palabra. La vida secreta de los diccionarios*. [Itzulpena]. Madrid: Capitán Swing.
- Urkia, M., 2007, «XX. mendeko euskararen corpus estatistikotik XXI. mendeko erreferentzia-corpusera», in I. Ugarteburu eta P. Salaburu (arg.), *Espesialitateko Hizkerak eta Terminologia Jardunaldiak* (II). *Euskara estandarra eta espezialitate-hizkerak*, 35-52. Leioa: UPV/EHU.

- _____, 2008, «Euskararen erreferentzia-corpusaren beharraz», in J. Gorrotxategi (arg.), *Euskalgintza XXI. mendeari buruz* (Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra Azkue eta Urkixoren omenez, Bilbo 2001). IKER 19 (305-310). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Villasante, L., 1956, «Gure eginbearrak» *Euskera*, (1), 257-274.
- Zalbide, M., 1991, «Euskaltzaindia euskal hitz-altxorraren berrikuntza-lanean: eginkizuna eta jardupidea», *Euskera*, 36 (3), 1097-1113.
- Zgusta, L., 1971, *Manual of Lexicography*. The Hague: Mouton.

Miriam Urkia euskaltzainaren sarrera-hitzaldiari erantzuna

SAGARNA, Andoni

Euskaltzain osoa

Badator aire freskoa

Aurten Euskaltzaindiak ehun urte bete ditu. Urte horietan gauzak asko aldatu dira munduan, Euskal Herrian eta baita Euskaltzaindian ere. Asko ez ezik, lastertasun handiz ere aldatu dira gauza asko gizartean: zientzia eta teknologia, hiritartzea, komunikabideak, globalizazioa, migrazioak, etab. Bada, ordea, gauza bat beste gauza askok baino oztopo handiagoak aurkitzen dituen aldatzeko: emakumeek nekez lortzen dituzte erakundeetan eta enpresetan izan behar luketen lekua eta eragina. Balio handikoak izanik ere “beirazko sabaia” deritzonarekin egiten dute topo. Esan izan da emakumeek gizonezkoek halako bi merezimendu izan behar dituztela erdia lortzeko.

Euskaltzaindian ere 73 urte behar izan ziren emakume bat, Miren Azkarate, euskaltzain oso izatera iristeko. Hurrengoak, Ana Toledo Akademiaren sorreratik 87 urtera, eta Aurelia Arkotxa, Sagrario Aleman eta Lourdes Oñederra 88 urtera heldu ziren. Ostera, gaur arte 83 gizonezko iritsi gara euskaltzain oso izatera. Hiru emakume bakarrik izan dira Zuzendaritzako kide: Miren Azkarate Jagon sailburu eta Aurelia Arkotxa buruorde izanak dira eta Sagrario Aleman diruzaina da gaur egun. Aldea nabarmena da.

Gaur emakume batek bere sarrera hitzaldia egin duela-eta egokia iruditu zait Euskaltzaindiarekin era bateko edo besteko harremanak izan dituen merezimendu handiko zenbait emakumeren aipamena hona ekartzea, garai batean eta orain Euskaltzaindiari ekarpenak egin dizkioten emakumeen gorazarrez.

Haien merezimenduak, gizarteak aurrerabidean jarri izan dizkien oztopoak eta lantzen utzi izan dizkien esparruak azalduko ditut hemen. Denboran zehar gauzak nola aldatu diren eta etorkizunari begira zer espero eta lortu beharko genukeen ere

bai. Eta Miriam bilakabide horretan kokatzen saiatuko naiz.

Euskaltzaindiak, euskara gizartean hauspotzeko asmoz, hainbat ekitaldi biltzen zituzten *Euskalegunak* antolatu zituen jaio eta laster. Lehenbizikoa Durangon izan zen, 1921ean, eta bigarrena Donezteben 1923an. Zoritxarrez, 1923an Primo de Riveraren diktadurak irakaskuntzan gaztelania soilik erabili beharra ezarri zuen. Ez ziren garai errazak. Doneztebeko Euskalegunetan hainbat ospakizun eta hitzaldi izan ziren. Hitzaldi horietako batzuetan garai hartako giroan euskararen atzerakadak eragiten zuen kezka agertu zen. Horietako bat emakume iruindar gazte batek egin zuen, Julia Fernández-Zabaletak. Juliak bere hitzaldian euskaldun askoren euskarareriko utzikeria salatu zuen. Hitzaldiaren hasiera-hasieran aitortu zuen urte hartan bertan hasi zela euskara ikasten.

Ez zen edonor Julia Fernández-Zabaleta. 1923an hitzaldia egin zuenean gaztea zen, 25 urte zituen. Zazpi urte lehenago Iruñeko Irakasle Eskolan karrera-amaierako sari berezia irabazi ondoren, Iruñeko Udalaren beka batez, Bartzelonara joan zen Maria Montessorirekin ikastera. Maria Montessori mediku eta pedagogoa hezkuntzaren filosofiaren historian punta-puntakoa izan da, eta gaur egun ere haren metodoa erabiltzen duten ikastetxeak asko dira, mundu osoan zehar. Italian lan bikainak egin ostean, Montessori 1909tik aurrera nazioarteko ospea irabazten hasi zen, eta bere metodologia jarraitzen zuten eskolak hainbat herrialdetan barreiatu ziren. 1915ean Bartzelonan finkatu zen. Urte horretan, Kataluniako Komunitateak lagunduta, programa txiki bat abian jarri zuen *Escola Montessorin*, hiru urtetik hamar urte bitarteko haurrentzat, eta *Laboratori i Seminari de Pedagogia*, sortu zuen ikerketa eta trebakuntzarako. 1916an nazioarteko ikastaro bat eman zuen, aurreko bost urtean garatu zituen sei urtetik hamabi urte bitarteko, lehen hezkuntzako, haurrei gramatika, aritmetika eta geometria irakasteko material eta metodoez. Hantxe izan zen Julia, pedagogiaren aurrerapen modernoena ezagutzen. Iruñera itzuli zenean txosten bat egin zuen Iruñeko Udalarentzat, ikasi zuen metodoaz. Txosten horretan, Montessoriren metodoaren hainbat alderdi on aipatu zituen baina, hain gaztea izateko heldutasun handia erakutsiz, alderdi ez hain onak ere kritikatu zituen, bereziki hizkuntzaren tratamendua. Oposizioz Iruñeko Udalaren eskoletan lanpostua lortu zuen eta ikasitakoa bultzatzen gogotsu ahalegindu zen.

Aipatuko ditugun emakumeen ezaugarri nagusiak Juliarenen antzekoak direla ikusiko dugu: euskara bizirauteko kezka, hezkuntzan euskarari lekua egiteko ahalegina eta pedagogiaren garaiko joera aurreratuenen iturriekiko lotura.

Horietako bat Julene Azpeitia izan zen. Hau ere irakaslea, 1888an Zumaian jaioa. Donostian eta Bilbon ikasketak 1906an burutuz titulua lortu ondoren, 1911n, 23 urterekin, Valladoliden oposizioetan lehenengo geratu zen eta Ean irakasle-lanpostua lortu zuen. 1916an, Mexikon bizi zen Enrike Eskauriatza euskaldunarekin ezkondu eta hara joan zen bizitzera. Herriminak bultzatuta, euskaraz idazten hasi zen, eta, erbesteko euskaldunen dirulaguntzaz, bere lanak argitaratzen. 1918an, Endika semea izan zuen. Mexikon Euskal Herritik urrunegi eta itun sentitzen zenez, 1920an, semea Euskal Herrirainoko bidaia luzea egiteko adina koskortu zenean, hona itzuli zen. Urte berean, Ramon de la Sota abertzalea presidente zela, Bizkaiko Diputazioak auzo-eskoletarako irakasleak aukeratzeko oposizioetarako deialdia egin zuen. Julenek, oposizio horietan, ikastetxe horietako andereñoen zuzendaripostua lortu zuen. Pozak ez zion ordea asko iraun. 1921ean monarkikoak nagusitu ziren Bizkaiko Diputazioan eta Julene abertzaleak, haiek hezkuntza aldetik zituen planteamenduen aurka zeudenez, zuzendaritza postutik dimititu egin behar izan zuen eta irakasle lanetan ibili zen.

Pedagogia berritzailean Julene ere aitzindaria izan zen. Frantsesa menderatzen zuenez, aukera izan zuen Montessoriren garaikidea zen Ovide Delcroly pedagogo belgikarraren metodoa ezagutzeko. Delcroly, Montessori bezalaxe, medikua zen eta baita neuropsikiatra eta psikologoa ere. Eragin handiko pedagogo izan zelako ezagutzen da batik bat.

Julenek besteren ideiak aplikatzeaz gain bere gogoetak saiakera batzuetan idatzita utzi zituen. Horietako batzuk sarituak izan ziren, hala nola honako titulu hauek zituztenak: *Instituciones peri y post escolares que pueden crearse en las escuelas de barriada en Vizcaya* eta *Lección práctica a los niños sobre las virtudes y excelencias del ahorro* gaztelaniaz eta *Osasuna, merketza ta yanaritzaz* izenburua zuen liburua, Euskaltzaindiak antolaturiko sariketan lehen saria irazabazi zuena. Ikusten da Julenek haurra bezainbat haurraren ingurunea, hau da, familia eta gizartea zituela gogoan, hau da, pedagogiaren ikuspegi holistikoa zuela.

Euskaltzaindiak 1961ean antolatu zuen Euskaltzaleen Biltzarrean Julene Azpeitiak hitzaldi bat egin zuen *Ume euskaldunai euskeraz idazten eta irakurtzen zelan irakatsi* izenburua izan zuena. Hor Delcrolyren lanen berri eman zuen, eta, batez ere, hark asmatu zuen metodo ideobisuala azaldu zuen zehatz-mehatz.

Euzkadi egunkari abertzalean, 1931tik 1937ra bitartean, 148 artikulua idatzi zituen euskaraz, *Arritokieta* izengoitiaz sinatuak. Horietatik 87 *Euzkotar umien alde*

izenburuaren pean. Asmo pedagogikoko liburuen artean, 1925ean Bizkaiko Diputazioak pedagogia gaiez eratu zuen lehiaketan irabazle izan zen *Irakurri matte* liburua argitaratu zuen 1932an. Haur-literaturaren arloan egindako lanek zenbait sari jaso zituzten: 1954an Euskaltzaindiak antolaturiko sariketan bigarren saria jaso zuen, 1959an Biarritzeko Eusko Kulturaren Alde elkarteak antolatutako haurrentzako ipuin sariketan bigarren gelditu zen, *Goizeko izarra* ipuinarekin. 1961ean *Amandriaren altzoan* ipuin bilduma argitaratu zuen.

Emakumeek gure artean euren etorkizuna aukeratzeko izan dituzten oztupoak ikusarazteko, ezin adierazgarriagoa iruditzen zait Julita Berrojalbizen kasua.

Julita Berrojalbiz 1923an jaio zen. Batxilergoa egin ondoren, medikuntza ikas-terko asmoa zuen baina ezin izan zuen bere gogoa bete, inguruneak desegokitzat hartzen zuelako lanbide hori emakumeentzat. Asmo hori alde batera utzita, kimika ikasi nahi izan zuenean, arrazoi berberagatik, karrera hori egiten hasi zen arren, presioa jasan ezinda, bertan behera utzi behar izan zuen. Azkenean, garai hartan eta geroxeago ere, gizarteak emakumeei gehienez ere opa zien irakasletza ikasketak egin zituen, eta 26 urte zituenean irakasle titulua atera zuen.

Bizkaiko ikastolen sortzaileetakoa izan zen eta 1957an ikastola batean hasi zen lanean eta gero bigarren batean. Garai txarrak etorri ziren, ordea, hasierako ikastola haientzat eta klandestinitatean, etxe partikularretan, jarraitu zuten lanean. Antolaketa horretan Julitak lan handia egin zuen.

Ikastola haiek, ordea, ez zuten etsi, eta, Julitaren ekimenez, hain zuzen, Madrilerajo zuten 1968an, eta baita lehenbiziko ikastola legeztatua abian jartzea lortu ere. Arrakasta handia lortu zuten. Ikasleak ziztu bizian ugaritu ziren, eta horrek asmo handiago bati heltzea ekarri zuen: Lauro Ikastola sortzea 1972an. Julita zuzendari pedagogiko izendatu zuten. Julitaren asmoa muga hori baino askoz gorago zegoen, eta Bizkaiko beste hainbat ikastolaren sorkuntza bultzatu zuen. Euskaltzaindiak 1967an euskaltzain urgazle izendatu zuen eta 1998an ohorezko euskaltzain. Antzeko ezaugarriak zituzten eta euskaltzain ohorezko izatera iritsi ziren Robustiana edo Robustene Mujika “Tene”, Madeleine Jauregiberri, Marie Jeanne Minaberri eta Karmele Esnal ere.

Urteak joan ahala, emakume batzuek lortu zuten, ahalegin handiak eginez, loturak apurtu eta gogoko zuten etorkizuna amestu eta hara zeramaten bideak urratzea.

Karmele Rotaetxe 1933an jaio zen. Gerratik ihesi familia Frantzian babestu zen. Han egin zituen unibertsitate aurreko ikasketak. Erbestealdia bukatuta Euskal

Herrira itzuli zenean, enpresetan langile izan zen. Urterik txarrenetan ahalegin handiak eginez euskaldundu zen. 29 urterekin Frantses filologia ikasten eta frantse-sa irakasten hasi zen. 1967an lizentziadun gradua lortu zuen. Tesina Simone de Beauvoir filosofo, idazle eta feminismoaren teorialari handiaren literaturaz egin zuen. Ez nolanahi, gainera, Simone de Beauvoir-ekin zuzeneko harremana izan baitzuen bere lana ontzeko. Deustuko Unibertsitatean euskara irakasten jardun zuen. 1977an Ondarroako euskararen egitura aztergai zuen tesia irakurri zuen. 1979tik aurrera EHUko Filologia Fakultatean linguistika orokorra irakatsi zuen. 1987an arlo horretako katedradun izatea lortu zuen. Gero soziolinguistika ere irakatsi zuen. 2001. urtetik aurrera irakasle emeritu gisa jardun zuen. Ikertzaile peto-petoa izan zen Karmele. 1979an euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak eta gero ohorezko euskaltzain. Euskaltzaindian hainbat batzordetan lan egin zuen, batez ere Gramatika batzordean.

Honaino dagoeneko gurekin ez dauden merezimendu handiko emakume batzuk, era bateko edo besteko harremana Euskaltzaindiarekin izan zutenak eta batzuk ohorezko euskaltzain izatera iritsi zirenak. Ohartuko zineten azkena aipatu dudana Karmele Rotaetxeren eta besteen artean alde nabarmena dagoela. Denboraren harrian gure gizartean izan diren aldaketen isla garbia da hori. Karmele unibertsitateari eta ikerketari hertsiki loturiko emakumea genuen, hizkuntzalaria, ikertzailea, Euskaltzaindiaren barruan aktibitate handikoa. Aurrekoen profila oso bestelakoa zen. Haien unibertsitatean goi-mailako ikasketetara iristea ezinezkoa zen; gizarteak gainditu ezinezko hesia jartzen zien. Haurren irakaskuntzara loturik ikusten ditugu. Garbi daude zergatiak: bata, horixe zela emakumeei baimentzen zitzaie lanbide gutxietakoa, erizaintzarekin batera; bestea, berriz, euskararen transmisioa kinka larrian ikusten zutela, eta, euskarari zioten maitasunak bultzaturik, buru-belarri haurren euskarazko hezkuntzari heldu ziotela, kantuak sortuz, ipuinak eta artikulatuak idatziz, atzerrian eredu aurreratuenak bilatuz eta Euskal Herrira egokituz.

Gaur, hemen, sarrera-hitzaldia egin digun Miriam Urkia eredu berrikoa dugu zalantzarik gabe. Gipuzkoako bizkaieraren esparruan dagoen Aretxabaletan jaio zen, eta hantxe egin zituen unibertsitate aurreko ikasketak. Kazetari izatea amesten zuen, eta idazle gisa bere ahalegintxoak egin zituen, baina bi euskara-irakasle izan zituen euskararekin maitemindu zutenak. Horrela, kazetaritzako ikasketei ekin beharrean, Donostiako EUTGko Filologia Fakultatean matrikulatu zen. Han, batez ere literaturarekin egingo zuela topo uste zuen, baina desilusio apur bat hartu zuen arlo elkorragoak landu behar zirela ikustean. Fakultatean hasi orduko, astebete

ingurura, bere bizitzan jarraituko zuen bidean eragin handia izango zuen zerbait gertatu zitzaion. 1983. urtea zen. UZEI, terminologia teknikoak lantzen aurreko urteetan ibili ondoren, Eusko Jaurlaritzak eskaturik, euskarazko ikasliburuetakoa eta prentsako hiztegia jasotzen ari zen. Garai hartan zeuden baliabideekin, lana eskuz egin beharra zegoen, eta horretarako hitzak eta haien adierak identifikatuko zituzten pertsonak hartu ziren. Zehazki filologia- eta irakasletza-ikasleak. Miriam horietako bat izan zen. Testuak irakurtzea eta hitzen kartoi mehezko fitxak betetzea zen eginkizuna. Esan genezake lexikografian izan litekeen lanik apalena zela hura. Benetan literatura baino hagitzez eskergabeagoa noski. Baikorrago izatea zilegi baldin banu, esango nuke gaur goraipatzen den prestakuntza duala jarraitzen zutela.

Garai hartan zalantza asko genituen, artean euskara batuan gauza asko finkatu gabe baitzeuden. Zalantza horiek pilatzen eta tipifikatzen joan ginen, “duden” fitxategia deitzen genion bilduman, zalantzak, dudak, zirelako biltzen genituenak, eta hitz-jolasa egiten genuen *Duden* alemanezko hiztegi erraldoiaren izena iradokiz. Egia esan, lexikografiak gainerantzean ez du hitzekin jolas egiteko aukera handirik ematen.

Gure lanetan informatika erabiltzea hasikinetan zegoen orduan. Banketxeetan eta enpresetan erabiltzen ziren datu-baseak ez ziren batere egokiak guretzat. Claudio Harluxet informatikari jakintsuari esker lortu genuen garatzea, hala ere, datu baseak kudeatzeko sistema propio bat, oso eraginkorra baina korapilatsu samarra erabiltzeko. Sagu informatikoak oraindik jaio gabe zeuden. Miriami duden fitxategia datu-baseratzea egokitu zitzaion, hain zuzen. Hala ere, bataio informatiko haren ur hotzak ez zuen kikildu.

Hurrengo urratsean, EEBSn, gaur egun “XX. mendeko corpora” deitzen dugun horretan, eta Euskaltzaindiaren LEF batzordearentzat lexikologia-txostenak egiteko, “adibidetegia” deitzen genion corpus txiki bat antolatzen lan egin zuen, UZEIn baina Euskaltzaindiarentzat. Hura ere ez zen literaturaren atseginekin gozatzea. XX. mendean euskaraz argitara emandako guztiaren inbentarioa egin eta testu-masa neurtzeko, liburutegietako zoko-moko guztiak arakatzea, gero garai hartan has-tapenetan zeuden karaktere grafikoak ezagutzeko OCR sistema traketsak erabiliz testuak euskarri digitalean jartzea eta akatsak zuzentzea, hitzak lematizatzea, ez ziren lexikografiarekin maitemintzen laguntzen zuten jarduerak. Corpus digitalak lexikografian erabiltzeko oztopoak gainditzea abenturako kiroltzat hartzeko gai zen norbaitek soilik euts diezaiokeen goiari.

Nola mendizale batzuk ez baitira konformatzen Murugainen tamainako mendietara igotzen eta zortzimilakoen paretetan gora ausartzen baitira, hala Miriam ere hizkuntzalaritza konputazionalaren malkarretan barrena abiatu zen. Euskarazko testu-hitzak eskuz lematizatzeak dituen nekeez ederki jabeturik baitzegoen, *Euskal morfologiaren tratamendu informatikorantz* izenburua duen doktorego-tesia irakurri zuen 1997an, gero garatuko ziren *Xuxen* zuzentzaile ortografikoaren eta gainerako aplikazioen lehen harria izan zena eta “XX. mendeko corpora” automatikoki lematizatzea ahalbidetu zuena.

Hizkuntzalaritzaren eta informatikaren gero eta harreman estuagoak hizkuntzolari konputazional izatera bultzatu zuen eta corpus hizkuntzalaritza eta lexikografia informatizatueta buru-belarri sartzera. Adierak, kategoria gramatikalak, sarrerak eta azpisarrerak, erabilera eta espezialitate markak, etab. bereizi beharra gutxi ez, eta XML, TEI, parserrak, DTDak eta horrelakoak ere menderatzen ditu gaur egun. *Lexikoaren Behatokiaren* eta *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* makina-gelan murgildurik bizi da.

Hori da gaur egungo emakumeen profila. Ez bazaie berunik jartzen hegoetan airoso egiten dute hegan.

2005ean Euskaltzaindiak Argomaizen bilduta egin zituen XIV. Barne Jardunaldien sarrera-hitzaldian Andres Urrutia euskaltzainburuak Akademiak aurreko urteetan erakutsi zituen ahuleziak gainditzeko zenbait oinarri proposatu zituen. Honela zioen:

Irtenbideak, hala ere, hiruzpalau irizpide nagusi bildu beharko lituzke: lehen, premiako dugula euskaltzain oso berrien sarrera, adinez aurreraturik eta zereginenez itota gaudenon laguntzaile eta aringarri; bigarrena, euskaltzain oso horiek, andrazko izan zein gizonezko izan, merituen arabera aukeratu behar ditugula; hirugarrena, gure artean diren andrazkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun-politikak aintzat hartu beharko ditugula; eta, laugarrena, euskaltzain oso berri horien nondik norakoak, lanaren eta ahaleginen bidetik asmatu behar ditugula.

Hona nola bete ziren irizpide horiek ondoko urteetan:

Urte-tartea	Izendatu ziren euskaltzain osoak	
	Gizonak	Emakumeak
2005 - 2009	6	4
2010 - 2014	3	0
2015 - 2019	1	1

Azken 15 urtean 14 euskaltzain oso berri izendatu dira. Kontuan izanda gaur egun euskaltzain osoak guztira 29 garela, esan daiteke berrien sarrera garrantzizkoa izan dela. Andrazkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun politikak garai batean baino gehiago hartu dira aintzat. Egia esan, ez zen oso zaila ere, 1919tik 2004ra arte emakume bakarra izendatu baitzen. Izendatutako pertsonen merezimenduak kontuan izan direla ere baieztatu daitekeela uste dut, beren biografiei eta Euskaltzaindiaren jardueretan izendatuak izan aurretik izan duten partaidetzari begira.

Aurrera begira, bidezkoa litzateke emakumeen kopurua gizonezkoenarekin berdintzen joatea. Ez bakarrik, gainera, justiziazkoa delako, baita beharrezkoa eta naturala delako ere emakumeentzat eta gizonezkoentzat. Horretarako gauza bakarra egin behar dugu: oztopoak kentzea, batez ere gure burmuinetan sakon txertatuak ditugunak, eta ateak zabaltzea. Ikusi besterik ez dago gizartean emakumearen lekuaz ideiak pixka bat aldatu direnean zer gertatzen ari diren. Etorkizuna nondik norakoa izan daitekeen erakusten diguten estatistika batzuk aztertzea nahikoa da hori ikusteko:

Futboleko hizkera erabiliz, esan genezake euskaltzain osoen harrobia euskaltzain urgazleek osatzen dutela, bereziki batzordeetan lanean ari direnek. Gaur egun 145 euskaltzain urgazle daude, batzuk aspaldikoak eta beste batzuk berriak. Horietatik 37 (% 25,5) emakumeak dira. 2005etik hona izendatutako euskaltzain urgazleak 66 dira guztira, horietatik 22 (% 33,3) emakumeak. Parekotasuna zerbait normaldu da baina ez asko. Hala ere, 1960tik hona jaiotako euskaltzain urgazleak 49 dira

guztira, horietatik 24, hau da, erdiak, emakumeak.

Eta merezimenduei begira, zer ikusten dugu? Bi irizpide erabil ditzakegu merezimenduak neurtzeko: ikasketa maila, alde batetik, eta Euskaltzaindiaren batzordeetan duten partaidetza bestetik. Gogoan izan Urrutia euskaltzainburuak 2005ean ipinitako laugarren irizpidea: “euskaltzain oso berri horien nondik norakoak, lanaren eta ahaleginen bidetik asmatu behar ditugula”.

Berriro ere 1960tik hona jaiotako euskaltzain urgazleei begira jarriko naiz. Adin horietako euskaltzain urgazleen artean 26 dira lizentziadunak, horietatik 16 (% 61,5) emakumeak; doktoreak berriz, guztira 18, horietatik 7 (% 39) emakumeak.

1960tik hona jaiotako 24 emakume euskaltzain urgazleetatik 13 dira (% 54) batzordeetan dihardutenak.

Euskaltzainditik kanpora euskal gizarteari begira jartzen bagara, are nabarmenago ikusiko dugu emakume gazteak sekulako indarrez datozela mundu akademikoan. Erraztasunez Eustatek eskaintzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikak erabiliko ditut erraztasunez.

Ondoko taulan 2016an EAEn 30 eta 60 urte arte zituzten biztanleen artean goi-mailako ikasketak zituztenen kopuruak ageri dira:

Adina	Kopurua	Gizonak	Emakumeak	Gizonak %tan	Emakumeak %tan
30 - 34	33.807	13.645	20.162	40,4	59,6
35 - 39	47.938	17.669	25.239	41,8	58,8
40 - 44	46.959	20.446	26.513	43,5	56,5
45 - 49	37.184	16.650	20.534	44,8	55,2
50 - 54	32.511	15.411	17.100	47,4	52,6
55 - 59	23.495	12.882	10.613	44,8	45,2
Guztira	216.894	96.733	120.161	44,6	55,4

2016-2017 ikastaroan EAEn graduko, master ofizialetako eta doktoregoetako

ikasketetan ikastetxe publikoetan matrikulatutako ikasleen estatistikei begiratzen badiegu hauxe ikusten dugu:

Ikasketa mailak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Gizonak %tan	Emakumeak %tan
Gradukoak	41.536	18.804	22.732	45,3	54,7
Master ofizialak	3.556	1.808	1.748	50,8	49,2
Doktoregokoak	3.571	1.709	1.862	47,9	52,1
Guztira	48.663	22.321	26.342	45,9	54,1

Datu guztiek erakusten digute emakumeak goi-mailako ikasketetan nagusi direla.

Andres Urrutiak 2005ean aipatu zuen irizpide hura, alegia, “euskaltzain berriak andrazko izan zein gizonezko izan, merituen arabera aukeratu behar ditugula” kontuan izatea nahikoa izango da emakumeek beren lekua izan dezaten gure akademian. Merezimenduak behintzat ez dira oztopo izango. Badator aire freskoa.

Roberto González de Viñaspre Gonzalo

Euskaltzaindian sartzea

Trebiñun, Done Petri elizan, 2019-V-IV

Trebiñu, euskararen herrian (sarrera-hitzaldia)

GONZALEZ DE VIÑASPRE, Roberto

Euskaltzain osoa

Trebiñu Konderriko alkate andrea, euskaltzainburu jauna, agintari agurgarriok, euskaltzainkideok, etxekook, lagun preziatuok, jaun-andreok: egun on digula guztioi.

Iazko otsailean Iruñean euskaltzain osoen konfiantza jaso eta beren artean euskaltzainkide onetsi nindutenean, horrexekin batera hartu nuen sarrera-hitzaldia idazteko mandaturua. Une hartan urruntxo begitantzen zitzaidan gaurko ekitaldia, baina Lazarraga arabarrak XVI. mendean idatzi zuen moduan, “biarreçiac urrean datoz”. Izan ere, urruti nekusan eguna azkar hurreratu zait, galopan bezala.

Atseginez eta gogo onez natorkizue prestatu dizuedan mintzaldia eskaintzera. Ohore handia da zuen aurrean agertzea, eta, jakina, beste horrenbesteko erantzukizuna ere bai. Gainera, erronka zorrotza jarri diot nire buruari: nahi nuke aletuko ditudan kontuak interesekoak izatea zuentzat guztiontzat eta, ahal dela, inorentzat gogaikarri ez gertatzea. Horra hor asmoaren handinahia!

Gogobetegarri dut sarrera-hitzaldia bihotz-buruak agintzen didan lekuan irakurtzea, non eta bizialdiaren erdia baino gehiago eman dudan lurrean, trebiñarren aurrean, eta euskaraz. Halaber, gogobetekoa zait XIII. mendean eraikitako Done Petri eliza euskararen Akademiaren bilgune izatea gaurko ekitaldian. Mendetako harlandu hauek historiaren adierazgarri dira. Iragana zintzo uztartzen dute orainarekin. Hitzaldian saiaturko naiz erakusten horma hauek, gaur baino lehen ere, trebiñarren euskarazko mintzoaren lekuko izan direla, harik eta Ihuda ibaiak bustitzen duen arroan XVI-XVIII. mendeetan barrena euskal hizkuntza galdu zen arte. Ez dut lurralde honetaz Trebiñu Konderriaren gaurko adiera administrati-boarekin soilik hitz egingo, baizik eta ikuspegi historiko eta kultural zabalagoarekin, Donemiliagako Reja izeneko XI. mendeko dokumentuan aipatzen den *Rivo de Ivita* barruti osoa hartuz. Bestalde, ez dagoke sobera ohartaraztea hitzaldiaren erdigune dudala euskal toponimia eta euskararen hedapen-muga historikoak. Ez diot oraingoan helduko, hortaz, gaztelaniari eta gaztelaniazko toponimiari. Espero

dut hautu horretatik inortxok ez ateratzea egiazkoa ez den ondoriorik. Ez dago horretan errealitate erromanikoaren ezeztapenik batere. Gaztelaniak antzinako presentzia du lurralde honen sartaldean, eta ausaz elebitasun-egoera luzea izan da Trebiñu Konderriko beste zenbait ingurutan. Dena dela, euskara ere trebiñarren kultura ondarea da, berezko errealitate linguistikoa, egiaztatuko dugunez.

Gaiaren funtsari heldu aurretik, berariaz hitz egin nahi dut Patxi Uribarren euskaltzainaz. Iazko otsailetik partekatzen dugu biok Euskaltzaindiaren 18. aulkia. Bai eroso partekatu ere aulki bera, batere estutasunik gabe. Jakizue Akademian hala zenbakitutako aulki fisikorik ez dagoela, eta soilik dela euskaltzain-postua izendatzeko modua. Patxik, emeritu mailara igarotzean, euskaltzain osoarena atxiki du, baina tokia egin dit bere aulkian, adeitsu. Denbora gutxian nekez laburbilduko dut euskararen alde adorez egina duen eta burutzen jarraitzen duen lan oparoa. Bizitzako urte asko eskaini dizkio Patxik arima-arimatik maite duen euskarari. Hogeita lau urteko gaztea zela, frankismoaren urte latzetan, Bilboko Santutxuko gau-eskolen sortzaileetakoa izan zen, gero AEK izango zena, eta hamabost urtez eman zituen eskolak bertan, euskararen hauspoari eraginez.

Karmeldarra dugu euskaltzain arabarra. Teologian eta Filosofia eta Letretan lizentziaduna. Euskararen Akademiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1971n, eta oso 2008an. Urte hartan Euskaltzaindiak hautatu zuen Henrike Knörr-en lekukoari oratu ziezaion. Handik gutxira, sarrera-hitzaldia irakurri zuen Aramaion, bere sorlekuan. Euskaltzale guztiok gure egin dezakegun izenburua eman zion: “Izan zirelako gara, eta garelako izango dira”. Euskaltzaindian era guztietako alorretan jardun du Patxik: irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea, euskalkiak, euskararen sustatzea eta abar. Onomastikari ere ekin dio bere ikerketa ibilbidean. Filologia Erromanikoaren lizentzia eskuratu zuen 1974an Aramaioko toponimiari buruzko lanarekin, Mitxelenaren zuzendaritzapean.

Erretiroa hartuta dago Bizkaiko Foru Aldundian itzultzaile izatetik. Lan jarduera horrek erlazio estua du hiztegi-gintzarekin, *Bostak bat* taldearen sortzaileetakoa izanik, nabarmen landu duen arloarekin. *Adorez* sortan hiztegi baliagarriak gauzatu dituzte. Oraingoz azkena *Hiztegi praktikoa* 3000 izeneko lanabes mardula dugu. Ale bat oparitu berri dit Patxik, eskuz sinatua, eskaintza eder honekin: “zure bizitzako ibilbidean hain garrantzitsua dugun egun honetan bihotzez eskaintzen dizut nire azken lana”. Mila esker, Patxi. Bihotzez estimatzen dizut.

Natorren orain beste gai batera, hitzaldiaren izenburuak agintzen duen mamira-

ino iritsi aurretik. Zerbait kontatu nahi dizuet nire hizkuntza-biografiaz. Uste dut hartarako abagunea dela. Bilbon jaioa nauzue, bertan hazia eta hezia, euskararik ez zegoen familia-giroan. Atzera begira, amaren aitona bat genuen azken euskalduna. Bizente Aristondo elgoibartarra Karrantza haranera joan zen XIX. mende hondarrean, Kadaguako burdinbidegintzan lan egitera. Dinamitarekin aritu zen Villaverde Turtzioz eta Karrantza haranak lotzen dituen La Escrita tunela irekitzen. Bizentek oso hurbil aurkitu zuen bere bidearen geltokia, ondoko El Suceso auzora ezkondu zelako Rogeliarekin. Gure amamak ume denborako gomuta zuen aitaren belaunetan eserita egoten zenekoa, otoitz-liburu batetik irakurriz euskaraz errezoan entzuten zion bitartean. Hala ere, oroitzapen lausotua zen amamarena, bost urteko neskatoa zenean hil baitzitzaion aita, hernia estutze baten ondorioz.

Aitaren familia-adarretik ere ez genuen euskararik jaso. Gure aita gasteiztarra da sortzez, eta aitita-amamak, bata Arabako Errioxako Ekora herrikoa eta bestea Trebiñu Konderriak mugakide duen Lagran herrikoa. Gazte-gazterik atentzioa eman zidan euskal itxurako zenbat leku-izen ziren Lagranen. Deigarria egiten zitzaidan hura, nire ezjakinean uste bainuen sekula ez zela euskararik mintzatu Arabako hegoalde horretan. Toponimiak erakusten duen bestelako errealitateak, ordea, jakin-mina piztu zidan. Zer-nolakoa zen Arabako arbasoek aho-mintzoan zerabilten euskara? Noiztsu galdu zen? Garai hartan sortu zitzaidan euskal hizkuntzarekiko interesa, motibazio horrekin. Hamabost urte edo izango nituen euskara ikasteari nire kabuz lotu nintzaionean. Gure etxean ez zegoen liburu askorik, orduko etxe gehienetan bezalatsu, baina, zeudenen artean, zorionez, Xabier Peñaren *Euskal Irakasbide Laburra* aurkitu nuen. Lan isilean ematen nituen ordu askotxo, bakar-ka, euskara nire ingurutik urrun imajinatzen nuen Basurtu auzoko etxeko gelan. Geroago jakin nuen gure eskailera bereko Meli auzokidea, amaren laguna, euskal poeta baten alarguna zela. Alegia, Gabriel, bere senarra, Gabriel Aresti zela.

Batera eramán dut euskararekiko eta toponimiarekiko jakingura, eta jakin-nahi horrek bereziki Arabakoa lantzerantz bultzatu nau. Bizitzaren bidegurutzetako batean, Trebiñu Konderriko Saseta herrian errotzea erabaki genuen Carmen emazteak eta biok. Hogeita hamar urte baino gehiago eman ditut hemen, eta auzotasun horrek erraztu dit bertoko historia linguistikoa ikertzea, batez ere toponimiaren bitartez.

Eta hitzaldiaren muinera iritsi gara. Denboran atzera egingo dut gaian aurrera egingo badugu. Horretarako, beste bi arbaso aurkeztuko dizkizuet: Maria Landa eta Formerio Mesanza senar-emazteak. Aitaren aldetik, gure amamaren herenaiti-

ta-amamak ziren. Formerio 1749. urtean sortu zen Lagranen, eta berandu ezkondu zen, 47 urterekin. Aldiz, Maria emaztea 22 urteko neska gaztea zen, urrundik etorria. Gernikarra zen Maria, Mendatatik Gernikara aldatu berriak ziren gurasoen alaba. Nago ezkontza-akordio hura kokatu behar dela mandazainek Bizkaiko itsasaldeko arraina Errioxara eta itzulian ardoa eta olioia Bizkaira garraiatzen zuten garaiko testuinguruan. Bermeo, Lekeitio eta Ondarroa itsas portuetako garraiobidea Gernikan batzen zen; ondoren, Durangaldea pasatu, Urkiola igo eta Arabako Ubarrundian barrena igarotzen ziren mandazainak. Gero, Trebiñu Konderria zeharkatu eta, Lagran ondotik, Errioxa aldera iristen ziren. Mendetako merkataritza-bidea izan zen hori.

Maria Landa euskalduna zela dudarik ez dago. Areago, uste izatekoa da euskaraz baino ez lekikeela 1796. urtean Lagranera ezkondu zenean. Halakoxea zen orduan Bizkaiko egoera soziolinguistikoa. Historiaren Akademiaren 1802ko Hiztegian jasotzen denez, “los más, exceptuando la gente culta, no saben otro idioma que el vascuence, salvo en las Encartaciones y villas de Portugalete, Valmaseda y Lanestosa, donde tan solo se usa el castellano”. Garai bertsuan dokumentatuta dago Araban emakumeen euskarazko elebakartasuna. Barrundiako Marieta herrian, 1783. urtean, bertako kontzejuak baiezkota eman zion presbitero erdaldunari elizako kapilautza hartu zezan, baldin eta abade zerbitzari euskalduna hartzen bazuen, bertako eliztar gehienak zaindu ahal izateko, “especialmente las mujeres, que no sauen otro idioma”.

Zer hizkuntza-egoera aurkituko zuen Maria Landak Toloño mendilerroaren ipar magalean? Bazukeen gaztelania ikasi bitartean norekin hitz egin euskaraz? Trebiñu Konderriko ekialderako ditugun datuek iradokitzen dute euskararen transmisioaren etena XVIII. mendeko lehen erdian zehar gertatu zela. Bere senar Formerio euskalduna ez zatekeen arren, bazegokeen artean aurreko belaunaldietako euskaldunik, eta, ausaz, euskaraz egin zezakeen Mariak adin handieneko lagrandarrekin. Gainera, euskara hura ez zitzaiokeen nabarmen arrotza gernikarrari, funtsean mendebaleko hizkera bide zelako. Toponimoek lexikoaren berri ematen dute, oro har, eta, neurri mugatuan bada ere, informazio nahikoa dugu jakiteko, besteren artean, ‘barri’, ‘baltz’, ‘aretx’ edo ‘elexa’ esparrukoa zela inguru horretako euskara.

Lagrango artzain-ordenantzek argi-izpi bat ematen dute euskararen egoeraz. Ordenantza horiek 1726. urtean egindako aldatze-agiri batean iritsi zaizkigu, eta galdua da jatorrizko dokumentua. González Salazarrek eginiko transkripzioak hala dio: “que llamen a las ganaderías cada una por su nombre [...] los vuierços aran

su reclamo en mitad de la calle real de esta villa llamando oquela, oquela, oquela, y el pastor de los machos aga su reclamo mandua, mandua, mandua [...] y el de los zerdos aga su reclamo urdiac, urdiac, urdiac y el corderizo aga su reclamo curdiac, curdiac, curdiac [sic]”. Okerra da azken hori, bistan da, ‘ardiac’ izan behar bailuke. Zein dateke akats horren zioa? Eskribauaren hutsa ote da hitzaren esanahia iluna zitzaiolako? Ordurako lagrandarrek euskara zeharo galdua zuten seinale ote da?

Gertagarriagoa iruditzen zait lehen ustea bigarrena baino. Arauzko testua da, ordenantza izaera duen agiria, eta halakoetan ez ohi da transkribatzen indarrean ez dagoen terminorik, erabiltzen ez denik. Ez bederen zaharkitua dela ohartarazi gabe. Kasurako, hala diote Lagrango XVI. mendeko beste ordenantza batzuek: “hordenamos [...] que ninguno que no tenga diez y ocho años cumplidos no sea recibido por ganadero [concejil] que en vocablo antiguo llaman velach”.

Nire iritzian, ordenantzetanazienda biltzeko ageri diren dei modu horiek euskara ordura arte erabilia izanaren zantzua dirateke. Hala ere, badakigu garai bertsuan, sartalderago, Urizaharrean, etenda zegoela euskararen belaunez belauneko transmisioa. Hiribildu horretan jaio zen Lorenzo Prestamero ilustratu eta humanista, 1733. urtean. Bertakoak zituen bai gurasoak, bai aitita-amamak. Humboldt eruditok Euskal Herrira egindako bidaia-egunkarian jaso zuenez, Prestamerok ez zekien euskaraz. Humboldték Gasteizen ezagutu zuen Prestamero, eta gidari izan zuen Arabako gaietarako.

Aldiz, oso litekeena da Lagranen Formerioren gurasoak euskaldunak izatea. Ama, Baltasara Martínez de Bergara, bertakoa zuen. Aita, ordea, trebiñarra, 1703. urtean Lañun sortua. Alde horretatik zetorkion Formeriori ponte izena, santu hori Trebiñu Konderriko patroia baita. Bere izenpeko ermita Pangua herrian dago. Tradizioak dio bertan kutxa batean gorderiko burezorra San Formerioren dela. Jakizue Formerio izena –baita Formeria aldaera ere– aski ohikoa izan dela trebiñarren artean, eta erabilera goren XVIII. mendean lortu zuela. Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoan 1900. urtera arte Trebiñu Konderrian bataiatutako Formerio guztietatik % 44 pasatxo XVIII. mendekoak dira. Zer diren modak eta sasoiari sasoiako joerak! Gaur egun, ordea, ez da ageri Formerio izenik Estatistika Institutu Nazionalaren emaitzetan.

Toponimia-ikerketak gehixeago argitu diezaguke Lagran eta Lañu inguruko egoera linguistikoa XVIII. mendearen hasieran. Izan ere, eremu geografiko txikiko toponimoak, –hau da, gertuko espazio fisikoa (iturriak, muinoak, soroak eta beste) izendatzeko direnak– tokian tokiko hitzunek berezkoa duten hizkuntzan sortuak

izaten dira, edonon eta edonoiz. Horregatik, toponimia historikoak nabarmen laguntzen du eskualde jakin bateko historia linguistikoa ezagutarazten. Aski informazio argigarria ematen du. Euskarazko leku-izenak dokumentazio historikoan sistematikoki itxuraldatzen hasten direnean, bertako eta orduko hitzuntentzat ulertezin bilakatu diren seinale dira. Belaunez belauneko transmisioa moztu eta euskara komunikazio-sistema bezala galdu izanaren egiaztapena da.

Arestian aipatu dizuet gazterik harritu ninduela Lagranen, amama Amaliaren jaioterrian, euskal itxurako leku-izenak zeudela jakiteak. Ugariak dira, gainera. Dokumentazioak frogatzen du XVIII. mende hasieran bere horretan erabiltzen zirela euskarazko izenak, itxuragabetze nabaririk gabe. Kasurako, 1725eko ordenantzetan “las lagunas de Zornoste[gly]eta laqua” aipatzen da. Gaur galdua da izena, beste asko bezala.

Itxuraldaketa gogorrak gertatu daitezke toponimoa osatzen duten elementu lexikalak jadanik ulergarriak ez izategatik. Esaterako, Lagran eta Trebiñu Konderriko Lañu eta Baxauri herrien arteko mugarriak berrikusteko 1760. urtean egindako bisitan aipatzen da “la cumbre [...] do dicen Vagacederra”. Lehenago ere dokumentatzen da toponimo bera, 1606. urtean, Lañuko agiri batean. Osaera gardena du: *Bagatza* + *eder* + artikulua (‘pagadi ederra’). Gaur egun, ordea, *Cabezaerra* esaten diote, desitxuraturik.

Ohartaraztekoa da Araba gehienez, *fagus sylvaticarako*, *bago* izan dela euskarazko hitza, eta ez *pago*, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasean pago* hitzak Bizkai-Gipuzkoetan egun duen hedadurak besterik iradoki badezake ere. Trebiñu Konderriak Gas teizko Udalerriarekin partekatzen duen mendi-gailurretako bat *Pagogan* izenarekin ezaguna izateak pentsarazi dezake kontraesanean dagoela esan dudanarekin. Ez da horrela. *Pagogan* izendapena ez da jatorrizkoa, baizik eta gaizki berreraikitako aldaera bat, azken hamarkadetan kartografiaren eta mendi-katalogoen bitartez zabaldua. Lehen elementua *pago* hitzaren itxuragabetzea dela uste izatean datza okerra. Uste ustela da, hala ere, funts dokumentalik ez duena. Inoiz ez da ageri *Pagogan* agiri zaharretan. *Palogan* izaten da beti, gutxienez 1608. urteaz geroztik.

Trebiñu Konderriko ekialdean agerikoa da gaur egun ere euskarazko leku-izenen presentzia. Erditik gora dira oraindik, itxuraldaketak gorabehera, jatorriz euskaraz sortutako toponimoak. Maizago eta osoago ageri dira XVIII. mendeko dokumentuetan. Euskal izen arruntik ere aurkitu ohi da gatzelaniazko testuetan txertatu-

ta. Paritza herriko adibide interesgarria dago Ensenadako markesaren katastroan, 1753. urtean. Herriko eraikinen artean aipatzen da “una cabaña dentro del pueblo do dicen el Garai para recoxer las mieses en el Agosto”, hau da, euskarazko *garai* hitza erabiliz, gaztelaniazko ‘hórreo’-ren orde. Halakoak jaso zituen López de Guereñuk joan den mendean, *Voces alavesas* lanean. *Garai* ez dago bilduma horretan. Oraindik euskal hitz hondarrik bilatu daiteke Trebiñu Konderriko lexikoan, testu zaharrak arakatuz; nekezago hiztunen ahotik, bizimodu tradizionalarekin gertatu den hausturagatik eta herri kulturaren galeragatik.

Gogoan dut Sasetan adin handiko hiztun batekin bizitu nuen gertaera. Duela hogeita hamar bat urte izan zen. Bi topografo etorri ziren Sasetara neurketa batzuk egitera, eta, hartarako, jeep batean joan ginen laurok, basoan barrena, zenbait mugarri ikuskatzera.

–Oiga –galdetu zion topografoetako batek–. En estos bosques tiene que haber tejos, ¿no?

Herriko gizona zer erantzun ez zekiela lotu zen. Ez zion gaztelaniazko hitza ulertu.

–Le pregunta si hay agüines por aquí –esan nion nik. Orduan berehalako erantzuna eman zion Sasetako gizonak.

–Sí, hay bastantes, sobre todo en la parte de Arangatxa.

Agin hitza bildua du López de Guereñuk, baina Arabako Mendialdeko Apilaiz eta Haranera mugatuta. Aldiz, Sasetako gertaerak erakusten du Trebiñu Konderriaren ekialdean ere bizirik egon dela gaur arte.

Atzera eginez, XVI. mendean aurkitzen dugu euskara hizkuntza mintzatua zeneko lekukotasunik, Trebiñu Konderriko ekialdean. Esaterako, 1519. urtean, Salinasko kondeak auzitara eraman zituen Lañuko herritarrak eta kontzejua. Zergatia zen aurreko lau urtean ez ziotela kondeari ordaindu Urizaharreko baleztariak Las Cruces eta Goikogana basoak zaintzeagatik. Auziaren lekukoek deklaritzen dute baleztari horiek Trebiñuko beste herri batzuei ere kobratzen dietela zaintza-lana, eta sari horren izena ematen dute: “bagasaria que quiere decir en romance montería”. Jatorriz, txerriak elikatzeko pago-ezkurren gozamenarekin lotuta zegokeen bagasaria.

Markizen, 1569. urteko mugarri-bisita batean hala jasotzen da: “en el camino que van los de Marquínez a Quintana que se dize en vascuence Quintaravidea”.

Antzeko datu gehiago agertuko dira aurrerantzean, iturri dokumental gehiago aztertu ahala, eta ikuspegi osatuxeagoa lortuko dugu euskararen hedapen historikoaz. Azken datuetakoa dugu Fernando Maiorak *Reino de Navarra. Euskera. Injurias, coplas, frases* liburuaren hitzaurrean laburki aipatzen duena. Gaztelako armadaren soldadu baten aurka 1558. urtean egindako prozesu kriminalaren berri ematen da bertan. Arkabuzariak *Juan Pascoal de Tribino* gaitzizena darabil, eta euskalduna da lekukoaren deklarazioen arabera. Jakin-goseak eraman nau Iruñean eskuizkribu mardula zuzenean kontsultatza, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian. Pedro Uribarrenaren lankidetzat baliotsu eta eskuzabala izan dut horretarako. Pedro artxibozaina da ofizioz eta, oroz gain, lagun mina. Artikulu ugari plazaratu ditugu elkarrekin. Aitortzen dut nekez gauzatu nitzakeela hainbat lan, dokumentuen transkripzioan lagundu ez balit.

Eskuizkribua irakurririk, jakin dut Juan Pascoal delakoa Zangozako kartzelara eraman zutela Nabaskozen gizon bat hil izanaren akusaziopean. Gorpua gorde eta krimen zitala ezkutatzeko gutun faltsuak helarazi zizkion alargunari, senarra Galiziako Santiagora joana zela sinetsarazteko. Iruzur bera erabili zuen zazpi urte lehenago aita soka batez ito eta gorpua haitzulo batera jaurti zuenean. Orduan hildakoaren emazteak bi gutun jaso zituen. Ardura hori hartu zuen Juan Pascoal gaiztoak, senarra bizirik eta Donejakue bidean zegoela sinetsi zezan ama gaixoak. Gaizkin horren doilorkeriak aipatzea ez da hutsala. Beharrezkoa dugu, tamalez, interesatzen zaigun istorioaren haria jarraitzeko.

Kasua da hiltzaileak bere herria utzi zuela, justiziatik ihesi, eta soldadu sartu zela. Zaragozan jatorrizko izena aldatu eta Juan Pascoal izen faltsua hartu zuen, bere arrastoa ezabatu nahian. Ahaleginak ere egin zituen nongoa zen ezkutatzeko. Aitzitik, instrukzio judizialerako ezinbestekoa zuten erruztatuaren identitatea argitzea.

Prozesu kriminalak konpainiako soldaduen deklarazioak biltzen ditu. Horietako batek dioenez, “luego que [Juan Pascoal] se asentó en la dicha conpanya, azia como aquel que no entendía vascuence”. Beste lekuko bati Juan Pascoalek esan zion Medina del Campokoa zela. Baina, lekukoak ez zion egiantzik eman, “viendo que ablaba vien bascuence”. Horregatik, “le tornó a preguntar de donde hera y le res-

pondio que hera de Treviño”. Lope de Cegama izeneko soldaduak dio “aberle oydo dezir que es natural de Trebino y otras vezes de Greño [sic, *Guereño*] a una legoa de Salbatierra, y que por lo que este testigo entiende de la lengua vascongada le paresçe que su bascuençe del dicho Juan Pascoal es de azia tierra de Amescoa, y no de la parte de donde el dize”. Juan Fernández de Yarçak deklaritzen du “que [Juan Pascoal] dize y abla muy vien bascuence, y tan vien como este testigo, [...] y que en Trebino sabe que no se abla bascuençe”.

Nongoa ote zen zinez harako Juan Pascoal hura? Ikerketa aurreratua zegoela, Arluzea herriko hiru lekuko deitu zituzten Iruñera: Juan de Albaina, Juan Ochoa de Urarte eta Santiago de Arriluzea. Kartzelan, zazpi preso erakutsi zizkieten, eta hiru lekukoek gizon bera ezagutu zuten, nork bere aldetik. Aho batez adierazi zuten “que el dicho hombre se llama Andres de Arriluçea, y no Juan Pascoal, y que es natural del dicho lugar de Arriluçea”. Puntu honetan lagako dugu istorioa. Oraingo jakin-nahia ase dugu. Ihuda ibaiaren goi arroan XVI. mendearen bigarren erdian euskaraz hitz egiten zela jakitea izan dugu.

Toponimia historikoak berresten du euskara hemen zegoela garai horretan, eta XVIII. mendearen erdira arte iraun zuela. Ez da falta adibide argigarririk. Sasetan kasu, egun erabiltzen den *Arbitea* leku-izena XVIII. mendearen bukaeran ageri da lehen aldiz. Itxuraldatu aurreko forma *Erbitegia* zen, eta, gutxienez, 1742. urtera arte erabili zen horrela. Orobat, aipagarria da, Markiz eta Urarte arteko mugan, XVI. mendetik dokumentatzen den *Isasburua* edo (*I*)*saspurua* izena. Horrela ageri da XVIII. mendearen erdira arte, bertakoentzat ulargarria zen seinale. Itxuragabetua azaltzen da lehen aldiz, 1790. urtean, gaur ere erabiltzen duten *Sanpurga* aldaerarekin, balizko santu apokrifiko baten itxura hartuta.

Uste dut Trebiñu Konderriko ekialde gehienara zabaldutako egoera bertasua. Marauriko eta Sasetako toponimian agerian geratzen da bi herri horietan euskal hiztunik bazegokeela XVIII. mendearen bukaeran. Batean zein bestean, ordura arte, toponimoen % 80 inguru euskaraz dira, itxuragabetze nabarmenik gabe. Gaztelaniazko filiazioa duten izen gehienak, aldiz, XIX. eta XX. mendeetako dokumentuetan ditugu lehenik.

Guztiarekin ere, euskararen historia ez da berdin Trebiñu Konderri osoan. Ikusi dugunez, Juan Pascoal ezizenekoaren kontrako prozesu kriminalean lekuko batek

dio Trebiñun ez dela euskaraz hitz egiten. Dokumentuaren testuinguruan ulertu behar dugu Trebiñu hiriburuz ari dela, ez konderriaz oro har. Izan ere, lurraldearen sartaldeko muturrean ia ez dago euskal leku-izenen aztarrenik. Argantzón eta Billa-Oka herrietan ez dago gaur halako toponimorik, *Basondo* eta *Gucialde* izan ezik. Biak Trebiñu Konderriko mugapearen marran daude. Panguan eta Burgetan ere ez dirudi euskararen arrastorik dagoenik, XVI. mendetik behintzat. Bai, ordea, hortik oso gertu, sortaldeko herri mugakideetan. Dokumentazioaren argitan, euskararen gehieneko hedapen historikoa Ozilla-Ladrera, Añastro, San Esteban eta Morgas herrien lerrotik bide zihoan, iparretik hegora, herri horiek guztiak barne hartuz.

Ziurrenik, XVI. menderako galdua zen euskara mendebaleko herri gehienetan, eta galera Trebiñu hiribururaino iristen bide zen. Hiribildua franko handia zen. Harresiz inguratua eta muino gainean gaztelua zuela, 250 familiagune biltzen zituen 1556. urtean. Gauden Done Petri eliza honezaz gainera, beste lau parrokia-eliza zituen Trebiñuk. Ez dugu informaziorik konderriko hiriburuari egoera linguistikoa. Gehixeago dakigu Gasteizkoaz, Andrea Navagiero italiarrak 1563. urtean kontatua: “en la ciudad de Vitoria se habla castellano, pero entienden también el vascuence, y en los más de los pueblos se habla esta lengua”.

Uste izatekoa da Trebiñuko mugapea inguratzen duten herri gehienetan euskara hitz egiten zela. Trebiñuko kontzejuaren artxiboan gordetzen da *Libro de vareamiento y sexta parte* izeneko dokumentua, 1627. urtekoa. Konderriko herri bakoitzean lantzen ziren lursailak biltzen ditu agiriak, sarritan beren izenarekin, eta, Valladolidetik etorritako eskribauak hainbatetan gaizki transkribatu arren, informazio joria du. Ohargarria da euskal izen ugari ematen dituela Trebiñurekin mugakide diren Arrieta, Askartza, Bustu, Dordoniz, Golernio eta Franku herrietan. Eta bereziki nabarmentzekoa da Trebiñu herriko mugapean bertan ere badirela euskarazko izen ugari. Batzuk bizirik iritsi dira gaur arte; beste batzuk bidean galdu dira. Erabiltzen direnen artean *Basaran*, *Basarte* eta *Basondo* ditugu. Hirurek euskara garbian adierazten dute gaur soil eta gorri ageri zaizkigun mendi-hegal horiek zuhaitzez estaliak zirela izena jarri zietenean.

Bertokoek darabilten beste izen bat *Berokia* da. Haizetik babesteko tokia, alegia, Araban Zalduondotik Bernedoraino ageri dena. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasak* Nafarroan ere jasotzen du Abaurregainean, Jaurrietan eta Mezkitzen.

Gaurko toponimoen artean, *Txamurraran* dago. Lehendik dokumentatzen da, *Samurraran* (1644) eta *Chamurraran* (1753). Bigarren osagaia ‘haran’ da, eta lehenak *Samur*, *Txamur* izengoitia izateko itxura du, gaztelaniatzko *Tierno* ezizenak deitura eman duen bezala.

Bigarren osagai bera du egungo *Uñaran* toponimoak. Lehenago ageri da *Unaran* formarekin, 1599an eta 1717an. Litekeena da lehen osagaia *unai* izatea. Jatorriz **Unanaran* dateke eta, ondoren, haplologiaz, *Unaran* ‘behizainen harana’.¹

Borunbede da bizirik dagoen beste leku-izen bat. Horrela eta *Borumbide* moduan ere, bietan, ageri da 1753. urtean. Lehen elementua latinezko *molinum*-etik dator. Hortaz, ‘errotaz bidea’ adiera du, eta hala da, Golernioko errotara baitzeraman bideak.

Campas de Arpidia esaten zaio gaur herriaren iparraldeko leku bati, gazteluko muinoaren atzean. “El camino que llaman de Arpidia” ageri da 1753. urtean. Osagaiak *ardi* eta *bide* dira, artikulua gehituta.

Leku-izen gehiago aipatu daitezke, egungoak eta lehengoak, hala nola “el río de Zabala” (1627), *Asua* (1753), eta “el puente de Maricuzubia” (1773), baina nago aski lagin argia dela ohartu gaitezen historikoki euskara ez dela arrotza hemen, berezko hizkuntza baino, eta, ondorioz, Trebiñu Konderria, eskubide osoz, Euskararen Herriaren parte dela. Trebiñu Konderriaren historia linguistikoa, euskararen eta gaztelaniaren arteko harremanaren ezaugarriak eta kronologia idatzi gabe daude oraindik, zenbait aurrean egin badira ere. Ezin zitekeen nire asmoa izan halakoa gauzatzea gaurko hitzaldi xumean. Hala ere, pozik nengoke aurkeztu ditudan datuetan eginkizun horretan lagundu dezakeentxorik balego.

Amaitzen joateko, azpimarratu nahi dut, hitzaldiaren izenburuarekin bat etorritz, euskara Trebiñu Konderriko kultura ondarearen ezinbesteko osagaia dela. Age-riko errealitate linguistikoa da iraganean ez ezik gaur egun ere. Eskertzekoa da Argantzón ikastolak 2003. urteaz geroztik aurrera daraman hezkuntza-proiektua. Trebiñuko eskola publikoan, aldiz, euskarak ez du tokirik. Ikastetxeko gurasoen elkarteak eta Trebiñu Konderriko Udalak urteak daramatzate euskarazko ikastere-dua eskatzen, baina Gaztela eta Leongo hezkuntza-agintaritzatik ezezko erantzuna

¹ cf. *Una Maizter* ‘mayoral de vaqueros’, Nafarroan 1167an dokumentatua, Mitxelenaren aburuz, **unan maizter*-etik letorkeena.

besterik ez dute hartzen. Goratzekoa da, halaber, Trebiñuko Gutxisolo elkarteak euskararen sustapen sozialaren alde gauzatutako lan eskerga.

Trebiñu Konderrian eta Argantzonen euskarak gaur duen errealitatea ezagutzen dugu Eusko Jaurlaritzak, barrendegiko bi udalen eskariz, eginak dituen azterketa soziolinguistikoei esker. Bost urterik behin burutu da lana, 2002tik 2012ra bitartean. Duela zazpi urteko datuek azaleratu dute bi udalerrietako biztanleen % 22 elebiduna zela eta, horrezaz gainera, biztanleriaren % 17k elebidun hartzaileztatu zuela bere burua. Zein da euskaldunen kopurua gaur egun? Tamalez, ez dago jakiterik, azken azterketa soziolinguistikoak, 2017koak, ez duelako bere baitan hartzen Trebiñuko barrendegia. Erauzirik dago, harrigarriro. Ondorioz, ezin esan daiteke 2017ko azterketa soziolinguistikoak Euskal Herri osoa hartzen duenik. Ageriko hutsunea du Arabako erdigune geografikoan. Kezkagarria da gabezia hori ahalik azkarren ez zuzentzea. Egoera honek ikusezin bihurtzen du euskara Trebiñuko barrendegian, neurri ohargarrian. Isilarazi egiten du Gaztela eta Leongo administrazioaren aitortza ofizialik eta babesik batere ez duen euskararen presentzia.

Hitzaldia bukatu behar dut. Trebiñu Konderriko euskararen zidor zaharretan ibili gara. Lehendik trazatutako bide horiek azken buruan orainaldira itzuli gaituzte. Hain zuzen, guk urratu ditzakegun bide berriak gaur egungoak dira, horizonte zabalekoak, etorkizunera garamatzatenak. Euskararen geroa gure erantzukizuna da, eta egunez eguneko gurpilean egiten dugu hautua euskaldunok, euskaraz bizi garenean eta noranahiko baliatzen dugunean. Finean, euskaldunok gara egun eta hemen euskararen osasunaren eta biziraupenaren (edo, aitzitik, ahultzearen eta zokoratzearen) erantzule bakarrak. Ez gaitezen aitzakien atzean babestu. Guri baino ez dagokigu euskara erabiltzea, ez besteri, egunerokoan komunikaziorako sistema baliotsua izan dadin. Hala da Euskal Herri osoan, baita Trebiñuko barrendegian ere.

Bibliografia

- González Salazar, J. A., 2005, *Montaña Alavesa. Comunidades y pastores. Ohitura* 11. Arabako Foru Aldundia.
- Historiaren Errege Akademia, 1802, *Diccionario geográfico-histórico de España*.
- López de Guereñu, G., 1998, *Voces alavesas* (2. argit., Henrike Knörr-en edizioa). Euskaltzaindia.
- Maiores Mendia, F., 2011, *Reino de Navarra. Euskera. Injurias, coplas, frases*.
- Von Humboldt, W., 1801, *Viaje al País de los vascos*.

Roberto González de Viñaspre euskaltzainaren sarrera-hitzaldiari erantzuna

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi

Euskaltzain osoa

Agintariok, euskaltzainkideok, jaun-andreok, egun on.

Bigarren aldiz egokitu zait euskaltzain berri baten sarrera hitzaldiari arrapostua egin beharra; oraingo honetan Bilbon sortu baina aspaldixko arabartu zen Roberto González de Viñaspreri erantzun behar diot. Nola zen kontua. Ez nekien arras ongi. Azkenean hark nola, nik ere hala egitea erabaki dut, laburrago, hori bai, hala behar eta.

Uste dut euskal izenek ekarri gintuztela euskararen mundura bai Roberto eta bai ni, adin bertsuan, gainera, hamabosna urterekin. Bestalde, gauden inguru hau eta ni sortu nintzen herria, Uxue, irudiak dira alderdi anitzetarik, eta, batez ere, hizkuntza historiaren aldetik, biak egon baitira luzaz euskararen eta erromantzearen arteko mugan. Trebiñu alderdiak eta Arabak, oro har, gaztelania sortu zen eremuarekin mugatzen du; Uxue aldeak, aldiz, lehen «nafarrera-aragoiera» eta egun, bigarren osagaia kenduta, «nafarrera» deitzen den horrekin, baina «aragoiera» mintzo zen alderdia hurran zen betiere.

Robertok bere buruari egiten zizkion galderak eta nik neureari egiten nizkionak ere paretsukoak dira: nolakoa zen hemengo hizkera?, non zegoen hizkuntza muga?, noiztsu lekutu zen euskara hemendik? Horren berri testuek eman diezagukete, testurik baldin badago behintzat, baina horiek -gehienxkoenetan han-hemen agertzen diren predikuak- usaian kontuz ibili beharrak izaten dira, elizgizonek bestek egingdakoa baliatzeko joera izaten baitzuten. Orain ez dakit. Horren erakusgarri da, adibidez, Xurio lapurtarraren *Jesukristoren imitazionea*-ren ale bat Uxueko elizako

liburuen artean egotea. Seinale txarra ere ez da, Iparraldeko euskara, egokituxea segur aski, Uxuen erabiltzeko modukoa izatea.

Euskara ikasten hasteko eskuliburu bana izan genuen Robertok eta nik, hori bai: Robertok Xabier Peñaren *Euskal Irakasbide Laburra* eta nik, berriz, Juan Oñati-biaren *Método de euskera radiofónico*, irratirik ibiltzen ez banuen ere. Oroitzen naiz *ola* agertzen zela ‘fabrika’ erranahiarekin, garbizale joera pixka bat bazuelako, eta ez da harritzeko garai hartan, *tartaria* aldia igarota ere.

Bestalde, gibelera begira, Robertoren arbasoak lagrandarrak eta gernikarrak ziren, aditu dugun bezala. Nireak uxuetarrak, amaren aita salbu, *Leoncio Zaratiegi* salbu, hura oletarra baitzen, orbaibartarra. Ondokoa, hori bai. Ez nekiena eta Peio Monteanori esker ikasi dudana da gure *Salaberri* deitura Zuberoatik etorria dela, denbora hartan *Sorhoeta* zen Sohütatik edo inguruetatik, 1600 aire horretan. Segur-segur ere ez dakit, auzibide batean ageri den *Salaberri* Pitillasen bizi zelako, sasoi hartan Uxueko auzoa zen Pitillasen. Kontua da Uxueko dokumentazioan 1629an ageri dela lehen aldiz *Salaberri* deitura, eta Carrascoren lanari esker badakigu 1366an holakorik ez zegoela. Nik etorkiz baxenabartarra zela pentsatzen nuen, zaraitzuarrek beste aldekoekin harreman usuak izan dituztelako, eta haien altxonbide edo ardibidea guretik igarotzen delako, Erriberarako bidean. Baina ez, nonbait.

Sohütarra *Juanes de Soroeta y Salaberri* zen, *artxaikoa*, Elkanokoak dioen moduan. Haren erdi anaia edo anaia erdia -bietara erraten baita- Pitillasa bisitan etorritako *Oliber de Soroeta* zen. Hain segur egun Ainharbeko egiten den *Salaberria* etxekoa zatekeen *Juanes*, orain bederik beste *Salaberria*-rik ez baita, dakigunez, Sohütan.

Euskararen aztarnei dagokienez, Uxuen ez dugu *halakorik* egin esaldia dugu 1581ean (Monteano, 2017: 178), eta ondoko pasarte hau 1598an: *alcabuz aldibat* eta *arcabuzas es, estiot arcabuzau emanen, estate gure probechu arcabuzetara etorri bagajtes*. Bigarren pasarteño honetan interesgarriena da Sohütatik Pitillas eta Uxueren arteko mugara bisitan etorritako *Oliber de Soroeta* izan zela uxuetarrek elkarri errandako hitzen «transkribatzailea», hots, notarioari eman, diktatu zizkiona. Aintzat har bedi, bestalde, notarioaren izen-deiturak *Fauste de Oñati* zirela, oñatiarra sortzez, zalantza handirik gabe. Horixe da benetako euskara batua! Ikusten da euskal hizkerak orain baino hurbilago zeudela bata bestetik, eta elkarri ulertzeko arazoak ere gutxiago zirela.

Euskara galdutakoan jendeak egiten dituen euskal toponimoen egokitzapenak biziro interesgarriak dira, baina ez da hau ez lekua ez unea holakoetan hasteko. Bakarrik Jimenok (2010: 108 eta 2014: 306) biltzen dituen *Astraingo Gatzarrikoa* (*gatzarria* ‘ardiei gatz emateko harria’) eta Otxobiko *Sanmigelagerre* edo *Sanmigelagerri* ‘San Migel santutegia lehen aldiz ikusten den gunea’ toponimoen *Cacharricos* eta *Sanmigelagarro* aldaera desitxuratuak aipatuko ditut. Bigarren hau dela eta, azalpen hau eman omen zioten Jimenori: «De allí se ve tan cerca San Miguel [de Excelsis], que parece que lo coges con la mano; por eso se llama “San Miguel agarro”».

Toponimiari lotuz, eta Robertok aipatu duen *beroki*-ren harira, azpimarratu nahi dut gauza bat dela EHHAk dioena eta beste bat toponimiak dioena, nahiz ez diren inola ere elkarren aurkakoak, elkarren osagarriak baizik. Erran nahi dut *beroki* hitzak eremu zabala hartzen duela Nafarroan, aipatu atlasak bakarrik Mezkitzen, Abaurregainean eta Jaurrietan bildu bazuen ere, Robertok adierazi duenez. Konparaziorako, Arabako mugako Ameskoan *Berokiko hegia* dugu Zudairin 1665ean, *Egoaberokia* oraino bizirik dago Zaren, *Egoaberokia* eta *Egoaberokikoa* onik daude Iruñerrian, baita *Iparberokia* eta *Iparberokikoa* ere. Burundan, berriz, hau ere Arabako mugan, *Iparberokia* dugu egun Olatzagutian (Salaberri, 1994: 825, 931, 951). Lergako agirietan, Epaizko eta Uxueko mugan, *Txutxuberokia* edo *Txutxuko berokia* ageri zaizkigu, erdarara *Abrigo de Txutxu* iraulia, baita *Arrakoaberoki* eta *Jaundonepetriberokia* ere, lehena oraino bizirik, hondarrekoa dokumentazioan kausitua (*ibid.*, 587-588, 623, 653-654). Erka bedi hau Erroibarko *Ezkirozko berokia* vs *Ezkirozko ospela*-rekin (1788, NEAN, Aurizko pr., 42, J. J. Aquerreta): «otra (pieza) *Esquirozco beroquian* [...] otra en *Ezquirozcoospela*».

Toponimiak euskara galdu den alderdietan gauzak nolatsu ziren ikusteko aukera ematen digu; arriskurik handiena, seguruenik, sinkronia desberdinak alderatzean eta nahastean dago. Zernahi gisaz, interesgarria litzateke aipatu *beroki* horrek, beste-tako *berogi* eta *bellope*-rekin (bigarren hau Zuberoko da, Andoze ibarrekoa; Peillen, 1991: 196) berdintzen dugunean, nolako eremu banaketa duen eta izan duen ikus-tea. Adibidez.

Robertok aipatu duen *baso*-ren (*Basarana*, *Basartea*, *Basondoa*) eremu banaketa zein izan den ikustea ere interesgarria litzateke, ez erraza, baina bai interesgarria. Nik erranen nuke Nafarroako erdialde-ekialdean *oihan* ibili dela gure hizkuntza bizirik egon den azken denboretan. Badakit *baso* eta *oihan* beti ez direla elkarren adierakideak, baina Luzaiden, konparazione, etxe eta bazterretxe bakoitzak duen basoari *oihan* erraten diote; *oihan* ez da bakarrik mendi zuhaitzez estalia, edo baso

handia. Hau aipatzen dut Nafarroako erdialde zabaleko toponimian, gehienetan, *oihan* dagoelako. Bonapartek ere *oyan* ‘bois’ eta ‘montagne (boisée)’ (Ondarra, 1982: 138) jaso zuen Garesen (hemen ‘bois’ bakarrik), Elkanon, Oltzan eta Goñin. Alegia, Iruñearen inguruko alderdi zabalean.

Era berean, Ana Echaideren *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas* (1965-1967) hartzen badugu, ikusten dugu gaztelaniazko *bosque* errateko, Izabatik hasirik, *oihan* edo *mendi* ematen zutela berriemaile ia guztiek (erdaraz *monte* ‘oihana’ ere bada). Salbuespenak Lakuntzako *banue malkorra* bitxia, Bakaikuko *bani/jj*oa basoa eta Ziordiko *bani/x*oa basoa dira, hondar bi hauek Arabako mugan den Burundako herriak, ongi dakizuen bezala.

Azken datuak bat heldu dira Arabako mugako Lana ibarreko Narkue herrian *Basorabidegaina* eta haran bereko Iribarrin *Basabazterra* aurkitzearekin, baita Doneztebe Iguzkitzako Barbarinen, Los Arcos ondoan, *Basagaitza* eta *Basaldea* izatearekin ere. Uxuen ere, beste muturrean, baina baztergunean betiere, *Basandia* dugu bizirik oraindik, eta ez da sekula *oihan*-ik ageri, ondoko Oibar haraneko herrietan ele horixe (*oihan*) azaldu arren. Nolanahiko gisan, kontuan har bedi *Basaburua*, *Basabürüa* franko hedatua dagoela eta egon dela, eta ez dago zalantzarik hor *baso* dugula. Nafarroako erdialde-ekialdeko toponimian, bestalde, *baso* ere lekukotzen da, eta ez bakarrik *Basasagarra*-ren erakoetan.

Hortaz, irudi luke *baso* zela lehengo elea, edo *baso* eta *oihan* batean ibiltzen zirela, eta gero toki batzuetan *baso* aukeratu zela eta besteetan *oihan*, nahiz toponimiak berak (erraterako, Luzaideko egungo *Gaindola* auzoa *Basaburua* izan da berandu arte) eta *basasagar* edo *ahuntz basa*-ren modukoek garbi adierazten diguten lehenago *baso* ere ibiltzen zela, azken mendeetan eta egun hitza erabili eta erabiltzen ez duten tokietan ere.

Honelako bereizketa eta «ñabardurak» zenbaitentzat garrantzirik gabeko kontuak dira, testuetan agertzen ez badira. Nik ongi dakit gauza bana direla onomastika eta euskara «arrunta», baina ongi dakit, baita ere, toponimian edireten ditugun gauza asko euskara bizirik egon den azken denboretako lekuan lekuko hizkeraren ezau-garriak direla, orain ikusi dugun bezala, fidagarriak, lurrari atxikirik daudelako. Eta aintzat hartu behar liratekeela, hein batean segurik, bai Araban («zazpigarren alaba» Gorka Knörren kantuan) eta bai Nafarroan (zenbatgarrena ote da?, lehena ez, hori garbi).

Bururatu aitzin, Robertok eta Pedro Uribarrenak (2016) argitaratu zuten artikululu txiki batean eta hango eta hemengo datuetan oinarritu nahi nuke, beste etsenplu bat aipatzeko. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n ez da *isasi* biltzen; OEHN bai, eta ‘jaro’ adiera ematen zaio. Gaztelaniazko hitz hori, RAEren hiztegiaren arabera, ‘mancha espesa de los montes bajos’ da, eta Araban (oker ez banaiz) ‘haritz txikia’. Orain ordea badakigu *isasi* edo *itsasi* beste zerbait (ere) (ba)zela. Ikus Aragónek zer dioen (2009: 51): «Los isasis, también denominados *yaras* o *igarzas*, eran terrenos forestales recién cortados que eran adehesados, por un periodo no menor de dos años, para evitar la entrada del ganado y posibilitar el crecimiento de los árboles».

Hori bateratsu dator Erdoziak (2001: 157) Etxarri Aranazko dokumentazioan bildu zuen 1617ko *Ascolichasi*-rekin:

...que es verdad que el dicho termino y endrecera de Ucuar (*Utzubar* egun) tiene por otro nombre en vascuence *ascolichasi* y para si tiene por cierto este testigo quel otro nombre de *ascolichasi* se le dio y tiene porques dessa boyaral y porque *ascolichasi* quiere decir cossa vedada en todo que aun no dexan cortar arboles ni hazer madera.

Bat dator, berebat, Robertok eta Pedrok Domaikiako dokumentazioan jaso zuten 1730eko *ascorisasi* elearekin: «no puede entrar ningún vezino de dicho Valle a cortar ni llevar leña ni para su casa ni para vender a la ciudad de Vitoria, sino tan solamente pueden entrar los ganados a pastar yerbas y beber las aguas, sin que tengan otro derecho alguno sino a lo referido, por ser *Ascorisasi*», «son egidos públicos que solo tienen la jurisdizion los demás lugares [del Valle] de aguas y ierbas en los que llaman *Ascorisasi*». Gauza bera da, bistan da, Arinek (1951: 136) biltzen duen Ataungo Agauntzako *Aizkolisasi* aurkintza izena.

Honelakoak, nire ustez, harribitxiak dira, ezin bazter ditzakegunak. Egia da hiritarrok ez dugula *itsasi* edo *aizkolitsasi* egunero ibiliko, baina hori beste hamaika hitzekin ere agitzen da. Beste hainbeste erran liteke adierakide-edo dituen *debeku* eta *betatu* hitz toponimian ezagunez.

Bukatzeko. Nire goresmenak Roberto. Onomastika arlo izugarri polita da. Lan-tegia ere ikaragarria da Euskaltzaindian: baduzu non josta, ez zara lanik gabe egonen, bi besoak gurutze, asperturik. Beraz, Akademiaren leloak dioena errepikatu beharko dizut, dizugu: ekin eta jarrai. Eta eutsi goiari!

Erreferentziak

- Arin, J., 1951, «Toponimia y vida rural en Ataun», *Eusko Jakintza*, 5.1-2, 129-152.
- Carrasco, J., 1973, *La Población de Navarra en el siglo XIV*, Iruñea: Nafarroako Unibertsitatea.
- Echaide, A., 1989, *El Euskera en Navarra: Encuestas Lingüísticas (1965-1967)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, «Hizkuntza eta Literatura» 8.
- Erdozia, J. L., 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Euskaltzaindia, 2018, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*. Hemen kontsulta daiteke: [euskaltzaindia.eus]
- González de Viñaspre, R. eta Uribarrena, P., 2016, «La "askorisasi" de Domaikia y el tanero de Orbiso», *Arabako Kontzeju Aldizkaria - Revista de los Concejos de Álava* 19, 20-21.
- Jimeno, J. M^a, 2010, *Toponimia navarra. III. Cuenca de Pamplona. Cendea de Zizur*, Iruñea: Udalbide - Pamiela - Euskara Kultur Elkargoa, «Obras Completas de J. M^a Jimeno Jurío» 42.
- , 2014, *Toponimia navarra. VI. Cuenca de Pamplona. Cendea de Itza*, Iruñea: Udalbide - Pamiela - Euskara Kultur Elkargoa, «Obras Completas de J. M^a Jimeno Jurío» 45.
- Monteano, P. J., 2017, *El iceberg navarro*, Iruñea: Pamiela.
- Ondarra, Fco., 1982, «Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi», *FLV* 39, 133-228.
- Oñatibia, J., 1969, *Método de euskera radiofónico*, Donostia: Edili.
- Peillen, Tx., 1991, «Andoze ibarreko leku izen nagusiak eta xeheak», *FLV* 57, 89-106.
- Salaberri, P., 1994, *Eslaba Aldeko Euskararen Azterketa Toponimiaren Bidez*, Bilbo: Euskaltzaindia, «Onomasticon Vasconiae» 11.

Agiriak

Euskaltzaindia. Batzar-agiriak

Osoko bilkura

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian

2019ko urtarrilaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Davant, Jean-Louis,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso eta Osa, Erramun,
zegozkien gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Jose Irazu “B. Atxaga”, Beñat Oihartzabal eta Patxi Salaberri.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Beñat Oihartzabalek ahala Miren Azkarateri; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutia.

Batzarra 2019ko urtarrilaren 25ean, ostiralean, egin da Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoan zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urtarrileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Hasteko, E. Osa idazkariordeak Osoko bilkurari eta 2018 urtean hil diren euskaltzainak gogorarazteko egingo den Ageriko bilkurari buruzko argibideak eman ditu.

**1. Osoko bilkurako (2018-11-23)
bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.**

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharren bat egin nahi den galdetu du, ez du inork halakorik egin. Ondorioz, 2018ko azaroaren 23ko bilera-agiria onartu da.

2. Onomastika: 66. araua (Santutegiko izen ohikoenak). Araua zuzentzeko, osatzeko eta emendatzeko proposamena. Aurkeztu.

R. González de Viñaspre eta A. Mujika Onomastika batzordearen buruak eta idazkariak, hurrenez hurren, eman dituzte azalpenak.

Gogorarazi dutenez, 66. araua (Santutegiko izen ohikoenak) 1997koa da eta pertsona-izenei buruzko lehenengo araua da. Aztertu ostean, Onomastika batzordean ikusi da badituela idazte-akats batzuk, ingelesezko ordainak falta direla (geroko arau guztietan, gaztelaniazko eta frantsesezko ordainez gainera, ingelesezkoak ere ematen dira) eta aurkezpen-testua, puntu batzuetan, zaharkituta dagoela. Horregatik, gainerako arau berriagoen molde berera ekartzeko, arau hori zuzentzea eta osatzea proposatzen du Onomastika batzordeak.

Aurkeztu den dokumentuan, zehatz-mehatz ageri dira proposatzen diren aldaketak eta zuzenketak eta bakoitzaren zergatia. Horretaz gainera, ingelesezko ordainak ere erantsi dira. Bestalde, Exonomastika batzordeak, munduko pertsona-izenak lantzean, santutegiko izenen arauan ageri ez diren zenbait santu-izen interesgarri bildu zituen 2015ean, eta Onomastika batzordera bidali. Beraz, araua zuzentzeaz eta eguneratzeaz gainera, beste 81 santu-izen gehitu nahi zaizkio lehengo zerrendari. Aurkeztu den dokumentuan, 81 izen horien euskarazko ordaina proposatzen da, eta proposatzen den grafia bakoitzari buruzko informazioa ematen da, santu edo santa bakoitzaren beste hizkuntza batzuetako ordainak eta informazio batzuk emateaz gainera.

Azkenik, santuen izen guztiak arau bakarrean biltzearen, 129. arauan (aita santuen izenak) ageri diren 25 aita santuen izenak zerrenda orokorrean ere jartzea proposatzen da, bai eta exonomastikako arauetan ageri diren beste 13 santu edo santa garrantzitsu ere. Araua ez da, beraz, osorik berraztertzekoa: zuzentzekoa dena (dokumentuan nabarmenduta ageri da) eta 81 izen berriak dira aztertzekoak, ez gainerakoak.

Badira bi puntu berariaz aztertu behar direnak:

8. oin-oharra (ikusi azalpena, dokumentuaren 17. orrialdean): “Toponimian eta jaieguna izendatzeko, *Donibane* izena hobesten da... *Donibane sua*, *Donibane jaia*.” Hobespena toponimiara murritzeta proposatzen du batzordeak, gaur egungo erabilerak kontuan harturik.

29. oin-oharra (ikusi azalpena, dokumentuaren 46. orrialdean): *Kalisto* eta *Sesto* arautu ziren batetik (66. arauan eta 76. arauan, hurrenez hurren), eta *Sixto* bestetik (129. arauan). Kontsonante aurrean *x* ez baizik *s* idaztea hobetsia du Euskaltzaindiak 1985etik. Horregatik, *Sixto* forma arautuaren ordean *Sisto* forma onartzea eskatzen dio batzordeak Osoko bilkurari.

Horrela, azalpenaren ondoren, oharrak eta ekarpenak egiteko aldia ireki da. Halakoak jasotzeko azkenengo eguna otsailaren 18an izango da. Zuzentzekoa edo eranstekoa den parteari buruzko oharrak egin daitezke bakarrik, ez lehendik arautua dagoen eta ukitzekoa ez den gainerakoari buruz.

3. Onomastika: Pertsonen euskal izendegi berrituari buruzko informazioa eman.

R. González de Viñasprek gogorarazi duenez, Euskaltzaindiak bere sorreraren mendeurrena ospatzeko antolatu dituen jardunaldien barruan, Onomastikari buruzko Nazioarteko Jardunaldia egingo da Gasteizen, Europa Jauregian, ekainaren 13 eta 14an. Bertan, besteak beste, pertsona-izendegia aurkeztu nahi da. Euskal pertsona-izendegia euskarri digitalean eta Euskaltzaindiaren webgunean eskainiko da eta tresna berritua, osatua eta eguneratua izatea espero da. Mementoz ez da paper euskarrian argitara emango.

Euskal pertsona-izendegi berritua baliabide orokorra izango da, erabiltzaile oro-
rendako prestatua (gurasoak, Erregistro Zibiletako arduradunak, historiagileak, ikertzaileak eta abar). Euskal Izendegi berrituan 2001eko izendegian agertzen ziren izenez gain, Euskaltzaindiak emaniko bestelako arauetan-eta azaltzen direnak jasoko dira.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak Batzorde Ahaldunduen oharra (X). Zuzendaritzaren proposamena.

A. Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu du. Gogorarazi duenez, aurreko Osoko Bilkuran, *galleta* / *gaileta*, ‘jakia’ adierakoaren grafia erabakitzeko botoetara eramana zen. Emaitzak ikusita (*gaileta*-k 9 boto, *galleta*-k 7 eta 6 boto zuri), gaiak garrantzia duenez, Zuzendaritzak proposatzen du *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, *adierak eta adibideak* Batzorde Ahaldunduko buruari eta idazkariari informazio osagarria eta hurrengo Osoko Bilkurara ekar dezaten eskatzea. Informazio berria aurkeztu ostean, euskaltzain osoek beraien ekarpenak egin ahal izango dituzte. Ohar horiek bildu ondoren, hurrengo Osoko Bilkuran erabaki daiteke gaia. Hala egitea onartu da.

5. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak Batzorde Ahaldunduen oharra (XI). Jasotako oharra aztertu eta erabaki.

Azaroko Bilkuran aurkeztutako dokumentuari inork ez dio oharrik egin. Beraz, zerrendako proposamenak bere horretan onartu dira.

Honekin batera, bazen azaroko Bilkuran datu berrien argitan dokumentazioa osatzeko eskatutako kasu bat: *gaixo(-)agiri* eta *senda(-)agiri/sendagiri* (eta, horiekin batera, *baja* eta *alta*). Osasun arloko datuak gehituta aurkeztu dira bileran eta *gaixo(-)agiri* eta *sendagiri* onartu dira. Eta, horiekin batera, *Heg.* markarekin eta osasun-mundutik at duen erabilera kontuan hartuta, *baja* eta *alta* ere bai.

6. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak Batzorde Ahaldunduen oharra (XII). Aurkeztu.

Zerrenda berria aurkeztu du Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Azkarate eta A. Iñigo euskaltzainek egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Bi sarrerek sortu dute eztabaida: *fonuzaingoren* definizioak (eta, beraz, baita *ertzaintza*-renak ere). ‘Nafarroako Foru Komunitatearen berezko polizia’, ‘Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko polizia’ proposatu dute euskaltzainek. Bestalde, *hiribilduren* definizioak ere eztabaida sortu du, ez baita Erdi Aroan bukatutako kontu histori-

koa bakarrik, bai baitira geroago ere sortutako hiribilduak. Gainera, Bizkaian gaur ere bereizketa egiten da, ondorio juridikoak ditu eta. Adiera gehitzea proposatu dute, Bizkaian behintzat *elizaterekin* kontrajarria dagoelako. *Herribildu* eta *hiribildu* izenak gauza bera ote diren ere aipatu da. Batzorde Ahaldunduko buruak eskatu du oharrak eta bileran ahoz emandako azalpen guztiak idatziz bidaltzeko, proposamena zuzen egin ahal izateko. Horrela, oharrak egiteko epea zabaldu da, otsailaren 18a arte.

7. Esku artekoak.

7.1. R. M. Azkue Sariak 2018. Epaimahaikoak izendatu dira Zuzendaritzan, 2019ko urtarrilaren 10ean eginiko bilkuran. Hona hemen izendaturikoak:

- A maila: Miren Billelabeitia, Igone Etxebarria eta Manuel Lopez Gaseni.
- B maila: Yolanda Arrieta, Amaia Jauregizar eta Patxi Zubizarreta.

7.2. Hurrengo bilkurak. Otsailean aurreikusitako bilkuren berri eman da.

- Euskaltzaindiaren Mendeurrena: “Eta ahoskera zer” jardunaldia egingo da Gasteizen, Artiumen, goizeko 09:00etatik aurrera. Jardunaldia antolatzeko ardua Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeak izan du. Egitaraua banatu da eta M. L. Oñederra Ahoskera batzordearen buruak aurkeztu du.
- Otsailaren 16an “Baiona, 1964: euskara batuaren zedarria” erakusketaren irekitze ekitaldia egingo da Maulen. Honi buruzko xehetasunak Jean-Baptiste Battittu Coyos euskaltzainak eman ditu.
- Hurrengo Osoko bilkura Iruñean egingo da, Nafarroako Gobernuaren egoitzan, otsailaren 22an, 10:00etatik aurrera. Xehetasunak deialdiarekin batera emango dira.

8. Azken ordukoak.

A. Urrutiak aditzera eman duenez, Euskaltzaindiak sortuz geroztik egin duen lana eskertzeko, merezimenduzko Argia Saria jasoko du gaur Eusko Ikaskuntzarekin batera. Saria jasotzeko egingo den ekitaldira M. Urkia Gipuzkoako ordezkaria joango da. Inguruabar horretan, A. Urrutiak gogorarazi duenez, *Argia* astekariaren abiapuntua izan zen *Zeruko Argia* sortu zela mendeurrena betetzen da aurten. Ondorioz, Osoko bilkuran *Argia* astekariari zorionak emanez, gutuna igortzea erabaki da.

Eta beste aztergairik ez dela, 2018. urtean hildako euskaltzainak omentzeko egingo den Ageriko bilkuran parte hartzeko, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:15 direnean.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Osoko bilkura

Iruñean, Nafarroako Gobernuaren egoitzan

2019ko otsailaren 22an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oihartzabal, Beñat
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso eta Osa, Erramun,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Jose Irazu “B. Atxaga” eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra 2019ko otsailaren 22an, os-tiralean, egin da Iruñean, Nafarroako Gobernuaren egoitzan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririko-
en zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, otsaileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Hasteko, E. Osa idazkariordeak argibideak eman ditu, 12:30ean, Tronu Aretoan, Uxue Barkos lehendakaria buru dela egingo den ekitaldiari buruz.

1. Osoko bilkurako (2019-01-25) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharren bat egin nahi den galdetu du. P. Zabaleta euskaltzainak proposatu du 2. orrialdean, bai eta aurreko Osoko bilkuran aurkezturiko txostenean (Santutegiko izen ohikoenak), hainbatetan, ageri diren santu- eta santa-izenen ordeztu, ahal den guztietan, santuen erabiltzea. Eginiko proposamena ondo ikusi da Osoko bilkuran.

Bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2019ko urtarilaren 25eko bilera-agiria onartu da.

2. Onomastika: 66. araua (Santutegiko izen ohikoenak). Araua zuzentzeko, osatzeko eta emendatzeko proposamena. Jasotako oharra aztertu eta erabaki.

A. Iñigok eta P. Zabaletak aurkeztu dituzte oharra. Onomastika batzordeak, oharra aztertuta, idatzizko erantzuna prestatu du, eta banatu. A. Mujika Onomastika batzordeko idazkariak eman ditu azalpenak.

A. Iñigok bere iradokizunean azaldu du EODAn dauden zenbait izenen grafia ez datorrela bat 66. arauan ageri denarekin. Batzordeak erantzun du egia dela hori, EODA ez baitzen diseinatu araua dena eta ez dena bereizteko. Pertsona-izendegia berregiteko eta berrantolatzearen plan bat bada abian Onomastika batzordean, eta, besteak beste, arazo hori ere kontuan hartu beharko du batzordeak, eta irtenbide bat proposatu. Onartu egin da.

A. Iñigok, bigarren iradokizunean, adierazi du “Rudesindo edo Rosendo” ageri dela sarrera batean, hots, gaztelaniaz soilik erabiltzen den *Rosendo* formari ere eman

zaiola sarrera euskal izen gisa. Eta, aldiz, “Onufrio” aukera bakar gisa ageri dela, eta ematen duela irizpide bera aplikatuz “Onufrio edo Onofre” ere eman beharko litzatekeela. Batzordeak, erantzunean, adierazi du arrazoi duela A. Inñigok aipatu duenean desberdin jokatu dela bi kasu horietan. Onufrioren kasuan, jatorrizkora jo eta latinezko *Onufrius* formatik *Onufrio* hobetsi zuen Onomastika batzordeak, irizpidea baita jatorrizkora jotzea gaztelaniazko formak eta frantsesezkoak bat ez datozenean. Horregatik, Onufrio formari eustea proposatzen du. Beste kasuari buruz, datu gehiago eskuratu eta aztertu ondoren (banatutako erantzunean ageri dira datuak), proposatzen du “Rudesindo edo Rosendo” dagoen tokian “Rudesindo” bakarrik jartzea, grafia hori bat baitator latinetik abiatuta lortzen den grafia-rekin. Hala, irizpide bera aplikatuko da bi kasuetan: *Onufrio* eta *Rudesindo*. Eta, bestalde, gaztelaniazko ordaina Rosendo bakarrik izan beharrean, gaztelaniaz “Rosendo edo Rudesindo” jartzea, forma zaharkitua ere jasotzearren. Onartu egin da.

P. Zabaletak, lehenengo oharrean, santu-santak erabili beharrean santuak erabiltzea proposatu du, baldin eta santu-santak ezinbestekoa ez bada. Batzordeak erantzun du ez dela ezinbestekoa, biak direla zuzenak, eta santu-santak moldeak tradizioa duela hala ekialdeko nola mendebaldeko euskaran. Eta, biak zuzenak izanik, Osoko bilkuraren esku utzi du erabakia. Osoko bilkurak, eztabaidatu ondoren, hau erabaki du: *santu-santak* forma uztea arauan, baina forma hori testuan agertzen den lehen aldian oin-ohar bat jartzea *santu* ere erabil daitekeela jakinarazteko.

P. Zabaletaren bigarren oharra ez dagokio aruari: izenen generoari buruzko gogoeta orokor bat da, eta izen epizenoen gaia lantzea eskatzen du. Pertsona-izendegia aztertzean kontuan hartu beharko da, baina gai hori ez dagokio santutegiko aruari, arauan agertzen diren izenak pertsona jakinei baitagozkie.

P. Zabaletaren hirugarren oharrean, zenbait gai ageri dira. Santutegiko aruari dagokionez, <Donibaneke sua, jaia> puntua aztertu da. Batzordeak argitu du hobespena kentzea proposatzen duela batzordeak, ez besterik; alegia, ez du proposatzen Donibane sua, Donibane jaia gaitzestea edo baztertzea, baizik eta ez lehenestea, eta San Joan sua, San Joan jaia formen maila berean jartzea. Hala onartu da.

Horrenbestez, gorago aipatutako moldaketak eginda, onartu egin da 66. arauaren bertsio berria. Amaitzeko, *Sixto/Sisto* grafiaren puntua aztertu da. Onomastika batzordeak *Sisto* arautzea proposatu du, *Kalisto* arautuaren grafiarekin eta maileguzko hitzen erabaki orokorrarekin (maileguetan kontsonante aurreko x letra s

bihurtzea, hala nola *testu*) bat etorrazteko. Osoko bilkurak egoki deritzo aldaketari, baina *Euskaltzaindiaren Hiztegia* *sixtino* sarrera ageri dela eta, M. Urkiak eta A. Sagarnak eskatu dute denbora ematea aztertzeko eta 2019ko lehen sei hilekoan hiztegia egin beharreko berritze-lanetan sartzeko. Onartu egin da, eta, ondorioz, puntu hori erabaki gabe gelditu da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (X). Informazio osagarria eman.

Urtarrileko Osoko bilkuran *gailera* / *galleta* formei buruzko informazio osagarria eskatu zen, eta datu eguneratuekin txostena aurkeztu dute Batzorde Ahaldunduko arduradunak eta idazkariak, A. Sagarnak eta M. Urkiak, hurrenez hurren. ETCri buruzko datuak falta direla aipatu du M. Azkaratek eta hurrengo bilerara ekarriko dutela agindu du idazkariak. Horrela, oharrak egiteko epea zabaldu da, martxoaren 18a arte.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XII). Jasotako oharrak aztertu eta erabaki.

Urtarrileko Osoko bilkuran aurkeztutako zerrendari M. Azkarate eta X. Videgain euskaltzainek egin dizkiote oharrak, eta guztiak eztabaidatu dira bileran. Gehienak bere horretan onartu dira, baina izan dira aldatzeko eskatu eta onartu diren batzuk: *finantzatu* sarrerako definizioa aldatzeko eskatu dute bileran, “Jarduera edo enpresa bat abian jartzeko edo aurrera eramateko dirua eman”en ordez “Jarduera edo enpresa bat abian jartzeko edo aurrera eramateko baliabideak jarri” eta “Ik. diruztatu” jartzeko eskatuta. *diruztatu* sarrerakoa ere aldatu egingo da: “finantzatu”ren lekuan “diruz hornitu” jasoko da. *hil* sarreran 5. adiera gehitzeko eskatu du ohargile batek, eta hala onartu da.

Urtarrileko bileran eztabaidatutako bi formaren ingurukoa ere erabaki gabe geratu da otsaileko bileran: *hiri* eta *hiribildu*. *Hiri* sarreran adiera historikoa bilduko duena sartzeko eskatu da. P. Zabaletak definizioa zehaztu beharra adierazi du. *hiribildu* sarrerako definizioan “Erdi Aroan”en ordez “Erdi Arotik” jasotzeko eskatu da eta definizioaren bigarren zatia erekin adiera berria osatuko da, definizio generikoagoa emanda, aipamen geografikoak eta pribilegio-kontuak aipatu gabe, horiek adibide

batean biltzea aski izan daiteke-eta ("Bizkaiko hiribilduak eta elizateak" moduko adibideren bat aski izan liteke). A. Urrutiak bidaliko du definizio-proposamena.

Urtarrileko bilkuran eztabaidaturiko bi formei buruzko definizioak hurrengo Osoko bilkuran aurkeztuko dira.

5. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahal- dunduaren oharra (XIII). Aurkeztu.

Zerrenda berria aurkeztu du Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Azkarate eta A. Iñigo euskaltzainek egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Horrela, oharra egiteko epea zabaldu da, martxoaren 18a arte.

6. Esku artekoak.

6.1. Jon Lopategi ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. Ohorezko euskaltzaina otsailaren 7an hil da. Muxikan (Bizkaia) jaio zen, 1934ko martxoaren 4an. Filosofia ikasketak egin zituen, Tolosako Sakramentinoen apaizgaitegian (Gipuzkoa). 1958an kantatu zuen lehenengoz plazan, Gernika-Lumon (Bizkaia), eta frankismoaren azken urteetan hasi zen nabarmentzen bertsolari gisa. Jon Azpillagarekin batera, aitzindari izan zen diktadura garaian gai sozialak lantzen. Behin baino gehiagotan espetxeratu zuten, kantatu zituen bertsoengatik.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian gailendu zen, 1989an; eta txapel-dunorde izan zen 1982an eta 1986an. Horrez gain, Bizkaiko lau txapelketa irabazi zituen: 1962an, 1964an, 1966an eta 1987an. Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen, 2004ko azaroaren 26an.

Hilberri txostena Xabier Amuriza ohorezko euskaltzainak prestatzea proposatu du Zuzendaritzak. Osoko bilkurak proposamena berrestea erabaki du.

6.2. Alan Roy King euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri. Alan Roy King itzultzailea eta euskaltzain urgazlea zendu da, 64 urte zituela. Lytham St Annes-en

(Inglaterra, Erresuma Batua) jaio zen, 1954ko urriaren 24an, eta Hizkuntzalari-ritzako doktorea zen (Londresko Unibertsitatea). Gramatika batzordeko kide 1985etik, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 2003ko urtarrilaren 31n.

Hilberri txostena Miren Azkarate euskaltzain osoak prestatzea proposatu du Zuzendaritzak. Osoko bilkurak proposamena berrestea erabaki du.

6.3. Euskaltzaindiaren Mendeurrena. Herri Irratia, Radio Nervi3n eta Telebilbao hedabideekin lankidetzaz hitzarmen bana egin da. Euskaltzaindiak antolatutako ekitaldi instituzionalen, nazioarteko jardunaldi akademikoen, ekintza artistiko-kulturalen eta bestelako ekintzen zabalkundean eta publizitatean gauzatuko da lankidetzaz. Jadanik, 27 hedabideekin egin dira hitzarmenak.

6.4. Euskadi Literatura Sariak. Literatura itzulpena. Zuzendaritzan erabaki da Paskual Rekalde euskaltzain urgazlea eta itzultzailea epaimahaiko izateko proposatzea, 2019ko otsailaren 5ean eginiko bilkuran. Osoko bilkurak proposamena berrestea erabaki du.

6.5. Hurrengo bilkurak.

Auxtin Zamora eta Henri Duhau ohorezko euskaltzainei omenaldia Senperen, martxoaren 2an, 17:00etatik aitzina. Ekitaldia Senpereko Herriko Etxeak eta Euskaltzaindiak lankidetzan landu dute. Egitaraua X. Videgain buruordeak azaldu du.

Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren barruan, “Euskara Ibiltaria” erakusketa berritua aurkeztuko da Bilbon, martxoaren 13an. Martxoaren 14 eta 15ean Euskaltzaindiaren II. Dialektologia Biltzarra egingo da Bilbon, Euskal Museoan. Era berean, martxoaren 15ean, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* 10. liburukia aurkeztuko da, leku berean. Egitaraua banatu eta azalpenak eman ditu A. Arejita Iker sailburuak eta egitasmoaren zuzendariak.

Hurrengo Osoko bilkura martxoaren 30ean, larunbatean, egingo da Aretxabaletan, Arkupe kultur etxean, goizeko 10:00etan. 12:00etan, M. Urkia euskaltzainaren sarrera-hitzaldia dela eta, Ageriko bilkura egingo da Arkupe kultur etxearen aretoan.

7. Azken ordukoak.

P. Zabaletak proposatu du Euskaltzaindiak Euskal Idazleen Elkartearekin lankidetza-hitzarmena izenpetu dezan. Proposamena ondo ikusi da. Lankidetza-hitzarmena ontzeko urratsak ematen hasiko dela aditzera eman du Zuzendaritzak.

M. L. Oñederra Ahoskera batzordeko buruak berriki, Gasteizen, “Eta ahoskera zer?” goiburupean eginiko jardunaldiei buruz hitz egin du. Jardunaldia oso ondo joan zela eta asistentzia ona ere izan zuela aditzera eman du.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:15 direnean.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Osoko bilkura

Aretxabaletan, Arkupe kultur etxean

2019ko martxoaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
González de Viñaspre, Roberto,
Kaltzakorta, Jabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun, zegozkion gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Andres Iñigo, Jose Irazu “B. Atxaga”, Patxi Salaberri eta Patxi Zabaleta.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Andres Iñigok ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Miriam Urkiak ahala Andoni Sagarnari (iritsi bitartean); Patxi Zabaletak ahala Sagrario Alemani.

1. Osoko bilkurako (2019-02-22) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

P. Zabaletak 3. orrialdeko azken paragrafoko “... prestatuko du definizio-proposamena” esaldia, “... definizioa zehaztu beharra adierazi du” esaldiagatik ordezkatzeari proposatu du. Eginiko proposamena ondo ikusi da Osoko bilkuran.

A. Urrutiak bestelako oharrrik egin nahi den galdetuta, Miren Lourdes Oñederrak zuzenketa bat proposatu du agiriaren 2. puntuan, baina ez da onartu. Bestelako oharrrik ez da egin. Ondorioz, 2019ko urtarrila ren 25eko bilera-agiria onartu da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (X). Jasotako oharrak aztertu eta erabaki.

Otsaileko Osoko bilkuran martxoaren 18 arte zabaldu zen *gaileta/galleta* formei buruzko oharrak egiteko epea. Epe horren barruan M. Azkaratek bi formen erabilerari buruzko datuak jasotzen dituen txosten bat aurkeztu du. Ondorio gisa dio badirudiela *gaileta* forma hartu dela “jakia” adierako forma batutzat.

Batzorde Ahaldunduaren arduradunak datu horiek osatzen eta argitzen dituen txostena aurkeztu du, *gaileta/galleta* formen erabileraren datuek parekotasun handia izan dutela erakusteko. Erabilerari hori *gaileta* “ontzia” adierarentzat Hiztegi Batuan bere garaian hartu zen erabakiak sortutako nahastea eta *Euskaltzaindiaren Hiztegi*an gaztelaniazko – ll -dun mailegu gehienek orain arte izan duten trataera kontuan izanda, “jakia” adierarentzat *galleta* forma onartzea proposatu du.

Aukera biei buruzko iritziak entzunda, A. Urrutia euskaltzainburuak gaia botoetara eraman nahi den galdetu du, hala egin dadin erabaki da. Botazioaren emaitza honako hau izan da: *galleta* formaren alde 16 boto, *gaileta* formaren alde 4 boto eta 2 boto zuri.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XII). Jasotako oharrak aztertu eta erabaki.

Otsaileko Osoko bilkuran esandakoari segida emanez, P. Zabaletak *hiri* sarre-raren 2. adierarako definizio-proposamena bidali du: *Historian zehar herri batzuei eman izan zaaien titulua*. Ontzat eman da definizio hori. Definizioarekin batera bidali duen adibidea corpusetako testuetatik jasotako adibide batez ordezkatzeara erabaki da.

hiri sarre-ran 5. adiera bat gehitzea ere proposatu du P. Zabaletak: *Erromak eta*

erromatarrek beren hiriari ematen zioten izenburua. Latinez urbs, urbis izenak adiera hori baduen arren, euskaraz hiri hitzaren adiera horren lekukotasunik ez dagoenez, proposamena ez onartzea erabaki da.

Otsailean erabaki gabe geratu zen *hiribildu* sarreraren definizio-proposamena aurkeztu du A. Urrutiak: *Erdi Aroan agintariekin emaniko arau berezi batzuen bidez sorturiko herri edo hiriak. Erdi Aroan dioten lekuan Historian zehar eta hiriak dioten lekuan hiria jarritz proposamena onartzea erabaki da.*

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XIII). Jasotako oharrak aztertu eta erabaki.

Otsaileko Osoko bilkuran aurkeztutako zerrendari M. Azkaratek, A. Iñigok eta X. Videgainen egin dizkiote oharrak.

M. Azkarateren ohar batek *protektionista* sarreraren definizioan hitz-ordena bat aldatzea eskatzen zuen. Ontzat eman da proposamena; beste ohar batek, zalantzan jartzen du *tiradizo* sarreraren Gip. marka egokia izatea. Hitz horren erabilera hedatu dela ikusirik, markaren beharra berrikustea erabaki da; *traolhitz* sarrerako marratxodun forma ez litzatekeela sartu behar dioten oharra aurkeztu du. Halaber, X. Videgainen ohar batek zalantzan jarri du *traolhitz* aski ezaguna ote den *Euskaltzaindiaren Hiztegian* sartzeko. Hitza aposizio elkarteak ez dela argiturik geratu denez eta Interneteko erabiltzaileen artean arrakasta izan duenez, bere horretan uztea erabaki da.

A. Iñigoren ohar batek *urte* sarreran bi azpisarrerara gehitzea eskatu du: *ilargi urte*, *ilargi-urte* eta *eliz urte*, *eliz-urte*. Proposamena onartu egin da, erredakzio-taldeak aurkezturiko definizio eta adibideak barne. Beste proposamen batek *urte anitzeta(ra)ko* sarrera gehitzea eskatzen zuen, ahozko erabileran ezaguna delako. Idatzizko lekukotasunak agertu arte, oraingoz, ez sartzeko erabaki da.

5. Esku artekoak.

5.1. Angel Aintziburu ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri eta hilberri txostena. Ohorezko euskaltzaina martxoaren 5ean zendu zen, 89 urte zituela. Luzaiden jaio zen 1930eko uztailaren 3an. Nekazari, kazetari -Irulegiko Irratian (Nafarroa Beherea), Irati Irratian (Aezkoa) eta Euskalerria Irratian (Iruñerria)- eta idazlea. Ohorezko euskaltzain izendatua 2014ko maiatzaren 30ean.

Hilberri txostena Xipri Arbelbide ohorezko euskaltzainak prestatzea erabaki da Zuzendaritzan, 2019ko martxoaren 27an egin bilkuran.

5.2. Elkar Fundazioaren "Ibilbideari saria" Euskaltzaindiari. Sari hori urteetan egindako lana aitortzeko eta txalotzeko eratu zuen Elkar Fundazioak. 2019an sari hori, Euskaltzaindiari eta Eusko Ikaskuntzari ematea erabaki du Elkar Fundazioak. Saria emateko ekitaldia, maiatzaren 9an egingo da, Andoaingo Bastero kulturgunean.

5.3. Euskal Herriko Unibertsitatearen Urrezko Domina Euskaltzaindiari. Urrezko domina jasotzeko ekitaldia urriaren 25ean, ostiralean, egingen da Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean. Horrela, egutegian aldaketa egin behar da: urriaren 25eko Osoko bilkura Leioan, Euskal Herriko Unibertsitatean, eta abenduaren 20ko Osoko bilkura Baionan egingo dira.

5.4. Allande Socarros Onomastika batzordearen aholkulari. Onomastika batzordeak Allande Socarros aholkulari izateko eginiko proposamenari erantzunez, Zuzendaritzak proposamena kontuan hartzea erabaki du, 2019ko martxoaren 13an eginiko bilkuran.

5.5. Hurrengo bilkurak eta ekitaldiak.

Euskaltzaindiaren Mendeurrena. Apirilaren 8an, "Idazkien eta hizkuntzen arteko itzulpena. Eskuizkribuak, inprimakiak, literatura-artxiboak. Euskaltzaindiaren nazioarteko jardunaldia" delakoaren aurkezpena egingo da Bilbon, egoitzan. Egun berean, egitaraua zabaltu eta lo egiteko tokia-eta hartu ahal izateko, mezua igorriko zaie euskaltzainei.

Apirilaren 11n, 2018ko **R. M. Azkue Sariak** emango dira Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan.

Euskararen Historia Soziala egitasmoak sustatuta, apirilaren 15ean, astelehenan, *La Vasconia peninsular en las fuentes árabes* liburuaren aurkezpena egingo da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 11:30ean.

Apirilaren 22an, **Sarako Azoka** egingo da. Bertan, Euskaltzaindiak hiru argitalpen berri aurkeztuko ditu:

- *Euskara Batua eta Ipar Euskal Herria: 1964-2018*. Bilduma: Jagon 19. Prestatzaillea: Jean-Baptiste Coyos.
- *1757ko gutuneriari buruzko osagarriak eta gogoetak «Othoi çato etchera»*. Bilduma: Iker 36. Egilea: Xabier Elozegi.
- *Janpierra Lexardoarteren bizitzea edo Basabürüako trajeria*. Bilduma: Euskaltzainak 28. Egilea: Jakes Sarraillet.

Hurrengo Osoko bilkura maiatzaren 4an, larunbatean, egingo da Trebiñuko udaletxean, goizeko 10etan. Ondorioz, apirilean ez da Osoko bilkurarik egingo. 12:00etan, berriz, Roberto Gonzalez de Viñaspre euskaltzainaren sarrera-hitzaldia dela eta, Ageriko bilkura egingo da, Trebiñuko Done Petri elizan.

6. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 11:30ean.

Euskaltzainburua,

Andres Urrutia

Idazkaria,

Xabier Kintana

Ageriko Bilkura

Miriam Urkia euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia

Aretxabaletan, Arkupe kultur etxean

2019ko martxoaren 30ean

Aretxabaletako Arkupe kultur etxean, 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, Joan Mari Torrealдай euskaltzain osoa emeritu mailara igarotzearen ondorioz, 2018ko otsailaren 23ko Osoko bilkuran euskaltzain oso izendatu zen Miriam Urkiaren sarrera-hitzaldia egin eta dagozkion diploma eta Akademiaren ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste “Battittu” Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Patxi Goe-naga, Roberto González de Viñaspre, Javier Kaltzakorta, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Ana Toledo, Patxi Uribarren eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain ohorezkoak: Paulo Agirrebaltzategi, Luis Baraiazarra, Antonio Cam-pos, Jose Mari Iriondo, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu eta Julen Urkiza.

Euskaltzain urgazleak: Andres Alberdi, Ainhoa Arregi, Izaskun Etxebeste, Patxi Galé, Pruden Gartzia, Iñaki Irazabalbeitia, Jazinto Iturbe, Jesus Mari Makazaga, Elixabete Perez Gaztelu, Paskual Rekalde, Koro Segurola eta Luis Mari Zaldua.

Erramun Osa euskaltzain urgazle eta idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Unai Elkorok Aretxabaletako alkatea, Aretxabaletako eta inguruko herrietako agintariak; unibertsitateetako, elkarteetako, erakundeetako eta hedabideetako kideak.

Jon Etxabe Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea (UZEI) elkartearen lehendakaria, Imanol Urbietakudeatzailea eta UZEIko langileak.

Ibon Usarralde Euskaltzaindikoko Egitasmoen bateragilea eta Manu Gañan Idazkaritzako teknikaria.

Miriam Urkia euskaltzainaren senideak eta lagunak.

Herriko txistularien doinuarekin eta txalapartaren soinuarekin eman zaio hasiera ekitaldiari. Jarraian, Erramun Osa Euskaltzaindikoko idazkariordeak ongi etorria eman die hurreratu diren guztiei, bai eta ekitaldiaren nondik norakoak azaldu ere. Era berean, Euskaltzaindikoko Barne-erregielek sarrera-hitzaldiaz diotena irakurri du. Idazkariordearen hitzen ostean, Unai Elkorok Aretxabaletako alkateak halako ekitaldi bat Aretxabaletan egiteagatik poza agertu du eta zorionak eman dizkio Miriam Urkia euskaltzainari.

Andres Urrutia euskaltzainburuak agur laburra egin du, besteak beste, ekitaldiaren garrantzia azpimarratuz. Ondoren Sagrario Aleman eta Jabier Kaltzakorta deitu ditu —Miriam Urkia hautagaitzat aurkeztu zuenetariko bat eta azken sarrera-hitzaldia egin duen euskaltzain osoa, hurrenez hurren—, eta euskaltzain berriaren bila joan daitezen eskatu die.

Bi euskaltzainek lagunduta sartu da batzar aretora Miriam Urkia “Hiztegitik kofradiara” izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzeko. Erantzuna Andoni Sagarna euskaltzainak eman dio *Badator aire freskoa* hitzaldia irakurritz.

Joan Mari Torrealdaik gogoratuz hasi du “Hiztegitik kofradiara” mintzaldia Urkiak, eta esan du Torrealdaik ordezkatu bainoago 29. aulkia berarekin partekatzen duela: “Joan Mari euskalgintzako arlo askotan ikusi izan dugu bere onena ematen beti, 2003an bere onen hori kentzen saiatu baziren ere. Halako itzala duen Torrealdaik handiaren ondoan, beraz, ulertuko duzue txiki eta, Sarrionandiak behinola esan zuen moduan, soinean gabardina handiegia banerama bezala sentitzea. Errespetua, esker ona eta miresmena besterik ez ditut Joan Marirentzat, eta 29. aulkia berarekin partekatzeko ohorea”. Aretxabaletako ikastolaren 50 urteak ere gogoan

izan ditu euskaltzain berriak, “bai, ikastolakumea naiz” aitortuz, harrotasun puntu batekin.

Ondoren, hiztegi-kontuak eta kofradia kontzeptua izan ditu mintzagai Urkiak, “euskara ehuntzeko saregileak eta sare-konpontzaileak beharko ditugulako”. Euskarazko hiztegien historia errepasatu du aretxabaletarrak, eta aitzindarien artean Seber Altube arrasatearra eta bere “Erderatiko-itzak, itz-barriak eta aintxiña-itzak” txostena aipatu ditu. Arantzazuko biltzarra ere ez du ahaztu (“Batasunerako hiztegia atera baitzen, 625 forma, baina garai hartarako lorpen handia”), Euskaltzaindiaren Hiztegitzintza batzordearen sorrera (1981) eta batzordearen lanak eta buru-haustek 80ko hamarkadan; Mikel Zalbidek 1991n proposatutako 10.000-20.000 hitz inguruko ortografia-hiztegia; Sarako biltzarrean batzordeak landutako “Hiztegi batua: lanketa- eta onespen-prozedurak” dokumentua; eta 2000. urtean, bederatzi urteren buruan argia ikusi zuen *Hiztegi Batua*, 20.000 forma biltzen zituen hiztegia. “2000. urterako zehaztu zituen Euskaltzaindiak hiztegia bera osatzeko irizpideak ere, makroegitura eta mikroegitura, garaiko estandarrak kontuan hartuta”, azpimarratu du Urkiak, aitzindarien itzala gomutan: “Berandu hartu genuen lexikografia modernoaren trena, baina iritsi ginen, eta ez genuen eserleku txarra hartu gainera. Baina, hori guztia, aurretik oinarriak ezarri zituztenei zor diegu, treneko errailak prest utzi zituzten-eta, baita abiadura handikoa hartzeko ere”.

“Honaino iritsita, 46.000 formatik gorako euskal hiztegi arauemailea adieraz eta adibidez hornitua izatea ez da hutsala, horretarako ia ehun urte behar izan baditugu ere, baina honek ez du etenik”, aurreratu du euskaltzain osoak. “*Euskaltzaindiaren Hiztegia* aitzindaria da hiztegia osatzeko baliatu dituen oinarriak gardentasunez erakusten -adierazi du-. Hor ditugu, hiztegiko sarrera bakoitzaren ondoan, horretarako oinarri izan dituen *Orotariko Euskal Hiztegia*, *XX. mendeko Euskararen Corpusa* eta *Lexikoaren Behatokia*, euskal tradizioa eta egungoa islatzen dutenak. Baina ez hori bakarrik: hiztegiko formak erabakitzeke baliatu dituen irizpideak, izandako eztabaidak eta erabakiak ere biltzen ditu *Hiztegi Batu Oinarriak*”.

Hau guztia elkarlanaren fruitua dela esan du, beste behin, Aretxabaletako euskaltzainak: “Saregilez josia dago Euskaltzaindia: zein bere aldetik bere sarea ehuntzen, hau da, arautzen. Armiarma-sare handi bat osa dezakegu IKER sailekoen artean. Eta, horrekin batera, ez ditzagun JAGON saileko lagunak ahaztu, sare-konpontzaileak, sareak oraindik erabat bukatu gabe ditugu-eta”. Horren haritik, bere ametsa partekatu du entzuleekin euskaltzain osoak: “Kofradia bat da ames-

ten dudana, saregileak eta sare-konpontzaileak batuko dituen. Eta izan badugu Euskaltzaindia, baina guztiak modu finean saretzea besterik ez da falta, hau da, koordinatzea”.

Eta zertarako delako kofradia? Bada, zerbitzu azkarra eta zorrotza emateko: “Ez dezagun ahaztu gure Akademiaren helburua zerbitzua eskaintzea dela, baina XXI. mendean gaude eta berehalako zerbitzua ere beharrezkoa da, benetako beharrei erantzun nahi badiegu behintzat. Sare-konpontzaileek prestatu beharko dute berehalako eta behin-behineko erantzuna, ondoren saregileek behin betiko lana burutu dezaten, luzamendutan ibili gabe. Honela, zintzo eta azkar erantzun ahal izango diogu txantxetan esan izan den ‘Zalantza non, Euskaltzaindia han’ horri”.

Urkiak 2016ko jauzia aipatu du, Hiztegiak paperetik sarerako jauzia egin zueneko, baina berak uste du gehiago aurreratu daitekeela: “Teknologia berriak eskura ditugu, horiek geure zerbitzura daude eta baliatu egin behar ditugu. Hizkuntza-teknologien aroan erabat murgildu beharra dauka Akademiak aurrera egingo badu. Eta dituen baliabide guztiekin, zer ez luke egingo!”.

Ohartu du euskal gizartea goitik behera aldatu dela, eta, horrekin batera, hiztegiak egiteko modua bera: “Egin dezagun urrats bat aurrera eta presta dezagun egungo eta biharko beharrei erantzungo dien eduki integrala: baliabide teknologiko berrietan oinarritutako edukiak, askotarikoak. Hiztegi ortografikotik abiatu ginen, adieraz eta adibidez hornitu genuen, XXI. mendera ekarri dugu. Zergatik ez guztia integratu?”. “Hizkuntzalaritza aplikatuaren garaian gaude –gogoratu du Urkiak–, eta ezin dugu tren hori galdu, honetan ere hizkuntza galduko ez bada, egungo arriskua heriotza digitala baita”.

Miriam Urkiaren mintzaldiaren ostean, hitza Andoni Sagarna euskaltzainak hartu du. Horren erantzuna ere argigarria izan da, eta egokia iruditu zaio bere berbaldian Euskaltzaindiarekin era bateko edo besteko harremanak izan dituzten “merezimendu handiko” emakumezkoak aipatzea, “garai batean eta orain Euskaltzaindiari ekarpenak egin dizkioten emakumeen gorazarrez”. Eta aletu ditu Julia Fernandez-Zabaleta, Julene Azpeitia, Julita Berrojalbiz, Robustene Mujika *Tene*, Madeleine Jauregiberri, Marie Jeanne Minaberri, Karmele Esnal edo Karmele Roataetxe bezalako euskaltzaleek eginiko esfortzuak eta balentriak.

Sagarnak esan du Euskaltzaindian ere aldatu dela garai bateko joera: azken 15 urtean, 14 euskaltzain oso berri izendatu dira, horietatik 5 emakumezko. Eta

bide horretatik jarraitu behar dela adierazi du. “Aurrera begira, bidezkoa litzateke emakumeen kopurua gizonezkoenarekin berdintzen joatea. Ez bakarrik, gainera, justiziazkoa delako, baita beharrezkoa eta naturala delako ere emakumeentzat eta gizonezkoentzat. Horretarako gauza bakarra egin behar dugu: oztopoak kentzea, batez ere gure burmuinetan sakon txertatuak ditugunak, eta ateak zabaltzea”, adierazi du donostiarrak.

Miriam Urkiaren ibilbide profesionala ere aztertu du Sagarnak, bere ondoan bizi izandako uneak eta esperientziak ahaztu gabe.

Hitzaldiak amaitu ostean, eta euskaltzain berriak Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela hitza eman ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoen domina jantzi eta diploma eman dio Miriam Urkiari.

Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak hartu du hitza. Hasteko, M. Urkia euskaltzain oso berriari zorionak eman dizkio. Era berean, halako izendapenak, oho-reaz haratago, lan egiteko gonbita direla aditzera eman du. Izan ere, euskararen biziberritzeak, euskara eremu guztietarako gaitzeko ahaleginak, askotarikoen arteko lan erkidea eskatzen du. Horrela, Euskaltzaindiaren Mendeurrena hizpide hartuz, iraganean egin zituztenak gogoratu ditu, bai eta azpimarratu ere euskararen aldeko langintzak ez duela amaierarik eta arian-arian egin behar dela haren alde, haren aldeko engaiamendua berrituz.

Ekitaldi akademikoa amaitutzat emanez, opari eta oroigarrien unea heldu da. Hala, Unai Elkoro alkateak, Udalaren izenean, eta Jon Etxabek, UZEIren izenean, opari bana eman diote M. Urkiari.

Ostean, Herriko Plazan ohorezko aureskua dantzatu eta argazkiak atera dira. Segidan, Aretxabaletako Udalak hurreratu diren guztiei ahogozagarria eskaini die, ekitaldiari amaiera emanez, 13:30ean

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Osoko bilkura

Trebiñun, udaletxean

2019ko maiatzaren 4an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Goenaga, Patxi,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso eta Osa, Erramun,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Miren Azkarate, Jose Irazu “B. Atxaga”, Joseba Lakarra, Beñat Oihartzabal eta Andoni Sagarna.

Ahalak: Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari (etorri birtartean); Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari.

Batzarra 2019ko maiatzaren 4an, larunbatean, egin da Trebiñun, udaletxean.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririko zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, maiatzeko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Hasteko, E. Osa idazkariordeak argibideak eman ditu, 12:00etan, Trebiñuko Done Petri elizan, Roberto Gon-

zález de Viñaspre euskaltzainaren sarrera-hitzaldiaren inguruabarrean egingo den Ageriko bilkurari buruz.

1. Osoko bilkurako (2019-03-30) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

A. Iñigok aurreko bilkurara hurreratzeko modurik izan ez bazuen ere, bilkura horretan onartutako hiribildu eta hiri hitzen definizioak direla eta, oharra aurkeztu du. Bere ustez, definizio horiek ahalik eta argien zehaztu beharko lirateke, izan ohi diren nahasketak saihesteko. Hori dela eta, bilera-agiriaren 2. orrialdeko 3. puntuaren hirugarren paragrafoaren azken esaldiari iruzkina egin dio, dagoenaren ordezkotik gisa: “Historian zehar agintariek emaniko arau berezi batzuen bidez herri batzuei eman izan zaien titulua, hiri bati emandakoa baino baxuagoa dena”. Halaber, hiri sarreren bigarren definizioari osagarri hau gehitzea ere proposatu du: hiribildu bati emandakoa baino altuagoa dena.

Iritzi desberdinak egon dira eginiko proposamenari buruz. Azkenean, bilera-agiria ez aldatzearekin batera A. Iñigoren oharra lantaldeak aztertzea erabaki da eta lantaldeak egiten duen proposamena hurrengo bilkurara ekartzea.

A. Urrutia euskaltzainburuak bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, Miren Lourdes Oñederrak zuzenketa bat proposatu du agiriaren 2. puntuan, baina ez da onartu. Bestelako oharrik ez da egin. Ondorioz, 2019ko martxoaren 30eko bilera-agiria onarturik gelditu da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XIV). Jasotako oharra aztertu eta erabaki.

Zerrenda berria aurkeztu dute Batzorde Ahaldunduko arduradunak eta idazkariak, Andoni Sagarnak eta Miriam Urkiak, hurrenez hurren. Aurkeztutako idatziak A. Iñigok, P. Zabaletak eta M. Azkaratek eginiko oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen ditu.

Eztabaida sortu dute hiru formak. *buruari eman*, idatzizko testuetan dokumentatua ez badago ere, oso arrunta da Nafarroan, eta sartzeko eskatu da. *epaitza* forma

dela eta, hau ere Nafarroan oso arrunta dela eta sartzea komeni dela aipatu da, euskal testuetan jaso gabe badago ere. Eta forma honen Zuzenbideko adiera berrikusteko eskatu da. Azkenik, *ermita* sarrerako definizioa hobeki zehaztu beharra aipatu da.

Aurkezpenaren ondoren, oharra egiteko ekainaren 10a arteko epea zabaldu da.

3. Exonomastika. Antzinateko artelaren izenak (II): Erromatar Inperioaren garaiko artelaren izenak. Aurkeztu.

Alfontso Mujika Exonomastika batzordeko idazkariak aurkeztu du araugaia. Antzinateko artelaren izenen bigarren parte da, eta Erromatar Inperioaren garaiko artelan nabarmenenak biltzen ditu, 50 inguru. Horietaz gainera, Egiptoko eta Greziako lau artelaren izenak ere aurkeztu ditu, berez jada onartua dagoen 1. parteari gehitzeko direnak.

Izenak eratzeko irizpideak jada onartua dagoen 1. partean emandako berak dira. Ez dago, beraz, alde horretatik ezer berririk. Kasu zehatzei dagokienez, hauek aipatu ditu:

- Gontzaga kameua eta Frantziako Kameu Handia artelan-izenetan kameu hitza ageri da, eta hitz hori ez da sarrera Euskaltzaindiaren Hiztegian, baina nazioarteko hitza da, eta euskaraz erabili da dagoeneko zenbait liburuan (aurkezturiko txostenean datuak jaso dira).
- Karakalaren termak delako arkitektura-lana Karakala enperadorearen garaian eraiki zen. Horregatik, edutezko genitiboa dagokio (noren). Euskaltzaindiaren Hiztegiko terma sarreran Caracallako termetan adibidea ageri da. Batetik, Karakala izena ere arautua dago (76. araua), eta, bestetik, ez dirudi leku-genitiboa (nongo) kasu horretan egokia denik. Horregatik, Exonomastika batzordeak uste du komeni dela adibide hori Karakalaren termak moldean jartzea.
- Borghese kratera artelan-izenean kratera hitza ageri da, eta hitz hori ez da sarrera Euskaltzaindiaren Hiztegian, baina nazioarteko hitza da (ikus datuak txostenean).

- Erdal *le pont Julien* / *el puente Juliano* artelan-izena euskaraz emateko, aukera bat baino gehiago dago. Zubiaren izenaren jatorria latinezko *Apta Julia* izena da, hori baitzen zubitik gertu dagoen *Apt* hiriaren hasierako izena. Hiria Julio Zesarrek fundatu zuen, eta hortik *Julia*. Exonomastika batzordeak hiru aukera aurkeztu dizkio Osoko bilkurari, erabakitzeko: *Gardeko akueduktua* proposatu den modu bertsuan, *Juliako zubia* egin liteke, (*Apta*) *Julia* baitzen hiriaren izena. Bestela, *-ar* atzizkia erabili nahi izanez gero, *Julio* pertsona-izenari aplikatuta, *Juliotar zubia* litzateke. Azkenik, balegoke *Juliar zubia* aukera ere, baina ez dirudi oso egokia *-ar* atzizkia leku-izenari ezartzea.
- *Hadrianoren villa* artelan-izenean *villa* hitza ageri da, eta hitz hori ez da sarre-ra Euskaltzaindiaren *Hiztegian*, baina arkeologiako terminoa da (aurkezturiko txostenean datuak jaso dira).
- *Zirku Maximoa* artelan-izenean *maximo* izena ageri da, eta hitz hori Euskaltzaindiaren *Hiztegian* sarrera da, baina kategoriaz izena da, eta matematikako adiera besterik ez da ageri. Euskaltermen eta Elhuyar hiztegian, bada izenondoa ere. Eta corpusek erakusten dute izenondo gisa ere asko erabiltzen dela. *Zirku Nagusia* edo *Zirku Handiena* jarritz gero, galdu egingo litzateke “kolorea”. Horregatik proposatzen du batzordeak *Maximoa* jartzea.
- *Veronako Arena* edo *Veronako anfiteatroa* artelan-izenean *Arena* letra larriz idaztea proposatzen da, euskaraz dirudienez ez baita erabiltzen (oraindik, behintzat) anfiteatro edo ikuskizunetarako eraikinaren sinonimotzat (gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, bai). Bestela, izen arrunt gisa erabiltzen bada, hiztegian jaso behar litzateke eta letra xehez idatzi.
- *Basilika zisterna* artelan-izenean *zisterna* hitza ageri da, eta hitz hori ez da sarre-ra Euskaltzaindiaren *Hiztegian*, baina nazioarteko hitza da, eta corpusetan eta hiztegietan erabiltzen da. Horregatik, *zisterna* proposatu du batzordeak. Bestela, *biltegi* edo *ur-biltegi* erabili behar litzateke, baina termino horiek polisemikoagoak dira.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da ekainaren 10a arte.

4. Esku artekoak.

4.1. Txomin Solabarrieta ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. 91 urte zituela zendu da Solabarrieta, Begoñan (Bilbon). Ondarroan (Bizkaia) jaio zen, 1927an. Abade egin ondoren, euskararen sustatzailea izan zen Solabarrieta Bizkai-ko parroketan, eta elizbarrutiko itzultzaile ofiziala ere bai. Adorez taldeko kide gisa, hamabost hiztegiren argitalpenean parte hartu zuen. Halaber, aparteko lana egin zuen ondarroarrak itsas munduko lexikoa taxutzen, sinonimoak aukeratzen nahiz egokitzen, eta, batez ere, Aditz Hiztegitako milaka esaldi prestatzen. Ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak 2018ko apirilaren 27an.

Hilberri-txostena Luis Baraiazarra ohorezko euskaltzainak paratuko du.

4.2 Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko Biltzar Nagusia. Maiatzaren 2an egin zen Hazparden, Eihartzea kulturgunean. Bertan urteko bilana, 2018. urteko aurrekontuaren itxiera eta 2019ko aurrekontua aurkeztu eta onartu ziren.

4.3. Eusko Jaurlaritzaren EIMA egitasmoko Isabel Arrigain Euskara Batuaren Eskuliburuko batzordekide. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren eta Euskaltzaindiaren artean izenpeturiko lanikidetzak-hitzarmenaren ondorioz, Zuzendaritzak Isabel Arrigain EBeko batzordeko kidea izatea erabaki du.

Osoko bilkura jakitun geratu da.

4.4. Aldaketak egutegian. 2018ko azaroaren 16an, XXIV. Jagon jardunaldia Iruñean egitea erabaki bazen ere, Sustapen batzordeak erabaki du jardunaldi hori Bilbon, azaroaren 14 eta 15ean (ostegun eta ostiralean) egitea.

Jorratuko den gaia: euskara eta lan mundua.

4.5. Hurrengo bilkurak eta ekitaldiak.

Koldo Mitxelena Sariak. Sariak emateko ekitaldia maiatzaren 8an egingen da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Bertan parte hartuko dute, besteak beste, A. Urrutia euskaltzainburuak eta Nekane Balluerka EHUKo errektoreak.

Saridunak, berriz, ondokoak dira:

- Asier López Eiguren (Zientziak).
- Olatz Pérez de Viñaspre Garralda (Ingeniaritza eta Arkitektura).
- Mikele Macho Aizpurua (Osasun Zientziak).

- Juan Mari Aguirreurreta Elosegui (Gizarte eta Lege Zientziak).
- Miren Ibarluzea Santisteban (Artea eta Giza Zientziak).

Elkar Fundazioaren "Ibilbideari" saria Euskaltzaindiari. Saria emateko ekitaldia maiatzaren 9an egingo da, Andoaingo Bastero kulturgunean. Joan nahi duenak izena ematea komeni da.

Euskaltzaindiaren Mendeurrena. Maiatzaren 16an eta 17an, "Idazkien eta hizkuntzen arteko itzulpena. Eskuizkribuak, inprimakiak, literatura-artxiboak. Euskaltzaindiaren nazioarteko jardunaldia" egingo da. Behin betiko egitaraua aurkeztu ondoren, hurreratu eta ostatua behar duten euskaltzainen zerrenda osatu da.

Hurrengo Osoko bilkura Baionan egingo da, Herriko Etxean, ekainaren 28an, ostiralean, 10:00etan.

5. Azken ordukoak.

Patxi Zabaleta euskaltzainak 2019ko Coppieters saria jasoko du, bide demokrati-koen eta baketsuen alde eginiko langintzan erakutsiriko lidergoa azpimarratzeko asmoz. Saria udazkenean jasoko du Bruselan egingo den ekitaldi batean. Osoko bilkurak aipaturiko saria jasotzeagatik zorionak eman dizkio P. Zabaletari.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 11:50ean.

Euskaltzainburua,

Andres Urrutia

Idazkaria,

Xabier Kintana

Ageriko bilkura

Roberto González de Viñaspre euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia

Trebiñun, Done Petri elizan

2019ko maiatzaren 4an

Trebiñuko Done Petri elizan, 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, Patxi Uribarren euskaltzain osoa emeritu mailara igarotzearen ondorioz, 2018ko otsailaren 23ko Osoko bilkuran euskaltzain oso izendatu zen Roberto González de Viñaspreren sarrera-hitzaldia egin eta dagozkion diploma eta Akademiaren ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste “Battittu” Coyos Jagon sailburua, Aurelia Arkotxa, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Ana Toledo, Patxi Uribarren, Miriam Urkia, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain urgazleak: Asier Bidart, Patxi Galé, Mikel Gorrotxategi, Iñaki Martínez de Luna, Alfontso Mujika, Paskual Rekalde eta Luis Mari Zaldúa.

Erramun Osa euskaltzain urgazle eta idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Elena Ramírez Trebiñuko alkatea eta zinegotziak; Roberto Ortiz de Urbina Argantzongo alkatea; M^a Pilar García de Salazar Olano Arabako Foru Aldundiko

diputatu nagusiordea; Igone Martínez de Luna Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua; Joseba Koldo Pérez de Heredia Arabako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria; Joseba Lozano, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria.

Unibertsitateetako, elkarteetako, erakundeetako eta hedabideetako ordezkariek.

Ibon Usarralde Euskaltzaindiko Egitasmoen bateragilea eta Manu Gañan Idazkaritzako teknikaria.

Roberto González de Viñaspreren familiakoak eta lagunak.

Ekitaldiari hasiera eman aurretik, Argantzun dantza-taldeak Ikurrin dantza eta agintariena dantzatu du Trebiñuko plazan. Ondoren, ekitaldira hurreratu diren guztiak Done Petri elizara sartu dira. Jarraian, Erramun Osa idazkariordeak ongi etorria eman die hurreratu diren guztiei, bai eta ekitaldiaren nondik norakoak azaldu ere. Era berean, Euskaltzaindiko Barne-erregelek sarrera-hitzaldiaz diotena irakurri du.

Idazkariordearen hitzen ostean, Elena Ramírez Trebiñuko alkateak halako ekitaldi bat Trebiñun egiteagatik poza agertu eta zorionak eman dizkio Roberto González de Viñasprei.

Andres Urrutia euskaltzainburuak agur laburra egin du, besteak beste, ekitaldiaren garrantzia azpimarratuz. Ondoren, Patxi Uribarren Roberto González de Viñaspreren hautagaitza aurkeztu zuenetariko bat eta azken sarrera-hitzaldia egin duen Miriam Urkia euskaltzain osoa deitu eta euskaltzain berriaren bila joan daitezen eskatu die. Bi euskaltzainek lagunduta sartu da batzar aretora Roberto González de Viñaspre “Trebiñu, euskararen herrian” izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzeko. Patxi Salaberri euskaltzainak eman dio erantzuna.

Sarrera-hitzaldiaren mamiari heldu baino lehen, herritarrek agurtu ditu González de Viñasprek, bertan izandako bizipenak gogoratu dituela: “Gogobetegarri dut sarrera-hitzaldia bihotz-buruak agintzen didan lekuan irakurtzea, non eta bizialdiaren erdia baino gehiago eman dudan lurrian, trebiñarren aurrean, eta euskaraz”. Done Petri elizaren pisua eta garrantzia ere azpimarratu ditu, eta berbaldian saiatu da erakusten elizako hormak trebiñarren euskarazko mintzoaren lekuko izan direla, “harik eta Ihuda ibaiak bustitzen duen arroan XVI-XVIII. mendeetan barrena

euskal hizkuntza galdu arte”.

Patxi Uribarren euskaltzain emerituaren ibilbide garrantzitsua ere aletu du, aramaioarraren eginak eta gogoak errepasatuz: “Bizitzako urte asko eskaini dizkio arima-arimatik maite duen euskarari”. Hala, gogoratu du Uribarrenek frankismoaren “urte latzetan” Santutxuko gau-eskoletan eginiko lan itzela, eta, nola ez, Euskaltzaindian eginikoak: irakaskuntzan, euskalduntze-alfabetatzean, euskalkiekin, euskararen sustatzean eta abar. “Onomastikari ere ekin dio bere ikerketa ibilbidean –azpimarratu du González de Viñasprek–. Gogoratu behar da Filologia Erromanikoaren lizentzia eskuratu zuela 1974an Aramaioko toponimiari buruzko tesi lanarekin, Mitxelenaren zuzendaritzapean egin zuena”. Horrez gain, *Bostak bat* taldean karmeldarrak hiztegigintzan egindakoak ere aipatu ditu.

Nahitaezko esker eta aipuen ostean, bere hitzaldiko gai nagusiari heldu dio “Bilbon jaiotako arabarrak”. Horretara, Trebiñuko historiaz eta kulturaz jardun du, eta gogoratu du euskara ere trebiñarren ondarea dela: “Gaztelaniak antzinako presentzia du lurralde honen sartaldean, eta ausaz elebitasun-egoera luzea izan da Trebiñu Konderriko beste zenbait ingurutan. Dena dela, euskara ere trebiñarren kultura ondarea da, berezko errealitate linguistikoa, egiaztatuko dugunez”.

Euskal toponimia eta euskararen hedapen-muga historikoak bere biografiarekin uztartu ditu González de Viñasprek, helburu jakin batekin: “Gazte-gazterik atentzioa eman zidan euskal itxurako zenbat leku-izen ziren Lagranen. Deigarria egiten zitzaidan hura, nire ezjakinean uste bainuen sekula ez zela euskararik mintzatu Arabako hegoalde horretan. Toponimiak erakusten duen bestelako errealitateak, ordea, jakin-mina piztu zidan. Zer-nolakoa zen Arabako arbasoek aho-mintzoan zerabilten euskara? Noiztsu galdu zen? Garai hartan sortu zitzaidan euskal hizkuntzarekiko interesa, motibazio horrekin”.

Euskararen grina piztuta, hamabost urterekin hasi zen euskara ikasten Roberto, bere kabuz (Xabier Peñaren *Euskal irakasbide laburra* liburuarekin), ordutik batera eraman dituela “euskararekiko eta toponimiarekiko jakin-nahia, eta bereziki Arabakoa”. Trebiñu Konderriko Saseta herrian errotu zen Robertoren familia, eta euskaltzainak 30 urte eman ditu bertan, hango historia linguistikoa ikertzen, toponimiaren bitartez, batez ere. Honela, kontu bitxiak ondorioztatu ditu, esaterako, euskararen desagertpena noiz gertatu zen: “Trebiñu Konderriko ekialderako ditugun datuek iradokitzen dute euskararen transmisioaren etena XVIII. mendeko lehen erdian zehar gertatu zela”. Hala ere, Konderriko “ekialdean agerikoa da gaur

egun euskarazko leku-izenen presentzia. (...) Erditik gora dira oraindik, itxuraldaketak gorabehera, jatorriz euskaraz sortutako toponimoak. Maizago eta osoago agertzen dira XVIII. mendeko dokumentuetan; euskal izen arruntik ere aurkitu ohi da gaztelaniazko testuetan txertatuta”. “Oraindik euskal hitz hondarrik bilatu daiteke Trebiñu Konderriko lexikoan” —ohartu du González de Viñasprek— “testu zaharrak arakatzuz; nekezago hiztunen ahotik, bizimodu tradizionalarekin gertatu den hausturagatik eta herri kulturaren galeragatik”.

Atzera eginez, XVI. mendean aurkitzen dugu euskara hizkuntza mintzatua zeneko lekukotasunik, Trebiñu Konderriko ekialdean. “Ihuda ibaiaren goi-arroan XVI. mendearen bigarren erdian euskaraz hitz egiten zela jakin dugu. Toponimia historikoak berresten du euskara hemen zegoela garai horretan, eta XVIII. mendearen erdira arte iraun zuela ere”, argitu du Euskaltzaindiko Arabako ordezkariak, esanez uste duela Trebiñu Konderriko “ekialde gehienera zabaldu daitekeela egoera bertsua”.

“Guztiarekin ere, euskararen historia ez da berdin igaro Trebiñu Konderri osoan. (...) Lurraldearen sartaldeko muturrean ia ez dago euskal leku-izenen aztarrenik; bai, ordea, hortik ekialdera. Dokumentazioaren argitan, euskararen gehieneko hedapen historikoa Ozilla-Ladrera, Añastro, San Esteban eta Morgas herrien lerrotik bide zihoan, iparraldetik hegoaldera, herri horiek guztiak barne hartuz”, zehaztu du González de Viñasprek.

Bere ustez, “XVI. menderako galdua zen euskara mendebaleko herri gehienetan, eta galera Trebiñu hiribururaino iristen bide zen”, ohargarria baita “euskal izen ugari ematen dituela Trebiñurekin mugakide diren Arrieta, Askartza, Bustu, Dordoniz, Golernio eta Franku herrietan. Eta bereziki nabarmentzekoa da Trebiñu herriko mugapean ere badirela euskarazko izen ugari; batzuk bizirik iritsi dira gaur arte; beste batzuk bidean galdu dira”.

Honela, urte hauetan guztietan eginiko ikerketen eskutik, euskaltzainak ondorioztatzen du “euskara Trebiñu Konderriko kultura ondarearen ezinbesteko osagai dela”, eta “ageriko errealitate linguistikoa da iraganean ez ezik orainean ere”, eta amaitu du esanez “euskararen geroa, komunikaziorako hizkuntza-sistema bezala, euskaldunok erabiliz ematen dioguna” izango dela, “baita Trebiñuko barrendegian” ere.

Roberto González de Viñaspreren mintzaldiaren ostean, Patxi Salaberri euskaltzainak arrapostu egin dio González de Viñaspreren berbaldiari, modu bertsuan egin ere, hots, bere jatorria toponimiarekin eta euskararekin uztartuz. “Uste dut

euskal izenek ekarri gintuztela euskararen mundura bai Roberto eta bai ni, adin bertsuan, gainera”, aitortu du Salaberrik: “Robertok bere buruari egiten zizkion galderak eta nik neureari egiten nizkionak ere paretsukoak dira: nolakoa zen hemengo hizkera? Non zegoen hizkuntza muga? Noiztsu lekutu zen euskara hemendik?”. Eta galdera horren hariari jarraiki ibili dira biak hango eta hemengo toponimia bilatzen eta ikertzen: Robertok Arabari heldu dion bitartean, Patxik Nafarroari oratu dio, bere arbasorik gehienak uxuetarrak baitziren (bitxikeria bat kontatu du: Uxueko dokumentazioan, 1629an ageri da lehen aldiz Salaberri deitura). Honela, Salaberrik argitu du euskararen lehen aztarnak —idatziak, bederen— XVI. mende-koak direla: “Uxuen ez *dugu halakorik egin* esaldia dugu 1581ean (Monteano, 2017: 178), eta ondoko pasarte hau 1598an: *alcabuz aldiabateta arcabuzas es, estiot arcabuzau emanen, estate gure probechu arcabuzetara etorri bagajtes*”. Eta edozenbat adibide eman ditu ondoren, luze-zabal aritu dela horretaz.

Salaberrik amaitu du esanez berak badakiela “gauza bana direla onomastika eta euskara *arrunta*”, baina badakiela, baita, “toponimian edireten ditugun gauza asko euskara bizirik egon den azken denboretako lekuan lekuko hizkeraren ezaugarriak direla, orain ikusi dugun bezala, fidagarriak, lurrari atxikirik daudelako”. Eta aztarna horiek guztiak “aintzat hartu behar lirатеkeela” adierazi du, “hein batean segurik, bai Araban (‘zazpigarren alaba’, Gorka Knörren kantuan) eta bai Nafarroan”. Bere erantzuna amaitu du Robertori goresmenak eskainiz, “Onomastika arlo izugarri polita baita, lantegi ikaragarria Euskaltzaindian”. “Baduzu non josta”, ohartarazi du.

Hitzaldiak amaitu ostean, eta euskaltzain berriak Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela hitza eman ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoen domina jantzi eta diploma eman dio Roberto González de Viñasperi.

Segidan, Gasteizko Kanta Berri abesbatzako kideek hainbat kanta kantatu dituzte. Ondoren, ekitaldiari amaiera eman aurretik, A. Urrutia euskaltzainburuak hartu du hitza. Hasteko, Roberto González de Viñaspre euskaltzain oso izendatu berriari zorionak eman dizkio. Era berean, halako izendapenak, ohoreaz haratago, lan egiteko gonbita direla aditzera eman du. Era berean, Araban, oro har, euskarak izan duen aitzinamendua goratu du, eta bereziki azpimarratu du Trebiñu Konderrian euskararen alde eginiko lan handia. Bide beretik sakontzeko deia ere egin du. Halaber, Euskaltzaindiaren Mendeurrena gogoan, arabar euskaltzainek,

osoek, ohorezkoek eta urgazleek, ehun urtean egin duten ekarpena, egin duten lana eta erakutsitako konpromisoa gogorarazi ditu. Amaitzeko, euskararen aldeko langintzak etenik ez duela eta, urrats berriak egiteko deia egin du.

Ekitaldi akademikoa amaitutzat eman ondoren, Elena Ramírez Trebiñuko alka-teak, Udalaren izenean, opari bat eman dio Roberto González de Viñaspre euskaltzainari.

Ostean, txistularien musika lagun dutela, ekitaldian parte hartu dutenak Done Petri elizatik irten eta Udalak eskainitako ahogozagarri arinaz gozatu ahal izan dute, ekitaldiari amaiera emanez, 14:00etan.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Xabier Kintana,
Idazkaria

Osoko bilkura

Baionan, Herriko Etxean

2019ko ekainaren 28an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Davant, Jean-Louis,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Manterola, Julen, Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba, zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Patxi Goenaga, Roberto González de Viñaspre, Jose Irazu “B. Atxaga”, Patxi Salaberri eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Patxi Goenagak ahala Miren Lourdes Oñederrari; Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra 2019ko ekainaren 28an, ostiralean, egin da Baionan, Herriko Etxean.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoan zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, ekaineko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Hasteko, E. Osa idazkariordeak argibideak eman ditu; izan ere 12:00etan,

Baionako Herriko Etxearen eta Euskaltzaindiaren artean lankidetzahitzarmen berria izenpetuko da. Ondoren, Herriko Etxeak aho gozagarri arina eskainiko die hurreratzen direnei.

1. Osoko bilkurako (2019-05-04) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

P. Uribarrenek oharra igorri du bilkurara hurreratutakoen artean bere izena falta dela azalduz. Eginiko iruzkina onartu da.

M. L. Oñederrak 2. orrialdeko bigarren paragrafoko lehenengo esaldiari (“A. Urrutia euskaltzainburuak bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin”) oharra egin dio. Bilera-agirian jasotzeko bi aukera aurkeztu ditu. Delako pasarte hori honela geratu da: “A. Urrutia euskaltzainburuak bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, M. L. Oñederrak zuzenketa bat proposatu du agiriaren 2. puntuan, baina ez da onartu. Bestelako oharrik ez da egin. Ondorioz, 2019ko martxoaren 30eko bilera-agiria onarturik gelditu da”.

P. Goenagak hiru ohar egin ditu. Alde batetik, 2. orrialdeko laugarren paragrafoan, “... hiru formek.” ageri den tokian, “hiru formak.” behar duela aditzera eman du. Eginiko zuzenketa onartu da; beste aldetik, 4. orrialdeko 4.3. puntuan ageri den “EIMA erakundearen eta Euskaltzaindiaren artean izenpeturiko lankidetzahitzarmenaren ondorioz” esaldia ez dela zuzena gogorarazi du, EIMA ez baita erakunde bat, Eusko Jaurlaritzaren egitasmo bat baizik. Ondorioz, pasarte honela geratzea erabaki da: **“4.3. Eusko Jaurlaritzaren EIMA egitasmoko Isabel Arrigain Euskara Batuaren Eskuliburuko batzordekide.** Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren eta Euskaltzaindiaren artean izenpeturiko lankidetzahitzarmenaren ondorioz...”; azkenik, 4.3. puntuaren bukaeran, ageri den “Osoko bilkura jakitun geratu da” esaldia ezabatzeke eskatu du. Azken oharra ez da onartu.

A. Urrutia euskaltzainburuak bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2019ko maiatzaren 4ko bilera-agiria onarturik gelditu da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XIV). Jasotako oharra aztertu eta erabaki.

Maiatzeko Osoko bilkuran aurkeztutako zerrendari inork ez dio idatzizko oharrik egin. Ahoz jasotako oharra kontuan hartuta, proposamenak eraman dituzte bilerara Batzorde Ahaldunduko arduradunak eta idazkariak, A. Sagarnak eta M. Urkiak, hurrenez hurren.

Buruari eman eta *epaitza* sarreretan adiera berriak jaso dira, *Naf.* markadunak, eta *ermita* sarreran definizioa moldatu da, ‘aldare bakarreko’ kenduta. Bestalde, *hiribildu* eta *hiri* 2 formen definizioaren azken proposamena aurkeztu da bileran, eta onartu egin da.

Aztergaia landu ez den forma berri bat ekarri dute hiztegiko arduradunek ezohiko prozedura baliatuta: *epizeno* hitza, hain zuzen. Euskaltzaindiak ekainean aurkeztu duen pertsona-izenen atal berrituan onartu dira izen epizenoak, eta forma hori ez dago hiztegian jaso. Ontzat eman da proposamena, baina aurkezturiko adieren ordena aldatzea erabaki da.

Aldaketa hauek onartu ondoren, iragarri da uztailaren lehen astean, sarean, hiztegia eguneratuko dela.

3. Euskaltzaindiaren Mendeurrena: *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*. Argitalpenaren aurkezpena eta uztailaren 4ko jardunaldia.

Aztergaia jorratu aurretik, Julen Manterola Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa egitasmoan diharduen ikertzailea bilkura aretora sartu da. J. Lakarra egitasmoaren zuzendariak gogorarazi duenez, 2009ko Barne Jardunaldietan hartu zuen Euskaltzaindiak *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* abiatzeko erabakia. Ordutik, egitasmoan aritu izan dira Julen Manterola eta Iñaki Segurola. Azken hilabeteetan, egitasmoan Gabriel Fraile eta Koro Segurola teknikariek ere parte hartu dute.

J. Lakarrak azpimarratu duenez, hiztegi etimologikoa hizkuntzaren barne historia aplikatua baizik ez da, hots, fonologian, morfologian, dialektologian, sintaxi diakronikoan... oinarritu eta hitzen (sarrerren) inguruan antolatutako hizkuntzaren historiaren ikerketa eta azalpena da. Ondoren, J. Manterolarekin batera, beste hizkuntza batzuetan eginiko zenbait lan hizpide hartu dituzte, eta datorren uztaila-

ren 3an (hedabideen aurrean) eta 4an (jardunaldian) aurkeztuko den lanak egiten duen ekarpena azpimarratu dute.

Esan denez, oinarritzko lan bat da, prototipo bat, familia berriekin osatzen eta hedatzen joango dena. Mementoz paper euskarrian argitaratu da eta ondoren euskarri digitalean eskaintzeko nola baita nazioartean hedatzeko -ingelesez bertsio bat paratuz- urratsak egingo dira. Argitalpenaren aurkezpenarekin amaitzeko, liburua-ren aurkibidea eskuetan, argitalpenaren atalak azaldu dituzte.

Liburua aurkeztu ondoren, uztailaren 4an, Bilbon, egoitzan, egingo den jardunaldiaren egitaraua aurkeztu eta zabaldu da.

4. Euskaltzaindiaren Mendeurrena: Gramatikari buruz, uztailaren 11n, egingo den Nazioarteko Jardunaldiaren aurkezpena.

M. Azkarate euskaltzain eta Gramatika batzordeko kideak uztailaren 11n, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean egingo den jardunaldiaren egitaraua aurkeztu eta zabaldu du. Egitaraua Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak prestatu du.

Egitaraua aurkeztu ostean, uztailaren 11ko jardunaldiaren ondoren ontzen den testua euskaltzainen esku jarriko dela eta Osoko bilkurak testua aztertzeko eta onartzeko baliatu beharreko prozedurari buruzko erabakiak hartu beharko dituela azpimarratu du.

5. Euskaltzaindiaren 2018ko errendapenak eta 2019ko planak. Informazioa eman.

E. Osa idazkariordeak aditzera eman du Euskaltzaindiaren batzordeek, lantaldeek, egitasmoek eta zerbitzuek 2018ko errendapenak eta 2019ko planak aurkeztu dituztela. Errendapenak eta planak biltzen dituen txostenak 186 orrialde ditu. Ondorioz, euskaltzainen batek gai zehatz bati buruzko informazio xehea nahi izanez gero, idazkariordeari galdetzea eskatu du.

M. Azkaratek esan du halako zein bestelako idatziak (adibidez, Osoko bilkure-tako materialak) intranet zerbitzu baten bidez eskura izateak garrantzia daukala. A.

Urrutia euskaltzainburuak aditzera eman du webgune berriaren edukia egonkortu ondoren, plangintzan aurreikusita dagoela zerbitzu hori antolatzea (horri buruzko xehetasunak aurrerago emango dira, bai eta segurtasun baldintzak ere).

6. Euskaltzaindiaren 2018ko aurrekontuen itxiera eta 2019ko aurrekontuak.

S. Aleman diruzainak, J. Zabaleta kudeatzailearen laguntzarekin, aztergaia aletu du. Aditzera eman duenez, 2018ko aurrekontuaren exekuzioa orekatua izan da eta 1.739,46 €-ko defizit txikiarekin itxi da. 2018ko aurrekontuaren exekuzioak eta 2019ko aurrekontuak Euskaltzaindiaren Mendeurrenak ekartzen dituen gastuak barruratzen dituzte. 2020an, ohiko jarduera azalduko da bakarrik, ordurako, Mendeurrena amaituta egongo baita.

J. Zabaletak gogorarazi duenez, pasa den mendeko laurogeita hamarreko hamar-kadaren erdialdeaz geroztik, Euskaltzaindiaren aurrekontuaren exekuzioa kanpoko ikuskaritza enpresa batek urtero aztertzen eta egiaztatzen du. Ondoren, emaitzak herri-erakundeen esku lagatzen dira.

2019ko aurrekontuari buruz iragarri du emaitza orekatua izango dela eta begiz jotako sarrera guztiak jasoko ez balira, neurri berean, gastuak doituko direla. Gaia-ekin amaitzeko, euskaltzainen batek informazio osagarriren bat nahi izanez gero, Diruzaintzarekin harremanetan jar dadin eskatu du.

7. Esku artekoak.

7.1. Hurrengo bilkurak eta ekitaldiak:

- **EHHA egitasmoaren eskutik ondutako “Euskara Ibiltaria” erakusketa.** “Euskara Ibiltaria” erakusketa Bermeoko Arrantzaleen Museoa egongo da, ekainaren 20tik irailaren 17ra bitartean.
- **Baionako Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzahitzarmena.** Gaur izenpetuko da. Hitzarmenean aurreikusita dago Euskaltzaindiak Herriko Etxeari, euskarari dagozkionetan, aholkularitza eskaintzea eta Baionako Herriko Etxeak Euskaltzaindiaren Mendeurrenarekin lotutako zenbait jarduera finantzatzea.

- ***Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa. Aurkezpena eta jardunaldia.*** Uztailaren 3an, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* aurkeztuko da Bilbon, egoitzan. Aurkezpenean, Euskaltzaindiak, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, BBK Fundazioak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Euskal Elkargoak parte hartuko dute. Bestalde, uztailaren 4an, “Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa. Aurkezpen jardunaldia” egingo da Bilbon, egoitzan, 08:30etik 14:00 bitartean.
- **Gramatikari buruzko jardunaldia.** Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren barruan, uztailaren 11n, “Gramatikak XXI. mendean” jardunaldia egingo da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 09:00-17:30 bitartean. Egitaraua Gramatika batzordeak ondu du.
- **“Euskara biziberritzen jarraitzeko bide berriak” jardunaldia.** Uztailaren 17an, Bilbon, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan, 09:00-14:00 bitartean, “Euskara biziberritzen jarraitzeko bide berriak” jardunaldia egingo da. Jardunaldia Euskaltzaindiko Sustapen batzordearen eta Sabino Arana Fundazioaren arteko lankidetzaren emaitza da.
- **Hurrengo Osoko bilkura.** Uztailaren 19an egingo da Bilbon, egoitzan, 10:00etatik aurrera. Egun horretan Euskaltzaindiaren eta Euskal Idazleen Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena izenpetuko da.

8. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:00etan.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Osoko bilkura

Bilbon, egoitzan

2019ko uztailaren 19an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Aurelia, Arkotxa,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose “B. Atxaga”,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso eta Osa, Erramun,
zegozkien gaitan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Roberto González de Viñaspre, Patxi Salaberri eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra 2019ko uztailaren 19an, ostiralean, egin da Bilbon, egoitzan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, uztailleko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Hasteko, E. Osa idazkariordeak argibideak eman ditu; izan ere 11:30ean, Euskal Idazleen Elkartearen eta Euskaltzaindiaren artean lankidetzahitzarrena izenpetuko da. Ondoren, hitzarrena sinatzeko ekitaldian parte hartu dutenen argazkia egingen da egoitzaren aurrealdean.

1. Ageriko bilkuretake (2018-01-26 eta 2018-11-23) bilera-agiriak onartzea, hala erabakiko balitz.

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2018ko urtarrilaren 26ko eta azaroaren 23ko ageriko bilkuretake bilera-agiriak onarturik gelditu dira.

2. Osoko bilkurako (2019-06-28) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2019ko ekainaren 28ko Osoko bilkurako bilera-agiria onarturik gelditu da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XV). Aurkeztu.

Zerrenda berria aurkeztu du Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Urkia euskaltzainak, A. Iñigok egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen:

1. *gaur* sarreran *gaur den egun* azpisarrera gehitzea eskatu du ohargileak, eta egitasmoko kideek onartu eta hala proposatu dute: “**gaur den egun** (leku-denborazko atzizkiekin, singularrean). *Gaur egun, gaur. Gaur den egunean, arruntagoa baizik ez da bilakatu jendea. **Gaur den eguneraino**. Jakin behar duzue, *gaur den egunetik [...]*”. Eta *gaur egun azpisarreran* “Ik. *gaur den egun*” lotura gehitu da.*
2. hasiera sarrerako 1. adieran “Ik. **hasmenta**” gehitzea eskatu du ohargileak. Egitasmoko kideek dagoena uztea proposatu dute. Izan ere, *hasmenta* hiztegian *Naf.* markarekin jaso dago, eta bidalketak ez dira, normalean behintzat, forma markadunetara egiten, alderantziz baizik (cf *hatsarre*).

4. Exonomastika: *Antzinateko artelanen izenak (II): Erromatar Inperioaren garaiko artelanen izenak*. Eginiko proposamenak aztertu eta erabakiak hartu.

Alfontso Mujika Exonomastika batzordeko idazkariak eman ditu azalpenak. Araugaia lehendik aurkeztuta zegoen, eta ez da oharrik iritsi. Bestalde, araugaiko zerrendan agertzen diren *kameu*, *kratera*, *villa*, *maximo* (adj.) eta *zisterna* sartu dira jadanik Euskaltzaindiaren Hiztegiko azken bertsioan.

Exonomastika batzordeak Osoko bilkuraren esku utzi zuen *le pont Julien / el puente Juliano / Julian Bridge* izeneko zubiaren euskal ordaina erabakitzea, aukera bat baino gehiago baitago. Zubiaren izenaren jatorria latinezko *Apta Julia* izena da, hori baitzen zubitik gertu dagoen gaur egungo *Apt* hiriaren hasierako izena. Julio Zesarrek fundatu zuen hiria, eta hortik *Julia*. Batzordeak hiru aukera aurkeztu dizkio Osoko bilkurari, erabakitzeko: *Gardeko akueduktua* proposatu den modu bertsuan, ***Juliako zubia*** egitea, (*Apta*) *Julia* baitzen hiriaren izena. Bestela, *-ar* atzizkia erabili nahi izanez gero, *Julio* pertsona-izenari aplikatuta, ***Juliotar zubia*** egitea. Azkenik, balegoke ***Juliar zubia*** aukera teorikoa ere, baina, batzordearen ustez, ez dirudi oso egokia *-ar* atzizkia leku-izenari ezartzea.

Aukerak eztabaidatu ondoren, ***Juliako zubia*** erabaki da. Bestalde, A. Iñigok galdetu du ea zergatik ez den jarri ***Alcántarako zubia*** sarreran oin-ohar bat adierazteko onargarria dela azenturik gabe ere idaztea, ***Méridako zubia*** sarreran egin den bezala. A. Mujikak erantzun dio Mérida autonomia-erkidego bateko hiriburua dela eta 32. arauak dioela, arau horretako leku-izenei dagokienez, gaztelaniaz azentu grafikoa duten hitzak azentuarekin nahiz azenturik gabe idatz daitezkeela eta horregatik jarri zaiola oin-oharra, baina Alcántara ez dela maila horretako toponimoa. Eta adierazi du beste arau batzuetan diakritikoak agertzen direla arauetan eta ez dela horrelako oharrik egin (adibidez, 157. arauak —Europako hiriak— dio diakritikorik gabe ere idazteko aukera Europako ekialdeko hizkuntzetako diakritiko ezohikoetarako baino ez dela) eta Onomastika batzordeak emandako Euskal Herriko toponimiako arauetan ere, batzuetan, ohar hori egin dela eta beste batzuetan ez.

Adierazi da, orduan, komeni dela diakritikoen erabilerari buruzko azterketa orokorra egitea, eta Exonomastika eta Onomastika batzordeetan azterketa hori egiteko eskatu du Osoko bilkurak.

5. Esku artekoak.

5.1. EEPren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza-hitzarmenaren urteko eranskina izenpetu da Bilbon, uztailaren 3an. Urteko eranskina izenpetu dute Beñat Arrabit EEPko presidenteak eta A. Urrutia euskaltzainburuak. Ekitaldian, X. Videgain buruordeak parte hartu du. Urteko eranskinak, besteak beste, **lana euskaraz egiten duten profesionalen maila jasotzeko C1etik gorako hizkuntza-pres-takuntzako moduluak, IKASek ekoitziriko materialen hizkuntza kalitatea zaintzea, euskarazko toponimiaren arloan lan egiten duten profesionalen pres-takuntza eta hiru lan argitaratzea jasotzen ditu** (*Eñaut Etxamendiren obra narrati-boa (1964-2011)*; *Euskal Literaturaren Antologia II: Errenazimentutik ilustraziora*; eta Adrien Gachiteguyren *Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko*).

5.2. Hurrengo bilkurak:

- **Euskaltzaindiaren Mendeurrena.** Irailaren 12tik 13ra, “Ingurune digi-tala, hizkuntzen estandarizazioa eta euskara” goiburutzat, nazioarteko jar-dunaldia egingo da Donostian, Tabakaleran. Mendeurrenarekin loturiko azken jardunaldi akademikoa izango da, hamargarrena, hain zuzen. E. Osa idazkariordeak aditzera eman duenez, egitaraua ontzen ari dira. Ondorioz, datozen egunetan horren berri emanen zaie euskaltzainei eta aukera izanen dute izena emateko, bai eta ostatua hartzeko ere.
- **Hurrengo Osoko bilkura.** Irailaren 27an egingo da Gasteizen, Arabako Batzar Nagusien egoitzan.

6. Azken ordukoak.

P. Zabaletak esan du garrantzitsua dela Gasteizen, ekainaren 14an, Onomasti-kari buruzko nazioarteko jardunaldian, euskarri digitalean aurkezturiko Pertsona izendegi berritua paperezko euskarrian zabaltzea. Izan ere, aurretiaz argitara emani-koek arrakasta handia izan dute, beraz, pentsatzekoa da halako lan batek ere bere ibilbidea izan dezakeela. A. Urrutiak aditzera eman du gaia Argitalpen batzordeak aztertuko duela.

M. Azkarate euskaltzain eta Gramatika batzordeko kideak eskerrak eman diz-kie, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, uztailaren 11n eginiko “Gramatikak XXI. mendean” jardunaldira hurreratu ziren euskaltzainei, bai eta

aditzera eman ere Gramatika batzordeak jardunaldian aurkezturiko Euskararen Gramatika lanari ekarpenak egiteko aukera izango dutela euskaltzainek.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:30ean.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Osoko bilkura

Gasteizen, Arabako Batzar Nagusietan

2019ko irailaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso eta Osa, Erramun,
zegozkien gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Beñat Oihartzabal eta Patxi Salaberri.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Beñat Oihartzabalek ahala Miren Azkarateri; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari.

Batzarra 2019ko irailaren 27an, ostira-lean, egin da Gasteizen, Arabako Batzar Nagusietan.

Osoko bilkura hasi aurretik, euskaltzainei harrera egin diete Pedro Elo-segi Arabako Batzar Nagusietako presidenteak, Eva Jiménez, Nerea Martínez Cerrillo eta Marta Alaña mahaikideek eta Manu Rezola batzarkideak.

"Orain dela hamar urte etorri zineten, Akademiaren 90. urtemugan, eta berriaz zoriondu behar zaituztegu, oraingo honetan ehun urtez eginiko lanagatik", esan du Pedro Elosegik, eta etorkizunean ere elkarlanean jarraitzeko asmoa

erakutsi du: "Euskaltzaindiak eta guk jarraituko dugu elkarlanean, helburu bera dugulako: euskara sustatzea". A. Urrutia euskaltzainburuak ere bide beretik jo du bere mintzaldian, eta gogoratu du Batzar Nagusien laguntzarekin ondu zela Oinarrizko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa. Horrezaz gain, euskaltzainburuak Gasteizko toponimian eginiko aurrerakuntzak aipatu ditu, baita 2017an izandako Jagon jardunaldi arrakastatsua ere. Azkenik, Arabarekin eta Euskal Herriko beste lurraldeekin Euskaltzaindiak duen konpromisoa berretsi du Urrutiak.

Harreraren ondoren, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoan zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, iraileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2019-07-19) bilera-agiria onestea, hala erabakiko baltz.

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2019ko uztailaren 19ko Osoko bilkurako bilera-agiria onarturik gelditu da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XV). Aurkezturiko oharra aztertu eta erabakiak hartu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak aditzera eman duenez, uztailako bilera eramandako bi oharrei ez die inork iruzkinik egin. Beraz, onartu dira. Baina ohar berri bat iritsi da, Xarles Videgainek egin, hain zuzen, Ipar Euskal Herrian darabilten *gaur* formaren 'arrats honetan' adiera sartzeko eskatzen duena. Onartu egin da eta hala jasoko da: "gaur 3 adb. *Ipar*. Arrats honetan". Adibide argigarri bat bilatuko da, testuinguru zabala duena, Hegoaldekoek ere uler dezaten.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XVI). Aurkeztu.

3.1. Aztergai berri baten aurrean gaudenez, OEHko azpisarrerak berreskuratzeko saioa baita esku artekoa, irizpideei buruzko azalpenak eman dituzte hiztegiko arduradunek. Horiek argituta, M. Azkarate eta A. Iñigo euskaltzainek eginiko oharra jasotzen dituen txostena aurkeztu du batzorde ahaldunduko idazkariak.

Horrela, oharra egiteko aldia urriaren 18ra arte ireki da.

3.2. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailatik iritsi den eskaera: *filmoteka*. *Euskaltzaindiaren Hiztegian filmoteka* sarreran ‘Mikrofilmen biltegia’ adiera dago jaso, baina ‘Filmak sailkatzen eta gordetzen diren lekua’ adieran ez erabiltzeko dio, *zinemateka* bidalia. Euskadiko Filmategiak “www.filmotecavasca.com” webgunea berritu eta “filmoteka.eus” jarri nahiko luke. Horregatik eskatu du (2015ean ere egin zuen eskaera Jagonet bitartez) *filmoteka*ren 2. adieraren “debekua” kentzeko. Datuak bildu eta gaur erabiltzen dela ikusi dute batzorde ahaldunduko kideek, eta adiera hori ere sartzeko proposamena eraman dute Osoko bilkurara. Adiera sartzea onartu du osokoak, baina definizioa egokitzeko eskatu dute (baita *zinemateka* sarrerakoa ere), ez baitira filmak bakarrik sailkatzen eta gordetzen, horien inguruko kartelak eta bestelako dokumentuak ere jasotzen baitira. Hori aztertuko dute hiztegiok, baina bilera honetako galdera Kultura Sailak egindako eskaerari buruzkoa zen, eta ontzat ematea erabaki da.

4. Exonomastika: *Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak*. 38. arau eguneratua aurkeztu.

A. Mujika Exonomastika batzordeko idazkariak egin du aurkezpena. Munduko estatuen izenak Euskaltzaindiak exonomastikaren arloan emandako arau zaharretako bat da. 1995ean onartu zen lehen aldiz, eta 2007an eguneratu zen. Geroztik, aldaketa puntual batzuk egin zaizkio, baina, funtsean, 2007. urtean munduan zegoen egoera islatzen da arauaren datuetan. Horregatik, azken 12 urteetan gertatu diren aldaketak jasotzeko, eta, bide batez, araua kontsultatzeko modua aberasteko, arauaren bertsio berria landu du batzordeak. Estatuaren izen ofizialetan, hiriburuetan eta hizkuntza ofizialetan gertatu diren aldaketak jasotzeaz gainera, estatuen eta

hiriburuen ingelesezko ordainak ere gehitu zaizkio, orain arte gaztelaniazkoak eta frantsesezkoak baino ez baitziren ematen.

Banatu den proposamenean nabarmenduta ageri dira aldaketa guztiak, eta, oharrei buruzko zutabearen, aldaketa horien guztien zergatia adierazi da, proposamenaren arrazoiak erakustearren. Eguneratzeko aldaketez gainera, bi proposamen hauek egin dizkio Exonomastika batzordeak Osoko bilkurari:

- A) 1995ean munduko estatuen arauaren lehen bertsioa onartu zuen Euskaltzaindiak, eta ohar bat sartu zen adierazteko *Luxenburgo*-ren kasuan *Luxemburg* ere onartzen zela. Gauza bera proposatu zen *Friburgo* (Suitzako), *Hanburgo*, *Edinburgo*, *Estrasburgo* eta *Salzburgo* hirien izenetarako. Hau da, <*Luxenburgo* edo *Luxemburg*> forma bikoitza arautu zen orduan. Ia 25 urte pasatu dira harrezkero, eta, kontuan izanik estatuen izenak erabilera-maiztasun handiko izenak direla, badirudi ez dela egokia bi aldaera izatea, are gutxiago aldaerok hain elkarren antzeko direnean. Gainera, datuek erakusten dute *Luxenburgo* aldaera dela, alde handiz, erabiliena.

Egoera eta datuak horiek izanik, batzordeak Osoko bilkurari proposatzen dio *Luxenburgo/Luxemburg* aldaerei eutsi beharrean *Luxenburgo* bakarrik onartzea. Horrekin batera, 1995eko oharrean ageri diren hiri historiko garrantzitsu hauetan ere aldaera bakarra onartzea: *Friburgo* [Suitza], *Hanburgo*, *Edinburgo*, *Estrasburgo* eta *Salzburgo* hiriak; hau da, *Fribourg*, *Hamburg*, *Edinburgh*, *Strasbourg* eta *Salzburg* aldaerak baztertzea.

- B) Munduko estatuen zerrendan sartu behar al dira Palestina eta Mendebaldeko Sahara? Nazio Batuen Erakundeko 136 estatuk ezagutu dute Palestina estatutzat, eta 2012az geroztik estatu behatzailearen estatusa du Estatu Batuen Erakundean, eta Nazioarteko Batzorde Olinpikoko kidea da, besteak beste. Munduko 85 estatuk ezagutu dute Mendebaldeko Sahara estatutzat, eta harreman diplomatikoak ditu munduko 40 estaturekin. Batzordeak, sartzekotan, oin-ohar hauek jartzea proposatzen du: <Palestina *de jure* da estatu subiranoa, baina haren lurraldea Israelek okupatua du 1967tik>. < Mendebaldeko Sahararen subiranotasuna eztabaidan dago nazioartean. 2018 arte, munduko 85 estatuk ezagutu dute Mendebaldeko Sahara estatutzat>.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko aldia urriaren 18ra arte ireki da. Gogorazi da oharrak proposatutako aldaketen gainean bakarrik egin daitezkeela; hau da, ez da oharrik edo proposamenik egin behar lehendik arautua egonda batzordeak aldatzea proposatu ez duenaren gainean.

5. Esku artekoak.

5.1. Gexan Alfaro euskaltzain urgazlea Onomastika batzordeko aholkulari. Zuzendaritzak, 2019ko irailaren 3an eginiko bilkuran, erabaki zuen Onomastika batzordeak Gexan Alfaro euskaltzain urgazlea batzordeko aholkulari izendatzeko eginiko proposamena aintzat hartzea eta Osoko bilkurari horren berri ematea.

5.2. Euskaltzaindiaren eta Eroski Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmena. Mendeurrenaren inguruabarrean, Euskaltzaindiaren eta Eroski Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmena izenpetu da, 2019ko irailaren 3an. Horren bidez, Eroski Fundazioak Mendeurrenari 10.000 €-ko ekarpena egingo dio. Euskaltzaindiak argitara emango duen komikiko gastuak arintzeko erabiliko dira bitarteko horiek.

5.3. Hurrengo bilkurak:

- **Omenaldia euskal diasporari.** Urriaren 1ean egingo da egoitzan, 19:00etatik aurrera. Idazkariordeak egitaraua azaldu du.
- **“Euskaltzaindia. Egunak eta Lanak” dokumentala.** Aurre-estreinaldia egingo da Bilbon, BBK Salan, urriaren 2an, 10:30ean. B. Atxagaren ideia batean oinarrituta, Fermin Etxegoienek zuzendu du dokumentala.
- **Euskaltzaindiaren Mendeurrena. Azken ekitaldi instituzionala.** Urriaren 5ean egingo da Gipuzkoako Foru Aldundian. Ekitaldia 12:00etan hasiko da. Idazkariordeak ekitaldiaren nondik norakoak azaldu ditu.
- ***Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoaren aurkezpena.*** Baionako unibertsitate-campusean egingo da, urriaren 8an, 10:30ean.
- **Hurrengo Osoko bilkura.** Urriaren 25ean egingo da Leioan, Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaiko campusean. Egun horretan, 11:30ean EHUren Urrezko Domina emateko ekitaldia egingo da.

6. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:20an.

Euskaltzainburua,

Andres Urrutia

Idazkaria,

Xabier Kintana

Osoko bilkura

Leioan, Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaiko Campusean
2019ko urriaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.
Osa, Erramun eta
Usarralde, Ibon,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Roberto González de Viñaspre, Jose Irazu

“Bernardo Atxaga”, Patxi Salaberri eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra 2019ko urriaren 25ean, ostiralean, 09:30ean, egin da Leioan, Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaiko Campusean.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririko zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urriko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Hasteko, E. Osa idazkariordeak argibideak eman ditu. Izan ere 10:30ean, UPV/EHUren Urrezko Domina Euskaltzaindiari emateko ekitaldiaren inguruabarrean, euskaltzainburuak Urrezko Domina jaso izanaren agiria

izenpetuko du UPV/EHUko idazkari nagusiarekin eta errektorearekin batera. Horren ostean, euskaltzainak bertan direla, talde argazkia aterako da. Segidan, UPV/EHUko Bilboko Campuseko Areto Nagusian Urrezko Domina emateko ekitaldia egingo da.

1. Osoko bilkurako (2019-09-27) bilera-agiria onestea, hala erabakiko baltz.

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2019ko irailaren 27ko bilkurako bilera-agiria onaturik gelditu da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XVI). Aurkezturiko oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak aditzera eman duenez, iraileko bileran aurkeztutako oharrei iruzkin bakarra egin zaio, M. L. Oñederrak egina, hain zuzen. *bete sarrerako 6. adieran lehendik zegoen adibidea aldatzea onartu eta hau jaso da: Beterik ziren egunak eta heldurik zen Mariaren emerditzeko muga.*

3. Euskaltzaindiaren Mendeurrena. Jardueren balantzea aurkeztu.

Ibon Usarralde Euskaltzaindiaren Egitasmoen bateragilea eta Mendeurrena koordinatzeaz arduratu denak, batzar-aretora sartu eta hitza hartu du. Hasierako helburuak gogorarazi ditu. Izan ere, Euskaltzaindiak mendeurrena baliatu nahi izan du euskararekin, euskal kulturarekin eta euskal gizarte osoarekin duen konpromisoa eguneratzeko eta, bide batez, dei zabala egiteko euskal gizarte osoari: hain justu, aldi berriari, XXI. mende korapilatsu baina itxaropentsu honi, ilusio berrituarekin ekiteko, denok garelako ezinbestekoak euskara indartu eta normalizatuko badugu.

Segidan, gogora ekarri ditu urtebeteen antolatu diren ekitaldiak, ikuskizunak eta beste hitzordu batzuk. "Egitarau akademikoa eta egitarau artistiko-kulturala uztarturik, ongi pasatzeko eta gogoeta eragiteko helburu nagusiak bete ditu Euskaltzaindiak", gogoratu du Usarralde. Horrela, egitarau akademikoari da-

gokionez, aditzera eman du 10 jardunaldi, 170 hizlari, 75 aurkezle-moderatzaile, 1.100 parte hartzaile eta 98 streaming ordu (2.599 ikustaldi) egon direla, bai eta gaineratu ere antolaketa horiek euskararen lurralde guztietan egin direla, Euskaltzaindiaren jardun eremu eta aztergai guztiei buruzkoak izan direla, eta Euskaltzaindiaren batzorde, lantalde eta egitasmo guztien parte hartzaileekin batera nazioarte-koak ere izan direla.

Bestalde, argitalpenei dagokienez, esan du *Ardi Galdua* (paperean), *Euskara Batua-ren Eskuliburua* (paperean eta digitalean), *Euskaltzaindiaren adierazpenak - Euskararen sustatzea* (1976-2018) (digitalean), *Hizkuntza-zuzenbidea testu-bilduma euskaraz* (digitalean), *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa - X* (paperean), *Kale eta karriken izenak hautatzeko eta idazteko irizpideak* (paperean eta digitalean), *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* (paperean) eta *Pertsona izendegia* (digitalean) argitaratu direla.

Erakusketei dagokienez, “Baiona, 1964: euskara batuaren zedarria” eta “Euskara Ibiltaria” antolatu direla esan du. Egitarau instituzionalari lotuta, honako hauek antolatu direla azpimarratu du: Mendeurrenaren Ohorezko Patronatuaren eraketa bilera Bilbon, 2018ko uztailaren 20an, Mendeurrenaren amaiera ekitaldia Donostian, 2019ko urriaren 5ean eta jardunaldi bakoitzaren hasiera.

Aipatutako ekitaldiez gainera, beste hauek ere antolatu direla esan du: “Mende berria kantuz” egitasmoaren 6 emanaldi; *Gheroren* 42; “Euskal literatura zaharrari buruz Martuteneko kartzelan irakurraldi dramatizatua” 13 saio; “Astelehen eta astearte buruzuriak” 10 emanaldi; “Lautan Hiru” 12 antzerki emanaldi; BizHitza egitasmoaren 6 ekitaldi eta erromeria bat. Guztira, 90 emanaldi eta 9.150 ikus-entzule/parte hartzaile. Nolanahi ere, ekitaldi gehiago izan daitezkeela iragarri du.

Ikus-entzunezkoei dagokienez, *Euskaltzaindia: egunak eta lanak* dokumentala eta *Euskaltzaindia, euskararen ehun urteko laguna* komikia eta *Berri gogo*a liburua aitatu ditu. Era berean, Iruñean izenpeturiko Nazioarteko lankidetza hitzarmena, *Euskara batuaren adierazpena* eta *Euskararen herria* ehuntzen unitate didaktikoa.

Gaiarekin amaitzeko, Euskaltzaindiaren webguneko zenbait emaitza aurkeztu du. Alde batetik, erabiltzaile bakarren kopurua emendatu da, 2018-2019 aldian, 387.598 izatetik 800.116 izatera igo (% 106) baitira. Beste aldetik, saioak ia bikoiztu egin dira, 866.940 izatetik 1.580.907 izatera igo (% 82,35) dira eta. Azkenik, bistaraturiko orri solteak 3.946.472 izatetik 6.545.504 izatera igo (% 65,86) dira. Sare sozialetan lortutako tokia (Twitterren, Facebooken, Instagramen eta YouTubeen)

esanguratsua da, erabiltzaileen eta jarraitzaileen aldetik igoera nabarmenak gertatu baitira.

4. Euskaltzaindiaren 2020ko egutegia. Aurkeztu.

E. Osa idazkariordeak Euskaltzaindiaren 2020ko egutegiaren proposamena aurkeztu du. Hilez hileko Osoko bilkuren egutegiarekin batera, kontuan har daitezkeen urteurren zein data esanguratsuak jaso dira. Aurkezpena egin ondoren, oharrak egiteko, azaroaren 18rako tartea ireki da.

5. Esku artekoak.

5.1. Hurrengo bilkurak eta ekitaldiak:

- Bilbon, azaroaren 14an eta 15ean, “Arlo sozioekonomikoa euskararen biziberritzean” goiburutzat duela, Euskaltzaindiaren XXIV. Jagon jardunaldia egingo da. Egitaraua Sustapen batzordeak prestatu du. Sagrario Aleman Sustapen batzordeko buruak egitaraua aurkeztu eta banatu du.
- Bilbon, azaroaren 22an, Euskaltzaindia Bilboko Koral Elkartearen Ohorezko Bazkide izendatzeko ekitaldia egingo da, Sociedad Bilbainan. Xehetasunak aurrerago emango dira.
- Baionan, Euskal Museoan, azaroaren 28an, 18:00etan, *Erlea* aldizkariari buruzko hitzaldia emango du B. Atxaga euskaltzainak. Deialdia eta xehetasunak aurrerago igorriko dira.
- Donostian, San Telmo Museoan, azaroaren 29an, 10:00etan, Osoko bilkura egingo da. Egun horretan, 10:30ean, “Euskara Ibiltaria” erakusketa berritua irekiko da toki berean.

6. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 10:30ean.

Euskaltzainburua,

Idazkaria,

Andres Urrutia

Xabier Kintana

Osoko bilkura

Donostian, San Telmo Museoan

2019ko azaroaren 29an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Zabaleta, Patxi, eta
Mikel Zalbide.

Mujika, Alfontso eta Osa Erramun
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Adolfo Arejita, Roberto González de Viñas-

pre, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Txomin Peillen eta Miriam Urkia.

Ahalak: Adolfo Arejitak ahala Andres Urrutiari; Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Miriam Urkiak ahala Andoni Sagarnari.

Ezin etorria adierazi dutenak: Roberto González de Viñaspre, Jose Irazu “Bernardo Atxaga” eta Mikel Zalbide.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririko en zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, azaroko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Hasteko, E. Osa idazkariordeak argibideak eman ditu. Izan ere, 11:00etan zabalduko da hedabideen aurrean Euskara Ibiltaria erakusketa eta, gaurtik aurrera, San Telmo Museoan ikusgai egongo da. Horren ondoren, Osoko bilkurak segida izango du.

1. Osoko bilkurako (2019-10-25)

bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2019ko urriaren 25eko bilkurako bilera-agiria onarturik gelditu da.

2. Exonomastika: *Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak*. 38. arau eguneratua. Jasotako oharrak aztertu eta erabaki.

A. Mujika Exonomastika batzordeko idazkariak egin du aurkezpena. 2019ko irailaren 27ko Osoko bilkuran aurkeztu zuen Exonomastika batzordeak 38. araua eguneratzeko proposamena, eta urriaren 15a arteko epea jarri zen oharrak egiteko. M. Azkarate, M. L. Oñederra eta A. Iñigo euskaltzainek egin dituzte oharrak.

Exonomastika batzordeak oharrak aztertu eta erantzunak prestatu ditu. Banan-banan aztertu dira, eta erabaki hauek hartu dira:

1. Bosnia-Herzegovinako hizkuntza ofizialak bosniera, kroaziera eta serbiera dira, eta oin-ohar hau jarriko da: <Bosniera, kroaziera eta serbiera hizkuntzak serbokroaziera deitu izan zaion hizkuntzaren aldaerak dira. Ofizialki, hiru hizkuntza gisa —bosniera, kroaziera, serbiera— izendatzen dira>.
2. Txekiaren izen ofizialean Txekiako Errepublika jarriko da, eta ez Txekiar Errepublika, gainerakoekin bat etorrarazteko.
3. Estatuaren zerrendan Mendebaldeko Sahara eta Palestina sartuko dira, batzordeak proposatutako oin-oharrekin.
4. Luxenburgo estatu-izena eta Friburgo [Suitza], Hanburgo, Edinburgo, Estrasburgo eta Salzburgo hiri-izenak forma arautu bakarrak izango dira. 1995ean haiekin batera ontzat eman ziren Luxemburg, Fribourg, Hamburg, Edinburgh, Strasbourg eta Salzburg aldaerak baztertzea erabaki da.

Gainerakoan, batzordeak 38. araua eguneratzeko aurkeztutako proposamena onetsirik gelditu da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XVII). Aurkeztu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak hurreratzerik izan ez duenez, A. Sargarna batzordeburuak egin du aurkeztu. Bi zerrenda aurkeztu ditu, euskaltzainek beren oharrak egin ditzaten: lehena XVII. zerrenda izan da, guztira *Euskaltzaindiaren Hiztegiko Batzorde Ahaldunduko* kideek eginiko 78 ohar jasotzen dituen, egitasmotik ohar horiei buruz egindako proposamenak eta hauen arrazoiak dakartzana, eta bigarrena, *Zientzia eta Teknikako Hiztegien Batzordeak* landutako *Lurraren Zientzien Hiztegiko* sarrerei buruz *Euskaltzaindiaren Hiztegiko Batzorde Ahaldunduko* kideek egindako lau ohar jasotzen dituen.

Aurkeztu egin ondoren, bi zerrenda horiei oharrak egiteko, abenduaren 16ra arteko epea irekitzea erabaki da.

4. Euskaltzaindiaren 2020. urteko egutegia. Jasotako oharrak aztertu eta erabaki.

Erabakitako epean oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, Euskaltzaindiaren 2020ko batzar-egutegia onetsirik gelditu da.

5. Esku artekoak.

5.1. Euskaltzainek jasotako aitormenak.

5.1.1. Espainiako Letren Sari Nazionala jasoko du B. Atxaga euskaltzain osoak. Espainiako Kultura Ministerioak 1984. urtetik ematen du urtero-urtero sari hau, eta idazle baten ibilbidea aitortzea du helburu. Osoko bilkuraren izenean B. Atxagari zorionak ematea erabaki da.

5.1.2. Arantxa Urretabizkaia ohorezko euskaltzainak jasoko du Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero ematen duen 2019ko Anton Abbadia saria. Abenduaren 2an, Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan, jasoko du saria, Gipuzkoako Foru Jauregian. Osoko bilkuraren izenean A. Urretabizkaiari zorionak ematea erabaki da.

5.2. Euskaltzaindiari aitormenak.

5.2.1. Euskaltzaindiak Nafarroako Parlamentuaren Urrezko Domina jasoko du abenduaren 2an, 11:00etan, Nafarroako Parlamentuan. Parlamentuak aho batez onarturiko adierazpena banatu du idazkariordeak.

5.2.2. Orreaga Fundazioak “Mariscal Pedro de Navarra” saria emango dio Euskaltzaindiari. Ehun urtez euskal kulturaren alde eginiko lana aitortu nahi zaio sari honekin. Iruñeko Gaztelu plazako kioskoan jasoko du Euskaltzaindiak golardoa, abenduaren 3an, Nafarroaren Egunean.

5.3. UZEI Euskaltzaindiaren erakunde atxikia izateko eginiko eskaria eta proposamena. Lau dokumentu banatu dira:

- a) Euskaltzaindiaren Barne-erregelen 125. artikulua.
- b) UZEIk 2019ko urriaren 30ean, Euskaltzaindiaren Erakunde Atxikia izaera eskuratzeko eginiko eskaria.
- c) Euskaltzaindiaren eta UZEIren arteko azken urteetako harremanak jasotzen dituen azalpen-txostena.
- d) UZEI Euskaltzaindiaren Erakunde Atxikia izateko, Zuzendaritzak, 2019ko azaroaren 12an hartutako erabaki-proposamena.

Horrela, oharrak egiteko, abenduaren 16ra arteko epea irekitzea erabaki da.

5.4. Hurrengo bilkurak eta ekitaldiak:

- Abenduaren 20an, 10:00etan, egingo da Osoko bilkura Lekeitioko udal-txean.
- Egun berean, 12:00etan, R. M. Azkue lehenengo euskaltzainburuari omenaldia egingo zaio, Lekeitioko Andre Mariaren Jasokundearen elizan.

6. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:00etan.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Osoko bilkura

Lekeition, udaletxean

2019ko abenduaren 20an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
zegozkion gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra eta Patxi Salaberri.

Kate Caminok (AEB) eta Arantza Zubillagak (Argentinako Necochea) hitzaldi hunkigarriak egin dituzte. Caminok bere euskal jatorria azpimarratu du, baina euskara etxean jaso ez eta oraintsu ikasi duela aitortu du. Arantza Zubillagak, ordea, Argentinan ikasi zuen euskara eta bere seme-alabek ere bertan ikasi dute.

Ondoren, Euskal Herriak diasporari egiten dion omenaldi eta gorazarrearen erakusgarri, Andres Urrutiak, Bingen Zupiriak eta Maria Angeles Elorzak oroigarri bana banatu diete 21 herrialdetako ordezkariari, Iñigo Urkullu lehendakariak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatutako ziurtagiria, hain zuzen.

Pierre Topet, Jon Mugartegi eta Jon Lopategi omendu ditu Deiadarra elkarteak Xalbadorren egunean

Xalbadorren Eguna urriaren 12an eta 13an izan da Urepelen, eta, ohiko moduan, bertsolariak eta euskal kultura munduko eragileak gogoratu eta omendu dira XV. edizio honetan ere: aurtan Pierre Topet *Etxahun Barkoxe*, eta Xalbadorren

lagun minak izan ziren Jon Mugartegi eta Jon Lopategi omendu ditu Deiadarra elkarteak.

Egitarauan, azpimarratzekoa da urriak 12an eskaini den antzezlanak: *Gaztelondor berri?* (Mixel Etxekopar eta Xiberutarrak), eta 13an ordea, egitarau zabala izan da: goizean goiz mendi ibilaldia egin da Xalbadorren etxolara, eta ondoren meza, eta hitzaldi, Joxemari Iriondo ohorezko euskaltzainaren eskutik: Etxahun Barkoxe, Jon Lopategi, Jon Mugartegi gogoratuz. Eguerdia partean, Bilboko Salbatzaile dantza taldea eta herri kirolak, eta bazkaldu eta gero bertsolarien txanda izan da (Xebastian Lizaso, Onintza Enbeitia, Maialen Arzallus eta Juan Joxe Eizmendi). Arratsalde partean izan den erromeriarekin amaitu da jaialdia.

Bestalde, bertso paper lehiaketa ere antolatu da aurten, bi mailatan: 16 urtez gorakoentzat, *Etxahun Barkoxe* gai hartuta; eta gaztetxoentzat, berriz, Xalbador gai dela.

Ondarearen Europako Jardunaldietan lau hitzaldi antolatu ditu Euskaltzaindiak

Ondarearen Europako Jardunaldien 2019ko ekitaldiak Bizkaiko ondare kulturala plazaratzea du helburu. Egitasmoaren baitan, Euskaltzaindiak joko eta dantzen inguruko lau hitzaldi eskaini ditu Bilboko egoitzan: Urriaren 15ean (euskaraz) eta 16an (gaztelaniaz) jokoak eta dantzak Euskal Herriko toponimian daukaten presentzia aztertu da, Mikel Gorrotxategiren eskutik. Urriaren 22an eta 23an *Euskararen Herri Hizkeren Atlasean* jokoak eta kirolak nola jaso diren erakutsi du Amaia Jauregizarrek (euskaraz bietan).

Ondarearen Europako Jardunaldiak Europako Kontseiluaren ekimena dira, Europako Batzordearen babesarekin eta, funtsean, herritarren eta bere ondarearen artean lotura bat finkatzeko asmoz ospatzen dira. Ate irekien jardunaldi modura daude sortuak, eta aurrekaririk gabeko arrakasta izan dute Europa osoan. 50 estatuko kide baino gehiagok parte hartzen dute ondarearen hedapenerako ekitaldi handi honetan.

Edizio honetan Bizkaiko Foru Aldundiak herrialdeko 58 udalerriren lana koordinatu du; honela, guztira urri osoan zehar garatuko diren doako 200 jarduera inguru programatu dira.

Mendeurrenaren urtea Euskaltzaindiaren oinarriak sendotzeko

Euskaltzaindiak Mendeurrena baliatu nahi izan du euskararekin, euskal kultura-rekin eta euskal gizarte osoarekin duen konpromisoa berriztatzeko, eta, bide batez, dei zabala egin dio euskal gizarte osoari: hain justu, aldi berriari, XXI. mende korapilatsu baina itxaropentsu honi, ilusio berrituarekin ekiteko deia, denok baikara ezinbestekoak euskara indartu eta normalizatuko badugu. Duela mende bat sortu zen Euskaltzaindia, duela mende erdi euskara batua, eta etorkizunean, helburua, euskara batuaz baino euskaraz hitz egitea izango da.

Halaber, aukera aparta izan da, Euskaltzaindiaren lanen ezaugarri berriak plazaratzeko, gizarte eragileekin jarduteko, erakundearen zerbitzu bokazioa azkartu eta indartzeko eta profesionalizazioan, gizarteratzean eta nazioartekotzean sakontzeko.

Jarraian, Euskaltzaindiaren Egitasmoen bateragilea den Ibon Usarraldek Mendeurrenaren kronika idatzi du. Bertan aurkituko du irakurleak ehun urte horien karira Akademiak egindako biltzar, jardunaldi, ekitaldi, kultur-emankizun eta abarren informazio zehatza.

Euskaltzaindiaren Mendeurrena (2018-2019)

USARRALDE, Ibon

Euskaltzaindiaren Egitasmoen bateragilea

Sarrera

Euskaltzaindia sortzeko prozesua 1918. urtean hasi eta 1919. urtean amaitu zen. Honako hauek izan ziren sorrera prozesu horren baitako gertakari nagusienak:

- 1918-01-25. Bizkaiko Diputazioak onartzen du Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu diputatuek aurkeztutako mozioa, zeinetan eskatzen den Bizkaiko Diputazioak eta gainerako hirurek, euskararen akademia [“Bazkunde”] bat sortzea eta sostengatzea erabaki dezaten.
- 1918-09-05. Oñati, Unibertsitatearen eraikina. Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuak [Hizkuntza sailak, zehazki] erabakitzen du aho batez, Txomin Agirre Hizkuntza Sailaren buruaren eskariz, euskararen akademia sortzea eta, orobat, batzorde bat izendatzen da hamabost eguneko epean akademiaren araudia lantzeko: Urreta, Elgezabal, Agirre, Azkue, Olabide, Eleizalde eta Biziola (Olabide izango da, praktikan, lehen proposamena landuko duena). Gainera, une zehaztugabe batean, lehenengo lau euskaltzainak izendatzen ditu: Azkue, Campion, Eleizalde eta Urkixo.
- 1918-10-17. Bilbo, Aldundiaren jauregia. Goian aipatutako batzordea (Elgezabal, Azkue, Olabide, Eleizalde eta Biziola; Urreta eta Agirre ez ziren egon) biltzen da, Olabideren proposamena aztertu eta ontzat ematen du, eta prentsaren bidez zabaltzea erabakitzen du, aldeko eta kontrako iritzia entzuteko.
- 1918-11-17. Bilbo, Aldundiaren jauregia. Batzorde bera (Urreta, Agirre, Azkue, Olabide, Eleizalde eta Biziola; Elgezabal ez zen egon) biltzen da, eta araudiaren azken proposamena onartzen du.
- 1919-03-03. Eusko Ikaskuntzak erabakitzen du araudi-proposamen hori lau

diputazioetara aurkeztea, onar dezaten.

- 1919-04-11. Gipuzkoako Diputazioak proposamena onartzen du.
- 1919-05-05. Bizkaiko Diputazioak proposamena onartzen du.
- 1919-09-02. Arabako Diputazioak proposamena onartzen du.
- 1919-09-03. Nafarroako Diputazioak proposamena onartzen du.
- 1919-09-21. Donostia, Aldundiaren jauregia. Biltzen dira Oñatin izendatuak izan diren lau euskaltzainak (Azkue, Campion, Eleizalde eta Urkixo) eta euskal aldizkarien ordezkariak (K. Etxegarai, RIEV; P. Broussain, *Eskualduna*; Domingo Agirre, *Euskal Esnalea*; Damaso Intza, *Irugarrengo Prantziskotarra*; Cirilo Arzubiaga, *Jaungoiko Zale eta Jesusen Biotzaren Deya*; Toribio Altzaga, *Euskal-Erria*; eta Gregorio Muxika, *Euskalerrriaren alde*), eta beraiekin batera Julian Elortza (Eusko Ikaskuntzaren burua) eta Angel Apraiz (Eusko Ikaskuntzaren idazkaria). Hautatzen dira gainetiko zortzi euskaltzainak, guztiak bozketaz eta guztiak aho batez: Agirre, Broussain, Adema, Intzagarai, Agerre, Eguzkitza, Olabide eta Lhande.
- 1919-09-28. Blas Ademak gutun baten bidez izendapena ez du onartzen. Gai netiko guztiek onartzen dute.
- 1919-10-07. Donostia, Aldundiaren jauregia. Euskaltzaindiaren lehen bilkura. Ademaren ukoaren ondorioz falta den euskaltzaina izendatzen da, bozketaz, aho batez: Martin Landerretxe. Orobat lehen karguak izendatzen dira, bozketaz (eta jada ez aho batez): buru, Azkue (7 boto); diruzain, Agerre (4 boto); liburuzain, Urkixo (8 boto); zadorlari [idazkari], Eleizalde (9 boto). Orobat batzorde bat izendatzen da barne-erregelak lantzeko (Azkue, Eleizalde eta Olabide).
- 1919-10-26. Donostia, Aldundiaren jauregia. Euskaltzaindiaren lehen bilera “arrunta”, hau da, euskaltzainak baino ez ziren bildu (Agerre falta da) eta Azkue izan zen mahaiburu. Orobat, lehen ohorezkoak eta urgazleak izendatu ziren.

Gertakari nagusi horiek kontuan hartuta, Euskaltzaindiak bere Mendeurrena ospatu zuen 2018ko iraila eta 2019ko urria bitartean. Euskaltzaindiaren XX. Barne Jardunaldietan, 2017ko martxoaren 30 eta 31n, aurkeztu ziren Mendeurrenerako oinarritzko abiaburuak. Ondoren, abiaburu horiek Osoko bilkurak onetsi zituen 2017ko maiatzaren 26an.

Mendeurrenaren Batzorde suntsikorra

Euskaltzaindiaren Mendeurrena kudeatzeko, Euskaltzaindiak Mendeurrena batzorde suntsikorra eratu zuen 2017ko uztailaren 3an. Honako hauek osatu zuten batzorde suntsikor hori:

- Zuzendaritzak izendatutakoak: Andres Urrutia (euskaltzainburua), Xarles Videgain (buruordea) eta Adolfo Arejita (Iker sailburua).
- Osoko bilkurak izendatutakoak: Andres Iñigo, Bernardo Atxaga eta Patxi Zabaleta.
- Teknikariak: Erramun Osa (idazkariordea), Iñaki Mendizabal (Komunikazioa eta Irudia) eta Joseba Zabaleta (kudeatzailea). 2017ko azaroan, Ibon Usarralde, Mendeurrenaren eta Egitasmoen bateragilea batu zen batzordera.

Mendeurrena batzorde suntsikorrak, 2017ko irailaren 14an, “Euskaltzaindiaren Mendeurrena (1918-1919/2018-2019). Lehen txostena” dokumentua onartu zuen, Osoko bilkurak 2017ko maiatzaren 26an onetsitako abiaburuen osagarri gisa.

Osoko bilkurak ontzat eman zuen Mendeurrenaren egitaraua 2018ko otsailaren 23an, Iruñeko udaletxean egindako bilkuran.

Mendeurrenaren leloa, logoa eta marka

Mendeurrena batzorde suntsikorrak egitaraua lantzearekin batera Mendeurrenaren leloa, logoa eta horren araberako markaren eskuliburua landu zituen 2018ko udaberrian. Logoa aukeratzeko, hiru proposamen jaso ziren. Azkenean, Digitalak-Haratago enpresaren proposamena aukeratu zen eta jarraian, markaren eskuliburua osatu zen Mendeurrenean zehar logo eta lelo horren erabilera arautzeko.



Mendeurrenaren ideia nagusiak

Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren baitan honako ideia hauek azpimarratu nahi izan ziren:

- Mendeurrenaren egitaraua gauzatzeko elkarlanean jardutea beste eragile publiko, pribatu eta sozialekin.
- Mendeurreneko egitarauko ekimenetan, atzera begira baino etorkizunera begira jardutea.
- Mendeurrenaren bidez ekarpena egitea euskararen biziberritze prozesuari.

Mendeurrenaren helburuak

Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren baitan honako helburu hauek finkatu ziren:

- Euskaltzaindiak mende honetan egin duen lana gizarteratzea eta eginiko bidea balioestea, eta, autokonplazentzian erori gabe, ondo egindakoak azaltzea eta eginkizun daudenak identifikatzea.
- Mendeurrena baliatzea Euskaltzaindiak Iker eta Jagon sailetan etorkizuneko dituen asmoak (hiztun eta erabiltzaileek dituzten beharrak) eta ildo estrategikoak gizarteratzeko.
- Euskaltzaindiaren aitzindaritzaren tarteko dela, euskararen eta euskal kulturaren inguruan, gizarte zibila egituratzen saiatzea, pentsamolde desberdinen gainetik. Helburu nagusia zen datozen bi hamarkadetan euskararen biziberritzeari bultzada berria ematea, gizarte zibiletik abiatuta.

Mendeurrenaren ekarpena

Euskaltzaindiaren Mendeurrenak egin beharko lukeen ekarpena edo utzi beharko lukeen legatua hasiera-hasieratik finkatu zen, egitarauko ekintza eta jardueretan islatu zedin.

Egitarauaren aurkezpen publikoa

2018ko martxoaren 23an aurkeztu ziren publikoki, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, Mendeurrenaren ideia nagusiak, helburuak eta egitaraua, eta orobat leloa, logoa eta marka.

Lankidetza hitzarmenak, babesleak eta laguntzaileak

Mendeurrena gauzatzeko hainbat erakunderekin eta hedabiderekin lankidetza hitzarmenak sinatu ziren eta hainbat erakunde publiko eta pribaturen babes ekonomikoa jaso zen.

Lankidetza hitzarmenak

- Amaia Ballesteros/Juan Luis Zabala.
- Aukeran.
- *Berria*.
- Bilbao Bizkaia Kutxa.
- Bilboko Korala.
- Bizkaia Irratia.
- Cadena Ser Euskadi.
- Cadena Ser Navarra.
- Digitalak-Haratago.
- EITB taldea.
- *El Correo*.
- *El Diario Vasco*.
- Elkar Fundazioa.
- Eroski Fundazioa.
- Euskal Irratiak.
- Euskalerrria Irratia.
- *Gara*.
- *Herria*.
- Ikastolen Elkartea.
- Kutxa Fundazioa.
- Laboral Kutxa.
- Noticias Taldea.
- Radio Nervión.
- Tartean.

- TeleBilbao.
- Tokikom.
- Ulma Fundazioa.

Babesle ekonomikoak

- Arabako Foru Aldundia.
- Baionako Udala.
- Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.
- Bilboko Udala.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Crédit Agricole.
- Donostiako Udala.
- EITB.
- Elkar Fundazioa.
- Eroski Fundazioa.
- Espainiako Gobernua.
- Euskal Hirigune Elkargoa.
- Euskararen Erakunde Publikoa.
- Eusko Jaurlaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Iruñeko Udala.
- Kutxa Fundazioa.
- Laboral Kutxa.
- Nafarroako Gobernua.
- ULMA Fundazioa.
- Vitoria-Gasteizko Udala.

Mendeurrenaren egitaraua

Mendeurrenaren egitarauan 5 motatako ekintzak aurreikusi ziren:

- Egitarau akademikoa (jardunaldiak, argitalpenak eta erakusketa temati-koak).

- Egitarau instituzionala.
- Egitarau artistiko-kulturala.
- Euskaltzaindiaren lehen 100 urteak islatzeko ekimenak.
- Beste izaera bateko ekimenak.

Egitarau akademikoa - Jardunaldiak

Jardunaldi akademikoei buruzko informazio guztia hemen kontsulta daiteke: <https://www.euskaltzaindia.eus/egitaraua/jardunaldi-akademikoak>. Honako hauek dira Mendeurrenean zehar egin diren jardunaldi akademikoei buruzko datu orokorrak:

- 2018ko irailetik 2019ko irailera egin dira; guztira, 10. Jardunaldi horietan aztergai izan dira euskara batua, hizkuntza gutxiagotuen jagotea, ahoskera, dialektologia, literatura, onomastika, hiztegi historiko-etimologikoa, gramatika eta, ingurune digitala eta hizkuntzen estandarizazioa.
- Jardunaldi horietan 170 hizlarik eta 75 aurkezle-moderatzailek parte hartu zuten.
- Jardunaldietan 1.100 parte hartzaile izan ziren.
- Jardunaldiak bideoz grabatu ziren. Bideo horiek Euskaltzaindiaren YouTubeko kanalean ikus daitezke: <https://www.youtube.com/channel/UCHxsqx-kYOjYlWUmrIkkFw/playlists>.
- Jardunaldiak streaming bidez jarraitu ahal izan ziren: guztira, 98 streaming ordu izan ziren eta 2.599 ikustaldi izan zituzten.
- Jardunaldiak euskararen lurralde guztietan egin ziren.
- Jardunaldi horietako batzuk nazioarteko izaera izan zuten.
- Jardunaldi bakoitzak bere argitalpena izango du: 2019an eta, batez ere, 2020an eta 2021ean argitaratuko dira.
- Jardunaldiak Euskaltzaindiaren jardun eremu eta aztergai guztiei buruzkoak izan ziren.
- Jardunaldi horietan Euskaltzaindiaren batzorde, lantalde eta egitasmo guz-

tiek parte hartu zuten.

Jarraian dauden loturetan klikatuta jardunaldi akademiko bakoitzari buruzko informazio xehea irakur daiteke:

- [Euskara batua eta Ipar Euskal Herria: 1964-2018" jardunaldia: 2018ko irailaren 13an, Baionan, Herriko Etxean.](#)
- ["Arantzazutik mundu zabalera \(1968-2018\)" Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarra: 2018ko urriaren 4an, 5ean eta 6an, Arantzazun.](#)
- ["Hizkuntza gutxiagotuak jagon, euskaraz bizi" Euskaltzaindiaren XXIII. Jagon jardunaldia: 2019ko urtarrilaren 17an eta 18an, Iruñean, Baluarten.](#)
- ["Eta ahoskera zer?" jardunaldia: 2019ko otsailaren 14an, Gasteizen, Artiumen.](#)
- ["Aniztasuna: hizkeren berba-mintzoak" Euskaltzaindiaren II. nazioarteko Dialektologia jardunaldia: 2019ko martxoaren 14an eta 15ean, Bilbon, Euskal Museoa.](#)
- ["Idazkien eta hizkuntzen arteko itzulpena: eskuizkribuak, inprimakiak, literatura-artxiiboak" Euskaltzaindiaren nazioarteko Literatura jardunaldia: 2019ko maiatzaren 16an eta 17an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan.](#)
- ["Onomastika-ondarea babestu eta gizarteratu: han-hemengo esperientziak" Euskaltzaindiaren nazioarteko Onomastika jardunaldia: 2019ko ekainaren 13an eta 14an, Gasteizen, Europa jauregian.](#)
- [Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoaren aurkezpen jardunaldia: 2019ko uztailaren 4an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan.](#)
- ["XXI. mendeko gramatikak" jardunaldia: 2019ko uztailaren 11n, Donostian, Luis Villasante Ikergunean.](#)
- ["Ingurune digitala, hizkuntzen estandarizazioa eta euskara" nazioarteko jardunaldia: 2019ko irailaren 12an eta 13an, Donostian, Tabakaleran.](#)

Egitarau Akademikoa - Erakusketak

Egitarau akademikoaren baitan bi erakusketa sortu edo berritu ziren eta horiek Euskal Herriko hainbat herritan jarri ziren. Erakusketei buruzko informazio xehea

jarraian dauden loturetan:

- ["Baiona: 1964, euskara batuaren zedarria erakusketa"](#) - Baionan, Maulen eta Hazparnen.
- ["Euskara Ibiltaria erakusketa berritua"](#) - Bilbon, Bermeon eta Donostian.

Egitarau Akademikoa - Argitalpenak

Egitarau akademikoaren baitan zortzi argitalpen aurkeztu ziren Mendeurrenaren harira. Argitalpenei buruzko informazio xehea jarraian dauden loturetan:

- [Ardi Galdua liburua.](#)
- [Euskara Batuaren Eskuliburua.](#)
- [Euskaltzaindiaren adierazpenak - Euskararen sustatzea \(1976-2018\) liburua.](#)
- [Hizkuntza-zuzenbidea testu-bilduma euskaraz liburua.](#)
- [Euskararen Herri Hizkeren Atlasa - X. liburukia.](#)
- [Kale eta karriken izenak hautatzeko eta idazteko irizpideak liburua.](#)
- [Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa liburua.](#)
- [Pertsona izendegi berritua.](#)

Egitarau Instituzionala

1918ko urtarrilaren 25ean Bizkaiko Diputazioak Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu diputatuek aurkeztutako mozioa onartu izanaren gomutan, 2018ko uztailaren 20an Mendeurrenaren Ohorezko Patronatua eratu zuten hogeita bat erakundek Bizkaiko Foru Jauregian. Informazio gehiago hemen: [Mendeurrenaren Ohorezko Patronatuaren eraketa bilera. Bilbon \(Bizkaiko Foru Aldundian\), 2018ko uztailaren 20an.](#)

1919ko urriaren 7an egin zen, Donostian, Gipuzkoako Foru Jauregian Euskaltzaindiaren lehen bilkura. Bilera horren gomutan, Mendeurrenaren amaiera ekitaldia egin zen, 2019ko urriaren 5ean, Gipuzkoako Foru Jauregian. Informazio gehiago

hemen: [Mendeurrenaren amaiera ekitaldia: Donostian, 2019/10/05ean](#). Hona hemen Andres Urrutiaren egun horretako hitzaldia:

Egun on, guztioi!

Lehenengo hitzak eskerrak emateko ditut. Eskerrak euskal gizarteari, elkarte eta erakunde andanari, herri-erakundeei. Eskerrak, urte hauetan guztietan bidelagun izan zaituztegunako, Mendeurren honetan hur-hurrean lanean jardun dugulako, elkarrekin!

Gipuzkoako plazatik gatoz orain Euskaltzaindiaren Mendeurrenak izango duen azken ekitaldi instituzionala ospatzera. Sokadantzaren bitartez, Denak soka berekoak garela irudikatu dugu, euskarak bakoitzaren jatorria eta pentsamoldea gorabehera bilbatzen gaituelako, euskara guztiontzat eta guztiona dela aditzera eman nahi dugulako.

Ehun urte egin ditu euskararen Akademiak. Ehun urte euskararen historia euskal gizartearekin eta jendearekin batera egiten. Horrexegatik, go-goan hartu behar ditu Euskaltzaindiak, lehendaurrez, Euskaltzaindia ehun urteetan osatu duten guztiak: euskaltzain oso, ohorezko, emeritu, urgazle, batzordekide, langile eta Akademiaren lanetan parte hartu eta lagundu duten guztiak, horiek gabe ezinezkoa izango baitzen Akademiaren jarduna. Biografia desberdinekoak izanik ere, guztion artean egin zuten, egiten dugu eta egingo duzue, ziur nago, iraganeko, oraingo eta geroako Euskaltzaindia, Euskaltzaindia bera gu guztiok, euskal hiztun-elkartea osatzen dugun guztiok osatzen baitugu, norbaitek osatzekotan.

1918-1919 urte bitarte horretan sorturiko Akademiak, egun euskararentzako erakunde aholku emaila ofiziala denak, historian zehar, zin-zinezko komunitate zientifikoa eta akademikoa ondu du, eta bere egitekoa gizartearen zerbitzuan jarri du.

Ehun urte geroago, Euskaltzaindia zuen aurrera dator, gizartearen aurrera dator, besteak beste, hasierako hura, ekin eta jarrai, beste batekin elkartuz, Ehun urte euskara ehuntzen, hori egin duelako Euskaltzaindiak azken ehun urte hauetan, euskara ehundu, bilbatu eta egituratu.

Euskara instituzionalizatu dugu, eta gizarteari zerbitzua eman diogu. Ehun urte bete ditugu jarraitutasunez eta Euskal Herri osoan presente egoten, egunero lanean, etenik gabe. Tenore bateko eta besteko gobernuak ezagutu ditugu, euskararen aldeketasunak eta 'kontrakoak', eta aurrera egin dugu beti, euskal hiztunen elkartea aldeztu, bultzatzen. Hori baita gure zeregina, hauspoa, bihotza eta kemenaren arrazoa.

Hasierako hura bi arlotan mamitu zuten orduko euskaltzainek, Iker eta Jagon sailetan. Euskara ikertu, ikertzen eta ikertuko du Euskaltzaindiak, euskara jagotearekin batera. Ehun urteetan, hainbat aldi igaro ditu euskarak, batera eta bestera, garai zailak, gaitzak, gozoagoak... baina guztietan egon da zutik Euskaltzaindia, euskara jomuga bakarra duela eta gure hizkuntzari emana.

La institución que hace cien años impulsaron las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra para el cultivo y la promoción del euskera es hoy una realidad ya centenaria. Agradecer su presencia hoy entre nosotros es de justicia, como lo es el agradecer la presencia del Gobierno Vasco, del Gobierno de Navarra, del Gobierno español y de la Comunidad de Aglomeración del País Vasco – Euskal Hirigune Elkargoa, simbolizando de esta manera el reconocimiento institucional a Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua vasca, por parte de los poderes públicos de todos los territorios del euskara.

Euskaltzaindia es, desde su creación hace un siglo, transfronteriza y plural, porque nuestra lengua, el euskera, es también transfronteriza y engloba a una comunidad de hablantes también plural. Una comunidad de hablantes dispersa por todo el mundo. Es por ello que quiero aprovechar este momento para lanzar un mensaje de cercanía, afecto y reconocimiento a la diáspora vasca, a esa red de personas, familias e instituciones dispersas por todo el mundo, que han sido y son nuestros mejores representantes y que han trabajado denodadamente para transmitir, promocionar y difundir nuestra lengua y nuestra cultura.

Euskara batua, euskara modernoa, Euskaltzaindiaren engaiamendua

Euskararen batasuna lortzeko aitzindaritza hartu zuen Euskaltzaindiak eta, hainbat euskal eragilerekin batera, euskara batuaren gorpuztea bideratu du eta egun ere bideratzen du.

Orobat, Euskaltzaindiaren oinarrian daude bestelako errealitateak, garai zail eta ilunetan sortu zituenak, eta gerora berezko izaera erdietsi dutenak: Bertsolari Txapelketak, AEK, Euskal Idazleen Elkarte, itzultzaileak, euskarazko tituluak, UZEI, ikastolak, euskarazko argitalpenak, literatura eta ikerketa lehiaketak, hiztegiak eta abar. Hasiera emanaz geroztik euskararen eta euskal kulturaren garapenerako erabakigarri gertatu eta euskalgintzan errotu egin direnak.

Horrela sortu da euskalgintza modernoaren azpiegitura eta hortxe egon da eta egongo da beti euskararen Akademia.

Mendeurren honek, alabaina, beste baterako bidea jorratzen edo irekitzen du. Mendeurren honetatik aurrera, nahitaez, Euskaltzaindiaren lanak bestelako eite eta ezaugarriak izango baititu.

Izatez, guk bete-betean egon eta bizi nahi dugu XXI. mendean, eta esango nuke azken 14 urteetan egin ditugun aldaketa eta ahaleginak norabide horretan doazela. Uste dugu aldaketa horiek nabaritzen ari direla, eta ondoko urteetan are gehiago nabarituko direla. Besteak beste, Mendeurrena hori guztia erakusteko baliatu nahi izan dugu.

Badakigu zeintzuk diren gure on-gaitzak, badakigu zeintzuk diren gure betekizunak, euskal gizartearen beharrezanein behar bezala erantzuteko asmoz, Euskaltzaindiaren zerbitzu-bokazioa aspaldikoa da, baina azkartu eta indartu egin behar dugu.

Eta ez dira horiek berba hutsalak: sare sozialetan gaude -Youtube, Instagram, Twitter eta Facebook-en-; Euskaltzaindiaren Hiztegia digitalizatu genuen 2016an, eta aldian aldiko aldaketak sarera igotzen ditugu sei hilabetero; euskarazko corpus linguistikoetan aitzindari izan ginen eta azken urteetan egin ditugun liburuak euskarri digitalean atera ditugu eta guztion eskura

jarri ditugu; Mendeurrenaren kariaz webgune berria dugu, erabiltzaileen mesedetan; Euskal Herriko gizarte eragile eta erakunde ofizialekin etengabeko harremanak ditugu, beraiekin edozenbat egitasmo antolatu eta partekatu ditugula; gure egoitzen ateak zabaldu ditugu, jardunaldiak, musika emanaldiak eta bisita gidatuak eskainiz publiko zabalarentzat, euskalgintzako eragile eta elkarteei harrera eginez, horiek ere erabil ditzaten.

Jakitun gara aldaketa bide horrek geldiunerik gabekoa behar duela izan, eta horretarako prestatzen ari gara, etorkizunari so. Baina batez ere, Euskaltzaindiak Mendeurrena baliatu nahi izan du euskararekin, euskal kulturarekin eta euskal gizarte osoarekin duen konpromisoa berrizatzeko, eta, bide batez, dei zabala egin dio euskal gizarte osoari: hain justu, aldi berriari, XXI. mende korapilatsu baina itxaropentsu honi, ilusio berrituarekin ekiteko deia, denok baikara ezinbestekoak euskara indartu eta normalizatuko badugu.

Este centenario nos sirve, por tanto, para renovar nuestro compromiso con la sociedad y nuestra ilusión por seguir trabajando por y para el euskera, con quienes, desde el ámbito público y privado, laboran en el día a día para garantizar el futuro de nuestra lengua. Gracias a todos y todas... y una invitación. Invitación a continuar juntos nuestro trabajo por la lengua vasca, como elemento significativo del acervo cultural que nos une, símbolo de nuestro ser e instrumento de cohesión social.

Hona, bada iazko urrian euskara batuaren lehen 50 urteak gogorarazteko sustatu genuen Arantzazuko biltzarraren adierazpenaren hitzak: Adierazpena iaz argitaratu genuen.

Euskaltzaindiak engaiamendua adierazten dio gizarteari, ez goitik behe-rako ezarpenaren aldetik, ezpada pedagogiaren eta konpromisoaren aldetik, ideologia politikoetatik at. Koordinazio lanaren bidez gauzatuko du euskara batuaren sustapena eta bultzada.

Koordinazio horretan ari dira Euskaltzaindia, euskalgintza, gizarte era-

gileak, herri-aginteak eta gainerako erakundeak, eta eginkizun horretan aintzat hartu behar dira euskara batuaren inguruko orain arteko erabakiak, euskara estandar baten nondik norakoak. Izatez, aurrerantzean ere eman beharko dira pausoak euskara batuaren alorlean euskalgintzarekin batera, hizkuntza zerbait bizia baita, etengabe aldatzen ari dena, gizarteak izan ditzakeen premiei egokitzeko asmotan. Hitz batez esateko, Euskaltzaindiak zerbitzua eman behar dio gizarteari, eta euskaldunengandik jasotzen duena euskaldunei itzuli, beraien onura eta erabilerarako”

Debemos prestar ayuda al uso social del euskera y es evidente que debemos facilitar el camino hacia ello, porque, hoy en día, está cada vez más extendida la presencia del euskera en todos los territorios de Euskal Herria. En ello también debemos aunar los cometidos tradicionales de Euskaltzaindia, es decir, la investigación y el fomento del euskera mediante las secciones de Investigación (Iker) y Tutelar (Jagon), tal como lo establecieron los fundadores de la Academia y como lo ha hecho la Academia a lo largo de toda su historia.

On trouve dans les travaux d'Euskaltzaindia des exemples très nombreux sur cette double implication et aujourd'hui nous devons mener ces travaux en collaboration avec les acteurs publics et privés de la politique linguistique pour construire une politique linguistique solide autour du basque.

Etorkizunerako Ardatzak

Euskaltzaindiak euskararen alorreko eta, oro har, euskal kulturaren eta bestelako alorreko gizarte-eragileekin batera jardun nahi du eta jardun behar du, ahalik eta modu zabalenean. Horretan jarriko ditu indarrak hurrengo urteetan.

Hartara, zuen aurrean gaude gaur, Mendeurrena ixtera goazenean, eta horretarako gaude ehun urte geroago Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jauregian, duela ehun urte Euskaltzaindiaren lehen Osoko bilkura egin zen leku

eta aldi berean. Zuen aurrera gatoz gure lanarekin, gure eginak, egiteak eta eginkizunak gizartearen eskura jartzera.

Joan den urteko irailean izan genuen Mendeurren hasierako lehen ekitaldia Baionako herriko etxean. Han banatu zitzaigun partaideei halako koadernoak, halako kaiera, oharrak eta abar jasotzeko. Orduantxe agindu ‘nion nire buruari’, eta gaur berresten dut agindu hura, Mendeurrenaren urte osoko kontuak bertan idatziko nituela eta azken honetan zuei eskainiko.

Horrela egin dut eta gaur idatzi dut azken oharra, hain zuzen ere, gaur zuen aurrean aurkeztzen ari naizena. Koadernoan idatzita dut Euskaltzaindiak lantzen dituen gaiak banan-banan aztertu dituela eta XXI. mende hasieran jarri dituela bere zereginak. Horiek garabidean jartzeko, Euskaltzaindiak badaki eskaintzen duen zerbitzua azkartzearekin batera, herritarrekin, elkarte eta erakundeekin, euskalgintzarekin eta herri-erakundeekin batera jokatu behar duela.

Helburuak eta etorkizuna hor ditugu, besteak beste, digitalizazioa, nazioartekotzea, profesionalizazioa eta gizarteratzea. Horiek izango dira gure ardatzak, gure abiaburuak. Eta horietan Euskaltzaindia zuen zerbitzura dagoenez gero, zuen laguntza eta kolaborazioa behar-beharrezkoak ditugu.

Vocación de servicio, digitalización, internacionalización, profesionalización, socialización... no son palabras huecas para nosotros. Son los ejes de nuestro trabajo para los próximos años.

Euskaltzaindiaren historian, Bilboko Erribera kaleko seigarren zenbakiko egoitza zaharrean, euskararentzako garai ilunetan ere, atean beti egon zen euskarazko errotulu hau: Deitu gabe, sartu!

Euskararentzako garairik zailenetan Euskaltzaindiak beti izan zituen bere atek zabalik euskararentzat, euskal kulturarentzat eta gure ardatz diren hiztunentzat... Gaur ere, atek zabal-zabalik ditu Euskaltzaindiak.

Duela ehun urte bezalaxe, jakitun da XXI. mendeko eskakizunak era askotakoak direla eta lanabes berriak behar direla aurrera joateko, euskara bultzatzen segitzeko. Horien bila goaz, horien eskizan goaz.

Ekin eta jarrai izan da hasieratik gure leloa, guztion leloa, etorkizunean ere izaten segituko duena, eraberritua eta mamitua, euskararen aitzinamendua ahalbidetzeko. Hona berriz gaurko leloa: Denok soka berekoak gara!. Hona, azkenik ere, gure historiaren laburpena: Obrak mintzo, 100 urte euskara ehuntzen!

Atxiki dezagun euskara. Arian-arian, egunero idatzi dezagun gure etorkizuna, elkarrekin! Lagunok, herritarrok... ehun urte igaro dira... Euskaltzaindian, bidelagun zaituztegu, mende berri bati hasiera eman diogu jada!

Mila esker!

Bi ekitaldi nagusi horiez gain, Euskaltzaindiak hamar ekitaldi instituzional gehiago egin zituen Mendeurrenaren baitan: jardunaldi akademiko bakoitzaren hasiera ekitaldiak, hain zuzen ere. Honako hauek izan ziren: [Jardunaldi akademikoaren hasiera ekitaldiak](#).

Egitarau Artistiko-Kulturala

Ekimen artistiko-kulturei buruzko informazio guztia hemen kontsulta daiteke: <https://www.euskaltzaindia.eus/egitaraua/ekitaldi-artistiko-kulturalak>

- [Mende berria kantuz](#) izeneko koru emanaldiak, Bilboko Koralekin elkarlanean. Guztira bost egin ziren: Iruñean, Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Baionan.
- [Ghero](#) izeneko antzerki emanaldiak, Tartean Teatroarekin elkarlanean. Guztira, berrogeita sei emanaldi egin ziren, Euskal Herriko herrietan barrena.
- [Hitzaldia euskal literatura zaharrari buruz Martuteneko kartzelan](#) izeneko irakurraldi dramatizatuak, Bernardo Atxaga eta Joxe Kruz Gurrutxagaren eskutik.

Gutzira, 13 herritan egin ziren emanaldiak.

- [BizHitza](#) izeneko dantza emanaldiak egin ziren, Aukeran dantza konpainiarekin elkarlanean. Gutzira, 6 emanaldi egin ziren.
- [Lautan Hiru](#) izeneko antzerki festibala egin zen Bira, Cafe Bar Bilbao eta 7Katu Gaztetxearekin elkarlanean. Gutzira, 12 emanaldi izan ziren.
- *Astelehen buruzuriak* izeneko musika emanaldiak egin ziren Bilboko egoitzan. Informazio gehiago [hemen](#).
- Mendeurrenako [erromeria](#) egin zen Bilboko Plaza Barrian, Aiko Taldearekin elkarlanean.

Gutzira, ekimen artistiko-kulturalen 90 emanaldi antolatu ziren eta horietara 9.150 ikus-entzule/parte-hartzaile bertaratu ziren. Ekimen artistiko-kulturaleri buruzko informazio guztia [hemen](#) kontsulta daiteke.

Lehen 100 urteak islatzeko ekimenak

Euskaltzaindiaren lehen 100 urteak islatzeko hiru ekimen bultzatu ziren:

- [Euskaltzaindia: egunak eta lanak dokumentala](#). Euskaltzaindiaren Mendeurrenari buruzko dokumental luze bat eta lau dokumental labur ekoitzi ziren (gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez azpititulatuta). Dokumental horiek Beittu enpresak ekoitzi zituen, Bernardo Atxagaren ideia originalean oinarrituta, Fermin Etxegoien zuzendaritzapean. Hemen ikus daitezke: <https://www.youtube.com/watch?v=kNrIu3gyAXY&list=PLShXIrPR19Gx3zon-NwPbYr95oEzNI-uyG>
- [Berri gogoia liburua](#). Euskaltzaindiaren lehen mendeari buruzko liburua ondu zuen Juan Luis Zabala idazleak.
- [Euskaltzaindia, euskararen ehun urteko laguna komikia](#). Euskaltzaindiaren lehen mendeari buruzko liburua ondu zuten Amaia Ballesteros marrazkilariak eta Juan Luis Zabala idazleak.

Bestelako ekimenak

Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren baitan beste lau ekimen ere egin ziren:

- [Nazioarteko lankidetzaren hitzarmena.](#)
- [Euskara batuaren adierazpena.](#)
- “Euskararen herria ehuntzen” unitate didaktikoa.
- Euskaltzaindiaren webgune berritua eta sare sozialak.

Euskaltzaindiak bere webgune berritua aurkeztu zuen 2018ko urrian. Ordutik, 2019ko urrira bitartean honako bilakaera izan zuen webguneak:

- Erabiltzaileak: % 106ko igoera. 2017-2018: 387.598 -> 2018-2019: 800.116.
- Saioak: % 82ko igoera. 2017-2018: 866.940 -> 2018-2019: 1.580.907.
- Orriak: % 66ko igoera. 2017-2018: 3.946.472 -> 2018-2019: 6.545.504.
- Sare sozialei dagokionez, honako hau izan zen bilakaera 2018ko urria eta 2019ko urria bitartean:
- Twitter: jarraitzaileak - 3.881 (2018-10) -> 4.784 (2019-10).
- Facebook: jarraitzaileak - 2.052 (2018-10) -> 2.927 (2019-10).
- Instagram: jarraitzaileak - 467 (2018-10) -> 726 (2019-10).
- YouTube: jarraitzaileak - 5 (2018-10) -> 208 (2019-10). Jardunaldi akademiako hitzaldi guztiak jarri dira YouTuben eta horiez gain, bestelako ekimenen 45 bideo gehiago igo dira.

Mendeurrenaren balorazioa

Euskaltzaindiak Mendeurrenaren balorazioa egin zuen, [2019ko urriaren 22an, prentsaren aurrean](#). Honako ideia hauek azpimarratu ziren: batetik, Euskaltzaindiak Mendeurrena baliatu nahi izan zuela euskararekin, euskal kulturarekin eta euskal gizarte osoarekin duen konpromisoa berriztatzeko, eta, bide batez, dei zabalak egin ziola euskal gizarte osoari: hain justu, aldi berriari, XXI. mende korapilatsu baina itxaropentsu honi, ilusio berrituarekin ekiteko deia, denok ezinbestekoak izanik euskara indartu eta normalizatuko bada.

Bestetik, gizarte eragile publiko eta pribatuekin eginiko elkarlana nabarmendu zen eta, horrezaz gain, Euskaltzaindia etorkizunari begira jarri dela, atzera begira baino. Azkenik, Euskaltzaindia euskarari zerbitzua emateko sortu zela eta etorkizunean ere bokazio horrekin jarraituko duela azpimarratu zen.

Mendeurrenaren balorazioa 2019ko urriaren 25ean, Euskaltzaindiaren Osoko bilkuran ere egin zen.

Omenaldiak

2019an omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

Euskaltzaindiak, bere Mendeurrenaren karietara hainbat omenaldi eta aitortza jaso ditu. Egia da Akademiak gizarteari eta euskalgintzari asko eman diola. Bide beretik, kontrako norabidean ere oso eskertzekoak diren onespén eta txaloak jaso ditu. Zehatz adierazita, honako hauek izan dira jaso dituen omenaldiak:

Merezimenduzko Argia saria jaso du Euskaltzaindiak

Euskarazko astekaria ere Mendeurrena ospatzen ari da urte honetan. Azken 30 urteetan urtero antolatzen ditu Argia sariak, eta aurtengo edizioan Merezimenduzko sariak Eusko Ikaskuntzari eta Euskaltzaindiari ematea erabaki du. Euskaltzaindiari, euskararen eredu batua proposatu zuelako; oraingo ikuspegitik, gure hizkuntzari etorkizuna eman diolako.

Ibilbidearen Elkar saria jaso dute Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak

Sari honekin, bi erakundeek ehun urtez eginiko lana aitortu nahi izan du Elkar Fundazioak. Euskal Herria egituratzeko nahitaezko erakundeak direlako eta gizar-teko gainerako eragileekin elkarlanerako beti erakutsi duten borondateagatik.

Miriam Urkia Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkariak esker onez hartu du saria, Akademiaren izenean. Bere mintzaldian Eusko Ikaskuntza zoriondu du Urkiak, eta, bide batez, Elkar Fundazioa bera ere bai: "Urteak daramatzagu elkarlanean, euskararen zabalkundean elkar hartuta; eta ez zabalkundean bakarrik, gure ikerketa-lanetarako hornitzaile ezin hobeak zarete-eta, edukiak hain eskuzabal gure esku jarrita".

UPV/EHUren Urrezko Domina Euskaltzaindiarentzat, “euskara arautu eta modernizatzeko egindako ahaleginagatik”

Urriaren 25ean egin zen ekitaldian Nekane Balluerka errektoreak bi erakundeen arteko harreman estua nabarmendu du; izan ere, asko dira Euskaltzaindiarekin elkarlanean diharduten UPV/EHUko ikertzaileak.

Urrezko Domina jaso ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak eskerrak eman ditu sariagatik, eta Akademiak, historian zehar, zin-zinezko komunitate zientifiko eta akademikoa ontzeko egin duen ahalegina azpimarratu du.

Miren Azkarate UPV/EHUko Euskal Filologiako katedradunak, UPV/EHUko Euskara Institutuko zuzendari eta euskaltzain oso ere badenak, egin du *laudatio*a, eta Euskaltzaindiak 100 urte hauetan egindako ibilbidea goraipatu du.

UPV/EHUK 1983an ezarritako Urrezko Domina da erakunde honek pertsona fisiko edo juridiko, pribatu eta publikoei egindako aitortpenaren adierazpide, jarduera akademikoagatik edo emandako zerbitzuengatik hura jasotzeko merezimenduak egin dituztenei.

Nafarroako Parlamentuaren Urrezko Domina jaso du Euskaltzaindiak

Abenduaren 2an jaso du, Nafarroako Parlamentuko Osoko bilkuren aretoan.

Nafarroaren Egunaren kariatara antolatutako ekitaldi-programaren barruan egin da sari-ematea, eta Unai Hualde Legebiltzarreko lehendakariak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak parte hartu dute. Ehun urtez euskararen alde eginiko lana aitortu nahi izan diote Euskararen Akademiari.

Orreaga Fundazioak Mariscal Pedro de Navarra saria eman dio Euskaltzaindiari

Ehun urtez euskal kulturaren alde eginiko lana aitortu nahi izan zaio Euskaltzaindiari sari honekin. Iruñeko Gaztelu plazako kioskoan jaso du Euskaltzaindiak golardoa, abenduaren 3an, Nafarroaren egunean.

Orain dela 20 urte ezarri zuen sari hau Orreaga Fundazioak, eta 2018an Eusko Ikaskuntzari egokitu zitzaion.

Euskaltzaindiak bere osotasunean hainbat sari jaso ditu. Halaber, 2019an, hainbat euskaltzain oso, ohorezko eta urgazle omenduak eta sarituak izan dira egin duten lan oparoagatik.

Espainiako Letren Sari Nazionala jaso du Bernardo Atxagak

Atxagaren (Asteasu, Gipuzkoa, 1951) ibilbide literario luze eta emankorrari egini niko aitortza da. Besteak beste, "euskararen eta gaztelaniaren nazioarteko proiektzioan eta modernizazioan eginiko ekarpena" azpimarratu du epaimahaiak, bere eleberrietan "errealitatea eta fikzioa bikain nahastu dituela" aipatuz, hain zuzen, "poesiaz blaitutako narratiba baten eskutik".

Espainiako Kultura Ministerioak 1984. urtetik ematen du urtero-urtero sari hau, eta idazle baten ibilbidea aitortzea du helburu.

Atxaga Euskaltzaindiak argitaratu duen *Erlea* aldizkariaren arduraduna da. Halaber, Akademiaren Mendeurrenerako hitzaldi dramatizatuak prestatu du, Jose Kruz Gurrutxaga aktorearekin batera (*Hitzaldia euskal literaturari buruz Martuteneko kartzelan*).

Labayruk ohorezko laguntzaile izendatu du Jabier Kaltzakorta euskaltzaina

Labayru Fundazioko azken Batzar Nagusian ohorezko laguntzaile berriak izendatu dituzte, tartean, Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoa. Markinarrarekin batera, Jesus Eguzkiza *Eguzkik eta* Miren Josune Aristondok jaso dute Labayruren aitortza.

Urrezko Idazluma Miriam Urkiari, hitzen bidelagunari

Ekainaren 3an Urrezko Idazluma jaso du Miriam Urkia euskaltzain osoak. Euskadiko Liburu Ganbarak urtero ematen du sari hau, euskara, euskal kultura edo literatura sustatu dutenei gorazarre egiteko. Bilboko Liburu Azokarekin

batera ematen da sari hau, aspalditik (lehen saria Joxe Migel Barandiaranek jaso zuen). Asier Muniategi Euskadiko liburu azoken koordinatzaileak azpimarratu du emakumezkoa merezi duen tokia hartzen ari dela euskal kulturaren eta literaturan, eta aitortu du oraingoan omendu nahi izan dutela Urkiak urteetan hiztegigintzan eginiko lan eder eta isila.

Ainhua Arregi euskaltzain urgazleak egin du Urkiaren aurkezpena, eta agertu du berari ez zaiola harrigarri begitantzen aspaldian Miriamek jasotako gorazarre andana, bera Urkiaren lan sendoarean lekuko izan delako. Gogoratu du, baita, Urkiak hizkuntzalaritza eta baliabide teknologikoak uztartu dituela beti bere ibilbidean, eta nabarmendu du Aretxabaletako euskaltzainak *Hiztegi Batuan* eta ondoren *Euskaltzaindiaren Hiztegi*an eginiko lan eskerga.

Sarituak euskalgintza osoaren premia adierazi du, eta hargatik saria euskaldun guztiontzat dela esan du.

Sabino Arana saria jaso du Andres Urrutia euskaltzainburuak

"Euskaltzaindi bizi eta dinamikoaren ereduia sustatzen eginiko ahaleginagatik" eman dio saria Sabino Arana Fundazioak, besteak beste, Andres Urrutiari. Nabarmendu dute, baita ere, "sekulako lanak" hartu dituela, batetik, "euskal foru-zuzenbide zibilararen berezitasuna eta balioa aldeztu" eta, bestetik, "euskara zabaltzen unibertsitatearen eta Zuzenbidearen esparruetan".

Sari hauen bidez, gizartearen zerbitzuan aritzeko prestasun eta ahalegin bikainagatik nabarmentzen diren pertsona ospetsu, erakunde edo gizataldeak aintzatetsi nahi izaten ditu Sabino Arana Fundazioak.

Andres Urrutiarekin batera, XXXI. edizio honetan, ondoko hauen lana eta ahalegina aitortu eta saritu nahi izan ditu Sabino Arana Fundazioak: Gilles Simeoni, Korsikako Kontseilu Exekutiboko burua; Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako adingabe transexualen familien Naizen elkarte; kirolean eta modan espezializatutako Ternua Group euskal enpresa-taldea, eta Baskonia Arabako saskibaloi-taldea.

Arantxa Urretabizkaiak jaso du 2019ko Anton Abbadia saria

Gipuzkoako Foru Aldundiak Arantxa Urretabizkaia idazle donostiarrari eman dio 2019ko Anton Abbadia Saria.

Abenduaren 2an, Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan, jaso du saria ohorezko euskaltzainak, Gipuzkoako Foru Jauregian.

"Urretabizkaiak bizitza osoa darama euskararen alde lanean, baita egoerarik zailenetan ere; euskara batuaren erabilera normalizatzea lortu zuen eta gure hizkuntza aro modernora ekarri zuen belaunaldiaren ordezkaria da. Gainera, aitzindaria izan da euskal literaturan emakumearen gaineko imajinarioaren aldaketan", azaldu dute Aldundiko ordezkariak.

Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1983ko apirilaren 28an, eta ohorezko 2018ko apirilaren 27an.

Bestalde, Euskaltzaindiak zenbait omenalditan parte hartu du, eta, kasu batzuetan, omenaldiaren antolatzaile izan da. Ekitaldi hauetako bereizgarria da omendutako gehienak Euskaltzaindiko kideak direla edo zirela. Hona zenbait adibide:

Senpereko herriak eta Euskaltzaindiak Henri Duhau eta Auxtin Zamora ohorezko euskaltzainak omendu dituzte

Otsailaren 28an egindako ekitaldian parte hartu dute Pierre-Marie Nousbaum auzapezak, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Xarles Videgain Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko ordezkariak. Andres Urrutiak esan du euskarak "egunero" behar gaituela, eta omenduen kemena eta jakintza goraiatu ditu bere mintzaldian. "Une ez errazetan Auxtin Zamora eta Henri Duhau euskaltzain ohorezkoek engaiamendua erakutsi zuten, euskara aitzinatzeko, sustatzeko, gure hizkuntzaren etorkizuna segurtatzeko. Horretara dator gaur Senperen egiten ari garen omenaldi hau".

Ekitaldian bertan herriko domina jaso dute Euskaltzaindiak eta bi euskaltzaleek.

Euskaltzaindiak liturgiako testuen euskaratzaileak omendu ditu

Martxoaren 28an, 1967tik aitzina latineko idazki ofizialak euskarara itzuli zituen taldeari aitortza zabala egin dio Euskaltzaindiak, Bilboko bere egoitzan; hain zuzen, Baiona, Iruñea, Donostia eta Bilboko elizbarrutietan testuak itzultzen ibili ziren abade eta erlijiosoak omendu ditu Akademiak. Euren arteko batzuk dagoe-neko hilda daude, baina beste batzuk ez; azken hauek oraindik lanean ari dira.

‘Euskararen ibilbidea gure elizbarrutietan: liturgiako itzultzaileen e(us)karria’ izan da ekitaldiaren izenburua; izan ere, agerraldian azpimarratu denez, lantalde honek hizkuntzari ekarri nabarmena egin dio, itzulpenak ‘herri xeheak’ ulertzeko moduan egokitzerakoan. Horrez gainera, euskararen euskarri lana ere egin zuten, debekatuta zegoen garai latzetan.

Honako hau omendutakoen zerrenda osoa: Pierre Andiazabal, Xabier Diharce *Iratzeder*, Benoit Olhagaray, Emil Larre, Pierre Xarriton, Arnaud Indart, Michel Idiart, Jean Hiriart-Urruty, Pierre Narbaitz (Baiona), Manuel Lekuona, Anizeto Zugasti, Joan Mari Lekuona, Jose Mari Aranalde, Agustin Apaolaza, Jesus Gaztañaga, Marzelo Gaztañaga, Jose Luis Ansorena, Antonio Sarasola Jose Agustin Orbegozo, Eustasio Etxezarreta, Dionisio Amundarain, Jesus Mari Arrieta, Ramon Irizar (Donostia), Basilio Sarobe, Miguel Plaza, Tomas Otxandorena, Jose Mari Azpiroz, Miguel Azpiroz, Bizente Hernandorena, Juan Goikoetxea (Iruñea), Mikel Zarate, Bitoriano Gandiaga, Karmelo Etxenagusia, Jose Mari Rementeria, Juan Bizente Gallastegi, Jaime Kerexeta, Lontzo Zugazaga eta Lino Akesolo (Bilbo).

Elizbarrutietako itzultzaile taldeetakoek 1967an egin zuten lehenengo batzarra, Iruñean. Handik bi urtera, itzultzaile talde bakarra osatu zen. Testu bera onartzen zen baina hiru eratara argitaratuz: bata Baionarako, bestea Bilborako eta hirugarrena gainontzeko lurraldeetarako. Testuak ez eze, musikak ere aparteko garrantzia izaten zuen, elizbarruti arteko lantaldean bertan moldatzen zirelako ereserkiak eta ospakizunetarako kantuak.

Euskaltzaindiak R. M. Azkue (1869-1951) omendu du

Abenduaren 20an, Euskaltzaindiak gorazarre egin nahi izan dio bere Mendeurrenean Akademiak izan zuen lehen euskaltzainburuari.

Xede nagusi horrekin, Lekeitioko (Bizkaia) Andre Mariaren Jasokundearen basilikan bildu dira euskaltzainak eta Lekeitioko Udaleko ordezkariak. Parte hartu dute, besteak beste, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Koldo Goitia alkateak, Benito Ansola apaizak eta Itxaro Mentxaka mezzosopranoak. Gainera, Euskaltzaindiak urteko azken Osoko bilkura egin du herriko udaletxean.

Omenaldian, Resurreccion Maria Azkuek eginikoak goraipatu ditu Andres Urrutiak: “Azkue, argi esan dezadan, euskal kulturaren erraldoia da, euskal kulturarako zin-zinezko tsunamia, egungo berbak erabiliz”. Azkuerekin batera beste lekeitiar euskaltzale batzuk ere gogoratu ditu euskaltzainburuak bere berbaldian: Aita Kandido Basabe eta Amantzi Urriolabeitia gerraurrekoen artean, eta harrezkeroko Eusebio Erkiaga euskaltzain osoa eta Miren Agur Meabe eta Xabier Erdozia euskaltzain urgazleak.

Hilberri-txostenak

Jon Lopategiren hilberri txostena (1934-2019)

AMURIZA, Xabier

Bertsolaria eta ohorezko euskaltzaina

Jon Lopategi Lauzirika. Muxikan jaioa, 1934ko martxoaren 17an, eta bertan zena, 2019ko otsailaren 7an. Umetan sakramentinoetan sarturik, 22 urterekin utzi zion fraide izateko asmoari. 1960an hasi zen bertsolari txapelketetan parte hartzen. Bizkaikoan, lautan izan zen txapeldun, eta Euskal Herrikoan, behin txapeldun (1989), eta aurreko bietan (1982, 1986), txapeldunorde.

Bizkaiko txapelek Euskal Herriko finaletan parte hartzea ekarri zioten, eta hiru-rogeiko hamarkada hartan, bertsolaririk deituenetako bat bihurtu zen berehala, Euskal Herri guztiko plazetan. Azpillaga lagun zuela, bikote historiko bat osatu zuten, bertsolaritza berri baten aitzindari.

1962an, Bizkaiko txapelketaren Mungiako eskualde-fasean, Alfonso Irigoienek honako azken puntu behartua jarri zion, “azkena emanda” esaten zena:

*Nere gustua egin nuen da
orain bizi naiz dolorez.*

Lopategik kantatu zuen:

"Enamoratu egin nintzan ni
behin udabarriko lorez
oso dotore zegoalako
goitik beheraino kolorez.
Ezkondut nintzan zoritxarrean
bihotz erdiko amorez
nere gustua egin nuen da
orain bizi naiz dolorez".

Gabriel Aresti epaile zegoen bertan, eta *Hierro* egunkarian kronika luzea idatzi zuen Mungiaiko kanporaketaz, 1962-07-17an. Lopategiren bertso horretaz, beste hainbat gorespen handiren artean, idatzi zuen:

El verso que improvisó allí, delante del público y del jurado, fue uno de esos versos marmóreos (...), que quedará en la antología de nuestra poesía amatoria (...), verso cuya traducción no puede expresar toda la prestancia, la elegancia, la poesía que Juan Lopategi supo darle.

Aita Villasantek *Bizkaiko txapeldunarekin hizketan* izeneko elkarrizketa bat egin zion Lopategiri. Elkarrizketa hura Alfonso Irigoienek paper artean agertu zen. Ez zuen jartzen liburu edo aldizkariaren izenik. Ez dakit inon argitaratua izan zen ere. Villasantek galdeturik ea kantatutako bertsoz gogoratzen zuen, Lopategik batzuk kantatu zizkion, batean esanez nola honako lau oinak ipini zizkioten: *fama, dama, ama, darama*.

"Bizi guztian euki izan dot
konkistadorien fama
nahizta hasarrez eukiagaitik
etxian aita ta ama.

Herri honetan ezaututzen dot
maitatutzen dotan dama
baina ni pobre arkitzen naiz ta
aberats batek darama".

Eta Villasantek diotsa:

– Hortxe egin zendun zuk puntu itzela. Polita izan zan hori gero! –Eta jarraitzen du galdetzen: – Non egiten dozu hobeto? Herrietan ala konkurtsoetan?

– Nik konkurtsoetan beti hobeto –Lopategik–. Konkurtsoetan beti esaten deuskue: *hauxe ta hauxe*.

– Ba, horrek lotu egingo dau.

– Lotu bai, baina idea emon be bai.

Arestiren balorazioek gehiegizko eman lezake gaurko begiradatik. Baina bai haren hitz beroek, bai Villasanteren harridura-puntuak ondo adierazten dute bertsolari mota berri bat ikusi zutela Lopategirengan. Zertan egon daiteke gakoa?

Lopategi izan zen bat-bateko bertsolaritzako lehen figura karreraduna. Euskara ere landuta ekarri zuen, hamar urte sakramentinoetan eginda. Haren burua jantziago zegoen maila guztietan. Lehen bi txapelketetan ez zuen ezer egin, «hori eztok bertsolaria» entzun baizik. Eta pentsatu zuen: «Nik hor dabilzan besteek beste egin ez? Aurten prestatuko nok, ba!». Eta prestakuntzan asmatzeko intuizioa izan zuen. Hilabeteen errima-hiztegi basiko eta praktikoa bat burutu ondoren, hurrengo txapelketa airean irabazi zuen. Seguruenik, halako intuiziorik ez zukeen izan ere egingo, hornidura intelektual baten jabe izan ez balitz. Eta intuizioa izanik ere, ez zukeen jakingo nola burutu.

Aita Villasanteri adierazi zion bera, txapelketetan, hobeto moldatzen zela. Hobeto ez dakit, baina ondo moldatzen zela argi utzi zuen. 1986an txapelketa nagusiko finalean, gai hau jarri zioten hiru bertsotarako:

Zahartutako zeure erropak basurara bota dituzu, eta hara non ikusten duzun beste gizon bat zuk botatako erropak jasotzen.

Lopategik lehen bertso biak honakoak kantatu zituen:

"Arropa zahar hoiekin
etsia nengoen
beti jantzi ohi naiz ahal
denik ondoen.
Akaso bota ditut
behar zen baino lehen
baina ondorioa
horra hor nabarmen.
Triste nago zeren
aitona zahar horren
jokoa gaur zer den
ikusi ondoren
miseria gehiegi
daukagu hemen".

"Triste ikusten zaitut
aitona izanik
gaizki hartu zaituzte
egia esanik.
Zer eman nezake nik
zuretzat nigandik?
Ez nuen uste kasu
hori inun zanik.
Hartzazu dohainik
ez eman ordainik
bihotza jadanik
lehertua daukat nik
arropa gehiago ere
badut oraindik".

Arestik arrazoiz goستن zuen Mungiako bertso hura, baina bederatzi puntuko labur hauetan argi dago garapen handia eta zehatza izan zela Lopategiren ibilbidean.

1989an, esan bezala, txapeldun irten zen. Bakarreko gaian, hiru bertsotarako, gai haxe jarri zioten:

Herriko bi lagun atera zineten Everest gailurrera. Mendi ezagun horren azken maldan, zure lagunak istripu latza izan zuen. Zeu bakarrik izan zinen haren azkenaren testigu.

Lopategik, oraingoan bederatziko luzean, bigarren bertsoa honakoa kantatu zuen:

"Ondo betea jarri genuen
jan-edaritan saskia
subentziotan hornitu ere
ibilera garestia.
Bion bihotzak sentitzen zuen
esperantzaren izpia

Everest gaina ia eskuan
ibilera amestia
baina ozpina agertu zen da
aienatu zen ezia
hargatik nire abestia
sentimentutan bustia
Everest punta genun amesa
hura gendun eguzkia
baina laguna eroritzean
itzali zaigu guztia".

Lopategiren dohainetara jorik, malezia eta argitasuna era nabarian eta bitxian batzen zituen. Eta hori, txapelketetan adina edo gehiago, plazako saioetan erakusten zuen. Sen edo bihurritasun oso original bat zeukan, bai bertsoetan, bai hizketan. Bertsolariak jende artean eta jai giroan ibili behar izaten du. Edonor itsasten zaizu, eta gainetik kentzea kosta ere bai, sarritan. Lopategi trebea zen bere burua «mandeulietatik» libratzen. Behin esan zion halako bati: «Hi! Amuriza hire galdezka ibili duk». Eta gero kotxean, bueltan, berak niri, barreka: «Ha pozik joan dok higana!». Beste behin esango zuen: «Kontu horiek Amurizak zekizkik ondo. Eta esplikazioak emateko, beti prest». Eta mandeulia, niregana. Horrela nirekin eta edonorekin. Ataka bakoitzean zirrikitu berri bat asmatuko zuen, eta hura ez zenuen berak nahi ez zuenarekin luzaro egonaraziko. Baina dena elegantziaz egingo zuen. Ez zuen inor muzinez edo erremuskadaz bidaliko, aukera hobia eskaintzen zitzaion sineste osoz baizik. Bertsoetan ere, horrelakoxe malezia zolia zeukan.

Lopategiren beste dohain handi bat, plazako saioetan batez ere, oportunitatearen sena zen. (Eta bide batez, Euskaltzaindiaren bilera batean gaudenez gero, ez saiatu alferrik kontzeptu hori eta bere «oportuno-inoportuno» adjektiboak «egoki, egokitasun» eta horrelako ordain urrunekin adierazten. Gu ere europar ondarekoak gara). Lopategiren bertsokeran, «oportunoa» izateak ematen zion halako efektibitatea. (Beste kontzeptu bat, euskaraz oraindik adierazi ezinean tematzen garena). Beharbada, gero, testuingurutik at, ez ziren hain bertso ikusgarriak izango, baina unean bertan, zirkunstantzien, tokien edo entzuleen gako latenteren bat jotzen zekielako, haren bertsoek beti lortzen zuten onarpen berezi bat.

Buka dezadan esanez, bere hornidura intelektualaren eta bere malezia dotore eta argitasun oportuno horien gainean, Lopategi izan dela bat-bateko bertsogintzak eman duen figurarik arrakastatsuenetako bat.

Alan Kingen hilberri txostena (1954-2019)

AZKARATE, Miren

Euskaltzain osoa

Euskarak, zorionez, ia beti izan ditu atzerriko adituak euskarari ekarpen handiak egin dizkietenak. Oraintsukoak baino ez aipatzearren, guztiok ditugu gogoan Larry Trask, Rudolf de Rijk, Bernhard Hurch eta, horien artean, nola ez, Alan Roy King. Egia esan, kosta egiten zaigu ezagutu ditugunoi Alan King edo Rudolf de Rijk ‘atzeritartzat’ hartzea. Bereziki, Alan Kingen kasuan, gure artean eman zuen-eta bere bizitzaren zatirik handiena. Gure artean, gurekin batera gramatika-lanetan. Gutako bat zen, beste euskaldun bat gehiago. Ingalaterran jaio zen 1954ko urriaren 24an, baina bere hitzak baino hoberik ez dugu aurkituko Alan Roy King nor izan den jakiteko:

Ingalaterrako ipar-mendebaldean jaioa naiz, kostako herri batean, Lancashire izeneko kondaduan. Nire gurasoak Londresen jaio ziren eta aiton-amonak, berriz, Ekialdeko Europako etorkin juduak ziren. Hamahiru urte bete arte Ingalaterran hazi nintzen eta gero Kalifornian, eta ondoren Europara itzuli nintzen. Hogeita bost urte nituelarik Euskal Herrira etorri nintzen bizitzera, eta geroztik bertan bizi izan naiz, Gipuzkoan, nahiz eta aldi batzuk kanpoan igaro, hala nola Ingalaterran (berriz), Katalunian, Galesen eta El Salvadorren (Erdi Amerikan alegia). Ama eta anaia Hawaiin ditut eta han ere pasatzen ditut alditxoak noizbehinka.

Bizitzako joan-etorriei gain, zaletasunen eta kontu gogokoenen berri ere utzi zizun Alanek (bizirik zegoela zuen webgunean): «Hizkuntzak ditut zaletasun nagusia. (...). Hizkuntzei lotutako hainbat arlo interesatzen zaizkit, hala nola hizkuntzalaritza (nola ‘funtzionatzen’ duten aztertzea, alegia), gramatika (haien deskribapena jorratzea) eta hizkuntzalaritza aplikatua delakoa (hizkuntzak nola irakats). (...). Modu berezian atentzioa deitzen didate euskara bezalako hizkuntza ‘txiki’ edo minorizatu direlakoek, eta ondorioz, hizkuntzen berreskurapenaren arloak baita ere».

Horregatik hasi zen euskaraz ikasten Euskal Herrira etorri bezain laster. Gra-

matiketarako zaletasunak lagundu egin zion batetik euskararen arau eta egiturak bereganatzen eta baliabideak eman zizkion, bestetik, egitura horiek hizkuntzalaritzaren begietatik aztertzeko. Jakin-min eta prestakuntza horrek ekarri zuen Alan Gramatika batzordera eta *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* liburuki sortan parte hartzera. Txostengileen artean ikusiko dugu Alan Kingen izena *EGLU I, II, III, IV* eta *V* liburukietan. Bestelako bideak ere hartu zituen 2000. urtetik aurrera. Baina beti jarraitu zuen Gramatika batzordeari atxikia. Euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak 2003ko urtarilaren 31n.

Gramatika batzordean eginiko lanaz gain, *The Basque Language: A Practical Introduction* argitaratu zuen Renoko Unibertsitatean 1994an eta handik bi urtera, *Basque Grammar, Colloquial Basque* Begotxu Olaizolarekin batera, hizkuntzalaritzaren munduan prestigio handikoa den Routledge argitaletxean.

Baina, berak aitortu bezala, hizkuntza gutxituak, oro har, ziren Alan Kingen jakin-mineko. Horregatik 2002 eta 2005en arteko Salvadorreko egonaldian *nawat* (adinean aurrera doazen hiztun gutxi batzuk baino ez dira geratzen) eta *lenca* hizkuntzetara ere hurbildu zen eta 2004an *Gramática elemental del náhuat* eta 2011n *Timumachtikan! Curso de lengua náhuat para principiantes Adultos*¹ argitaratu zituen.

Eta Alan Kingek landutako hirugarren arloa, hizkuntzen berreskurapen eta biziberritzearena. Kezka eta lan horren emaitza dira “Hizkuntzak biziberritzeko paradigmak” lana (azkenetakoa, azkena ez bada), 2018an Oxfordek desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen gainean argitaraturiko eskulibururako² idatzia. Edo “El náhuat y su recuperación” artikulua.

Izan ere, hizkuntzekiko miresmena zen Alanen ezaugarri nabarmenetako bat. Eta miresmenak zekarren ondoren konpromisoa. Alan Roy Kingen konpromiso hori, argi ikusten da hil aurretxoan *Zarauzko Hitzan* argitaratzeko egin zioten elkarrizketan. Elkarrizketa horretan argi geratzen da zer zen hizkuntza Alanentzat. Argi zuen hizkuntza batek kultura islatzen duela: “Funtsean, kultura pertsonen arteko harremanetan ageri da, eta hori hizkuntzaren bidez adierazten da” esan zuen elkarrizketa horretan. Areago, “Hizkuntza gizakiaren funtsezko dimentsio bat da. Hizkuntzak egin egiten gaitu, eta denok hizkuntza bera izango bagenu, aniztasuna galduko genuke. Zenbat herrik galduko lukete beren nortasuna? Hondamendi bat”.

1 King, Alan (2011): *Timumachtikan !: Curso de lengua náhuat para principiantes Adultos*. El Salvador: Izalco. Iniciativa Para La Recuperación del Idioma náhuat.

2 King, Alan (2018): “Language Recovery Paradigms”. Kenneth L. Rehg and Lyle Campbell *The Oxford Handbook of Endangered Languages*. New York: Oxford University Press, 531-552.

Hizkuntzei buruzko ikusmolde hori izanik, erraz ulertzen da zergatik ikusten zuen bere burua mediku moduan, gaixorik dauden hizkuntzei etorkizuna bermatzeko ahaleaginean, eta ez arkeologo moduan. Hizkuntzak bizirik nahi zituen, bakoitza bere gizartearen adierazle eta komunikazio-tresna. Arkeologo ala mediku? galdetu zion kazetariak: “Arkeologoaren analogia egokia da –erantzun zion Alaneke–; hizkuntzalari batzuek lehentasuna hizkuntza bati buruz ahal dugun guztia ikasteari ematen diote, hizkuntza hori hiltzean, erregistratua egon dadin. Baina horrek ez dio irtenbide bat eskaintzen hizkuntza minoritario baten hitzun bati; horretarako, medikuak behar dira”.

Izan ere, hizkuntza bat hiltzean mundu bat hiltzen dela esan zuen, eta ondorioz, denok ateratzen garela galtzaile. Hizkuntza bat galtzea ia herri bat galtzea da. “Inglaterra zer izango litzateke ingelesik gabe?” galdetu zion ez dakit ziur bere buruari ala kazetariari. Eta jarraitu zuen: “Urrutiko hizkuntza bat galtzeak nola eragingo die besteei? Zuri agian ez zaizu axola, baina hango hitzunei bai. Haien nortasuna mantentzea eskubide bat da, eta ez da herrialde handi baten eskubidea baino gutxiago. Giza eskubideez ari gara, eta tamainak ez du garrantzirik nortasunaren defentsan”.

Ikuskera horrek eraman zuen El Salvadorren emandako urteetan (2002-2005) *nahuatl* hizkuntzarekin ere mediku-lanak egitera. Hilzorian dagoen hizkuntza hau ikasi, oinarrizko gramatika idatzi eta baita *nahuatl* ikasteko metodo edo ikastaro bat ere. Alani horixe interesatzen zitzaiolako: hizkuntzek nola funtzionatzen duten aztertzea, gramatikak (hizkuntzen deskribapena jorratzea) eta hizkuntzak nola irakatsi lantzea.

Azken urteetan, berriro ere Euskal Herrira itzulirik, sarri ikusi genuen Gramatika batzordeko bileretan, azken urteetan ondu dugun *Gramatikaren* prestalanetan ari ginela. Kontuan hartzekoak ziren bere ekarpenak, ohi bezala. Zoritxarrez, ez zuen aukerarik izan *Gramatika* amaitua ikusteko.

Baina hizkuntza gutxituak, galtzeko arriskuan daudenak landu dituen ikerlariak gain, “bestelako” interesak ere bazituen gizona zen Alan King. Esaterako, Bibliako hebreera, eta neurri batean baita antzinako hizkuntza semitikoak ere. Sumertar hizkuntzari buruzko bideo bat YouTuben aurkitu ondoren, bideoaren egileei idatzi zien mezu luzean ikus dezakegu hizkuntza gutxituen mediku-lanak egiteaz gainera, zerk erakartzen zuen Alan:

Hizkuntzek nola funtzionatzen duten, nola erabiltzen diren besteei azaltzeak erakartzen nau gehien. Adibidez, Bibliako Hebreera hizkuntza idatzi moduan ezagutu dugu, baina aspaldiko garai batean ahozko hizkuntza gisa nolakoa izan zitekeen imajinatzeak erakartzen nau, gizarteko bateko kideen arteko ahozko komunikaziorako tresna gisa. (...) Bibliako Hebreerak liluratu nau urtetan eta urtetan eta, bereziki, Genesiak, Hasierak, nire liburu gogokoenak. (...) Genesia (eta Genesiari buruzkoak) irakurtzea izan da luzaroan denbora-pasa moduko bat.

Denbora-pasa baino zerbait gehiago ere bai, Testamentu Berria eta Hasiera itzuli zituelako nahuatlera. Pentsatzen dut atsegin handiz irakurriko zituela Alanek Babelgo dorreari buruzkoak, nik, hebreeraz ezin irakurri eta euskaraz irakurri ditudanak: “Jaitsi zen Jauna gizasemeak eraikitzen ari ziren hiria eta dorrea ikustera, eta esan zuen: ‘Hara guztiak herri bat bera dira, hizkuntza bat berekoak. Hau beren lehenengo lana badute, ez zaie aurrerantzean egin nahiko duten ezer ezinezko gertatuko. Jaitsi eta nahas diezaiegun, bada, hizkuntza, elkar uler ez dezaten’. Horrela, Jaunak handik bota eta mundu zabalean sakabanatu zituen (...) Horregatik Babel –hau da, ‘Nahasketa’– eman zioten izena, han nahasi baitzuen Jaunak mundu osoko hizkuntza eta handik sakabanatu baitzituen mundu zabalera”. Hor lortu zuen Alanek gozamenerako baliabidea.

Mezu horretan berriro ere aitortzen du gramatikak irakurtzea zela beretzat gogokoa, gozokiak jatea baino gogokoago. Horregatik erabaki zuen azken hilabeteetan ere gogokoen zuen horri eustea, telebista ikusten orduak ematea baino. Eta horrela aurkitu zuen sumerierari buruzko lana. Sumerieraz gauza handirik jakiteko aukerarik izan ez zuenez (besteak beste Interneten eskura zitekeen materialik ere ez zegoelako), bideo hori aurkitzea, izkinan gozoki denda berri bat ireki dutela jakitearen pareko izan omen zen. Zer egin? Zalantzarik gabe, askoz erakargarriago zitzaion aurkitutakoa arretaz aztertu, eta beste hainbatetan egin bezala, hizkuntza hori ikasteko irakasgaiak lantzea, *Colombo* ikustea baino. Horixe zen mezu luze hark zeraman eranskina: sumeriera erraza (*simple sumerian*), hizkuntza hori ikasteko lehen lau irakasgaien zirriborroa. Zoritxarrez, ez zuen aurrera segitzerik izan. 2019ko otsailaren 20an utzi gintuen.

Patxi Goenagak idatzi bezala, “euskaldun hizkuntzalari jakintsu, zorrotz, zuzen eta maitagarri batek” utzi gintuen egun hartan. San Salvadorreko Kultura Idazkaritzak beste hau idatzi zuen: “La Secretaria de Cultura de San Salvador lamenta el sensible fallecimiento de Alan Roy King, lingüista británico que colaboró en el

proceso de recuperación del náhuat y de la visibilización de sus hablantes. *Temiki tutaketzalis nian ne takamet kipalewiat. Padiush senpa Alan Roy King* (No muere nuestra lengua ni las personas que la ayudan. Gracias siempre Alan Roy King)”.

Alan Kingen oroimenezko lerro hauek berriro ere bere hitzekin amaitu nahi ditut: «urte guzti hauetan zehar euskararen berreskurapen prozesuan nolabait parte hartzen ari izan naizela esan daiteke (eta harro esaten dut!). Baina egia izan arren era apal eta xume batean euskarari laguntzen ahalegindu naizela neure bizitzan, ez nuke gutxiago azpimarratuko euskalgile eta euskaldunekin izan ditudan harreman luzeak neuri opatu dizkidan ikasgai oparoen jasotzaile izan naizela ni». Gu ere, Alan, zure ikasgai oparoen jasotzaile izan gara, eta, batez ere, zure adiskidetasunaren hartzaile.

Patxi Goenagari “lapurtuko” dizkiot azken hitzak:

Mila esker, Alan, azken berrogei urte hauetan eman dizkiguan irakaspen aberatsengatik. Gramatika batzordean jende askok gauza bera esango dik: hi bai, mutila hi! Hire jakituria handia argiro eta apaltasunez eskaini diguk. Eta gure euskara heurea ere bazela frogatzeko gai izan haiz, egintzekin frogatu ere: lan bikaina utzi diguk, idatziz eta hitzez. Hik irakatsiaren erdia geureganatuko bagenu, ez huke gutxi izango. Euskara ez zagok salbu. Egia, baina hi bezalako euskaldunak munduan bizi direino, euskara biziko duk. Hire hitzak hor segitzen dik oraingo eta geroko euskaldunen itsasargi gisa.

Anjel Aintzibururen hilberri txostena (1930 -2019)

ARBELBIDE, Xipri

Ohorezko euskaltzaina

Idazle kontrabandista

Gure literaturan izan ditugu apezak trumilka. Elizanbururekin Napoleon enperadorearen guardiako kapitaina, Xalbadorrekin laboraria, Duvoisinekin mugazaina. Anjel Aintzibururekin hona lehen kontrabandista. Nolaz ez izan kontrabandista Luzaidek eta Arnegik herri bera egin dutelarik, han nonbait, noizbait, norbaitek erabaki arte, erditik jausten den erreka hori «muga» deituko zela? Ama Arnegi Argaraikoa zeukan, Joseph Kamino apez euskaltzain urgazlearen arreba; semeari frantsesa ikasarazi zion Luzaiden berean, irakasle berezi batekin. Aintziburu aita, berriz, Luzaide Bordelekoa, Bordel bertsolariaren etxekoa. Behere hartan nehork ez lezake mugarik ikus, guardia zibilik ez balitz. Bestalde, Anjelek bazuen bi aldeetarik euskararako jokia.

Dena den, Anjel Aintziburu Luzaideko eliza baino goraxeago sortu zen Buruzurienea deitu baserrian; berrehun ardi hazten zituen hor aitak, eta esnea gasnatzen. Anjel gazteak, sakelako sosa egiteko, Kurutxet autobusa gidatu zuen Arnegitik Donibanerak merkatu egunetan. Gain-gainetik estimatua zen: «Zer gizon planttako! Zer gizon xarmanta».

Donibanen mundu modernoan sartu zen. Maiorgako eskolaren ezagutza egin eta bere haurrak hor eman, euskara eta gaztelaniarekin frantsesa ere jakiteak ez ziela kalterik egingen pentsaturik. Laborantzaz, ez baitzen handitzeko menturarik Gai-nekoletako patarretan, Aurizperriko ordoki hartan alokatu zituen pentze zenbait, abere gehiago hazteko.

Donibaneko merkatuan ohartu zen uraren bi aldeetan ala ardi, ala behi, ala urde, ez zirela prezio berean saltzen. Gogoetak egin eta hasi zen merkeago ziren aldean

erosten, karioago zirenean saltzeko. Zenbaitek hori deitzen dute kontrabandoa, baina Anjelentzat errekaeren bi aldeetan herri bera zenez...

Aferak franko polliki zihoazen, familiako bat jelos izateko puntuan. Guardia zibilei salatu zien, eta hauek begitan hartu gure «kontrabandistak» (?). Lehen hauteskundeetan parez pare izan zuen delako salatari; honek, luzaidar batzuen botoen gainerat bildu zituen guardia zibilenak eta hauen emazteenak.

Baina parada laster aurkitu zuen Anjelek. Emaztea ile-apaintzailea zenez, baze-kien ileen kolorea alda zitekeela. Zergatik ez behiena. Eta hona non Arnegiko behi gorriak zuhail bilakatu ziren Luzaiden sartzeko, eta Luzaideko gorriak zuhail Arnegirat joan behar zutelarik, bakoitzari zegokion agiriak zioen bezala. Delako salatariari sinesgarritasun eskasa aurkitu zioten guardia zibilek.

Aferak franko polliki joan zirelako frogatzen, hiru mailako etxe eder bat eraiki zuen bide bazterrean bere bost haurren egoitza izateko eta andrearen ile mozteko gela. Ostatu eta hotel izateko ere oso egokia. Guardia zibilek ez zuten zilatatu nondik ateratu zuen hiru solairutako etxe hura eraikitzeke dirua, Luzaideko ederrena.

Anjel eliztarra zen eta entzuna zuen Jesusen ohar hau: «Gizona ez da bakarrik ogiz bizi». Diruaz besterik ere behar du bere gogoak, arima hazteko. Hain zuzen J. M. Sartrustegi euskaltzaina zen Luzaideko bikario. Auspoa bilduman liburu bat plazaratu zuen, *Bordel Bertsularia* (1965) Juan Etxamendi Anjelen familiako amerikanoaren bertsoekin. Gero bigarren bat: *Luzaideko kantiak* (1967). Anjelek irakurri zituen. Literaturari eta bertsolaritzari interesatu zen luzaidar gaztea. Ezagutu zituen Xalbador, Mattin eta garai haietako beste bertsolariak, adibidez Luzaide edo Arnegiko bestetan agertzen zirelarik. Berak ere antolatu zituen bertsolari saioak.

Tratuan ari delarik solasa franko ibiltzen baita, ohartu zen ahanzteak bekatu izan zela istorioak zebiltzala jendeen aho mihitan; herri bat edo beste baizik ez zutenak hunkitzen frankotan. Zaharrak joan arau, galduko ziren. Alabaina, telebista sukaldeetan errege sartuz geroz, xaharren istorioek ez zuten lehenagoko arrakastarik. Eta horien denen idazten hasi zen "gure herriaren istorio parte bat bederen argitaraturik gelditu zaien denak galtzera utzi gabe". Luzaide eta inguruetatik oroitzapen asko bildu zituen eta *Luzaiden gaindi* bi liburutan agertu, (450 orrialde ez baita gutxi).

Ordenagailuan baditu beste lan batzuk, hala nola hartz eta otsoez, hor berean entzunak edo beste nonbaitetik hartuak. Heriotzen karietarat ziren ohidurak ere aipu ditu. Horiek denak hain segur galduak izanen baitziren berak idatziz eman ez balitu.

Istorio horietarik bat aipatzeko, hona Josefa Fernanda infantarena. Baionara erbesteratua, esperantzeta izaki eta kezkatua zen, nahiz haurra Espainiako lurretan sortu zedin: Arnegiko Pertolenea etxerat etorri zen. Haurraz erditzeko, uraz bestaldean zegoen txokolate fabrika ttipirat joan zen erdiminetan izan zelarik, etxearen eta fabrikaren artean zegoen oinezkoen hamar metroko zubixkatik, eta horrela zen Josefa Fernanda erdi, bere ustez ‘Espainian’ Raimundo infantearen semeaz.

Manex Goihenetxek erran zigun behin, historia orokorra egiteko eskas zirela monografia ttipiak. Anjelek bere partea ekarri du. Historiari interesatzen zelako frogia, liburutegi aberatsa utzi du, historia hunkitzen duten liburu ainitzekin.

Etxepareren garaietan bere *thornuia* izateko euskarak liburuak behar zituen beza-la, gaur egun irratitelebastak baitezpadakoak zaizkio. Bi irratitan ari izan da lanean Anjel: Iparraldeko Irulegiko Irratian hau 1982an sortu zenetik, bai eta geroago Aezkoako Irati Irratian, pilota partidak komentatzen zituela, herriko berriak ematen, bai eta beste gauza asko, ainitzetan gaiari zihoakion kantu zahar bat emanez bururatzen zuela bere emanaldia.

Beste lan batzuen artean, 48 kantu ere baditu ordenagailuan. Batzuk ezagunak, hala nola *Oi Baldorba*, *Nevadarat joan nintzen*, *Jeiki jeiki* eta horrelako, bai eta berak idatziak, hala nola Zelaieta Luzaideko apezaren ohoretan idatzia, «aitatxik» bere haur ttipien bataio edo komunioen karietarat eginak, eta beste. Norbaitek beharko luke orrialde horiei hurbilagotik begiratu ikusteko zer publikatu behar litekeen.

Dena den, Anjel Aintziburuk erakusten digu laborari soil batek izan dezakeen kultura maila eta kultura orokorrari bere partea ekar diezaiokeela. Euskaltzain ohorezko izendatua, Euskaltzaindiak egin dio merezi zuen ikustatea.

Txomin Solabarrietaren hilberri txostena (1927-2019)

BARAIAZARRA, Luis

Ohorezko euskaltzaina

Txomin Solabarrieta Etxaburu Ondarroan jaio zen 1927ko abuztuaren 17an. Sei neba-arreben artean gazteena. *Etxeko sein*a esango genuke Bizkaiko herri askotan; Ondarroan, *uzkar-úmi*. Argi dago amaren parteko aitona-amonek ezin ahaztuzko oroipena utzi zutela Txomin haurraren; honela dio berak: “Aittitte Islao Etxaburu Badiola eta aume Brijida Garramiola Berridi, amaren aita eta ama, gugaz bizi ziren. Ez nituen ezagutu aitaren gurasoak, aittitte Casto Buenaventura eta aume Casta Hilaria Arcocha. Aittitte Casto itto egin zen”. Tristuraz dakar gogora itsasoan galdu ziren beste bere aurretiko batzuk ere: “Francisco Antonio Solabarrieta Echave, Ondarroara Zarautzik etorria, 1816ko abenduaren 23ko gauean bere 13 urteko seme Jose Antonio Solabarrieta Ibarlozarekin batera ito zen. Hau dugu Ondarroako Solabarrietatarrek gure lehen asaba. Baserritik etorri... itsasoan galtzeko! (...) Beharbada, horregaitik, nik ez dut itotakoen autua atsegin. (...) Liburuetan gure aittittaren aitta agertzen da Ondarroan SOLABARRIETA deituraz lehena: 1815 JOSE MARIA SOLABARRIETA BADIOLA”.

Arrantzale familia da alde guztietatik; belaunez belaun arrantzaleak izan dira. Itsas zabalera joan zenekoa honela kontatzen digu: “Ni itsas zabalera birritan baino ez nintzen joan. Behin, izurdeak, baina mordo bat, e!, ontzia martxan zihoala gure inguruan brastadaka bide luzean ibili zirela, eskuarekin hartzeko moduan”.

Hautzaroko giroa

Hautzaroko jolas eta abenturatxoek ere utzi dute arrastoa berarengan:

Guk umetan asko jolasten genuen: garaian garaikoa. Neguan negukoak eta udan udakoak. Pilotan, futboleak, igerian, batelean, mendira ere joaten ginen: sagar lapurretan, intxaurretan, gartzainetan... Nik eta nire ingurukoek goiz ikasi genuen kolkokada sagarrik ez hartzen, bi edo hiru eta kito. Guarda ere egoten zen. Bat ona. Mendian sagar lapurretan mutil aldra ikusten zuenean, hiru bider txistu jotzen zuen. Bat entzundakoan, argi ibili. Bigarrena jotzen zuenean, hobe alde egin, ze hirugarrena jotzen zuenean zeure gain-gainean agertzen zen. Ondarroako umeentzat hondartza sobra zegoen. Guk kafeko atzean, zubi zaharrekoak-eta astilerokan, San Inazio kalekoak-eta errebala txikian, harantzago edo honantzago... Artibai ibaian. Geroago jendeak hartu zuen hondartzarako joera. Nik ere harrapatu nuen garai hori. Plaiarako zubia pasatzea txori tiki bat kostatzen zen, eta ez zegoen udako egun guztietan horrenbeste dirurik.

Umeen artean euskal giro jatorra zegoela esango digu ondorengo lerroetan:

Eskola barruan, eta han ere maisuari izan ezik, beti eta edonon euskaraz jarduten genuen etxean, kalean, elizan... Dotrina, kristau ikasbidea, eskolan gaztelaniaz eta elizan euskaraz. Ondarroan jaunartze bi egiten ziren: komunio txikia eta komunio handia. Txikia zazpi urte betetzean, eta handia hamar urterekin. Hemen parte hartu ahal izateko apaizek azterketa egiten zieten umei. Gainditzen zutenei txartela eskuratzen zieten. Lehengusina batek esan zidan: zu bai, zu ederto, zu gaztelaniaz ondo ikasita zaude eta..., baina nire anaia... ez dakit zelan ibiliko den. Nire erantzuna: nik euskaraz egin dut etsamina, sakristian, D. Segundo eta D. Eugenioren aurrean. Guk umetan hizkuntzari dagokionez ez dugu inolako arazorik eta konplexurik eduki.

Kanpoan zenean etxekoei eginiko eskutitzak euskaraz izaten ziren eta etxekoek berari eginikoak ere bai, hori dela-eta inguruko batzuk harritzeraino. Euskara eta kantua batera joan dira Ondarroan. Hona zer zioen honetaz Txominek:

Ondarroa herri kantaria izan da. Tabernetan, fabriketan... baporetan ere bai, diotenez. Guk ume-umetatik, entzunaren entzunez, bertso zahar asko ikasi genituen eta mota askotako abestiak. Gabon kantak, esaterako, dozena bat bai. Gabon egunean Gabonetakoak eta Errege egunean erregetakoak". Geroago, seminarioan, D. Andoni Bazterretxea apaizaren eta Ondarroako semearen laguntza handia izan zutela ikasleek esango digu: "Hura beti zebilen bertsoak kantatzen. Honengandik nik batez ere Iparraldeko abestiak ikasi nituen. Abesti horiek balio izan didate gero 'Adorez taldean' eginiko liburuetarako".

Eskolako abentura eta pasadizoekin orrialde asko eta politak bete litezke, baina laburtu beharrez, honako hauek jaso ditut: txiki-txikitatik kontzejuko eskolara ibili zen Txomin. *Maisu txikixe* esaten ziotena izan zuten urtebetean edo. Gero D. Luis Diez, Gasteizkoa. Maisu ona, baina kontzejura (udaletxera) joan behar izaten zuen beste zeregin batzuk betetzeko. Eta ordenantza baten esanera gelditzen ziren umeak; zatiketa luze-luzeak egiten zituen arbel luzeagoan. Maisuarengana eskola partikularrak hartzera joaten zen Txomin; honela diosku:

Hara joaten ginenok matematikako ariketa guztiak ikasi genituen, baita *regla de mezcla* ere. Eta kontabilitateko liburuko *haber y deber*. Hau dela eta, seminarioko lehen urteko matematika gorabeherak ez zitzaizkidan berri egin. Eskola horretako hainbat ume hilabete osoan eskola ihesik eginda kalean ibiltzen ginen. Jakina, etxekoan ezkutuan. Halako batean maisua ohartu zen, zerrenda bat egin eta egun osoko kartzela zigorra ezarri ziguten.

Seminarioa

Txominen kontaketan Seminarioa dator hurrengo:

14 urterekin joan nintzen seminariora. Saturrararen andrazkoen presondegia zen eta hiru *preceptoría*, probintzia bakoitzean bat, zabaldu zituzten. Ni Donostiara bidali ninduten, Mira Conchara, baino ez! Leku zoragarria! Bizkaitik, Elorriokoak, Ermukoak eta ni. Beste guztiak Gipuzkoakoak (...). Guztiok euskaldunak. Irakaslea, D. Jesus Aldanondo ere bai. Donostiarra. Txalopak kaira sartzen ikusten nituen eta herrikoak ezagutzen nituen, izen eta guzti. (...) Guztiak ginen euskaldunak baina han dena zen gaztelania. Hemen jatekoa urri samar baina osterantzean zoragarri! Itsasoa, aurreko isla, kaia, hondartza. Kontxako hondartza, eguenetan, dena zen guretzat. (...) Bigarren urtea Bergaran. Leku hotzagorik. Hemen hasi nintzen musikaz gaitzen. Tiple egin ninduten eta Bergarako orfeoi famatuan ere parte hartu izan nuen. Gero eta gero konturatu nintzen balentria horren balioaz. Hizkuntzari buruz..., latin eta gaztelania.

Gasteizko Seminario Nagusian 10 urte. Euskarari dagokionez, ofizialki, -dio berak-:

ikasturteko azken egunean, goizeko meza ostean *Agur Jesusen Ama* kantua. Eta kito". Gainerako irakasgai, hizkuntza eta kultura giroaz hau dio: "Filosofiako Logica eta Critica eta Teologiako Dogma eta Moral irakasgai eta ikasgaiak latinez, bestelako irakasgai eta ikasgaiak gaztelaniaz. Frantses

apur bat, grekoa zer edo zer eta hebreera apur bat. (...) Zertxobait mugitzen hasi zen jendea. Joan Mari Lekuonak *Frente de Juventudes* delakoak eraturiko lehiaketa batean lehen saria irabazi zigun. Lanaren titulua: *Ama*. Gure aurreko urteko ikaskideek *Alos torrea bai*, *Alos torrea* abestia aukeratu zuten euren himnotzat. Jose Joan Zubizarretak eskatu zidan berari irakasteko eta gero berak bere lagunei irakatsi zien. (...) Gure urtekoek *In Altum* izeneko hileroko aldizkaria daukagu, eta Nikolas García Urrizek seminario garaiko gomuten artean hau idatzi zuen orain dela hiru hilabete *In Altum*-en: 'Txominek hainbeste euskal abesti irakatsi zizkidan, abesti asko-asko.

Goi mailako ikasketen artean Seminarioko musika-formazioa azpimarratzen du: egunero ordu erdi solfeoa. Kanturako hiru talde zituen:

Korua, Santa Zezilia Kapera eta "Corillo" esaten zioten koru txikia, 14 lagun ingurukoa. *Circulo Cultural Vitorianora* joaten ziren artistak: pianistak, biolinistak, seikoteak seminariora ekartzen zituen D. Pablo Bilbao Aristegik, eta Bilboko orkestra, eta Bilboko udal txistulariak eta abar. Musika hezkuntza zabala eta sakona. Ni bosgarren urtera arte triple eta gero segidan hiru koruetan tenor. Capilla Santa Cecilia koruak Bilboko Filarmónican eta Donostiako Centro Culturalean ere abestu zuen. Musikaz nahiko ondo jantzita atera nintzen.

Apaiz eta lehenengo destinoak

1953ko ekainaren 28an egin zen apaiz, Bilboko katedralean, Casimiro Morcillo gotzainaren eskutik.

Errigoititik pasatuz, Ermua izan zen Txominen apaiz-laneko lehen herria. Hiru urte egin zituen hemen. Hemengo ekintza erlijioso-kultural batzuen artean, katekesia, musika (kantua) eta antzerkia aipatzen ditu:

Ermuan bazegoen gizonezkoen korua, eta erdarazko katekesia ondo eratuta. Antzerkiak eta zartzuelaren bat ere antzeztu izan omen zuten. Santa Ageda eskea ere urtero egiten zuten urteko kintopekoek. Niri katekesiko azken mailako mutikoen ardura eman zidaten. Mendira irteera batean bizpahiru bertso edo euskal abesti kantatu nituen eta kantuok irakasteko eskatu zidaten. Nire taldeko mutiko guztiak euskaldunak ziren. Balizko kantoreen zerrenda eman zidaten eta banan-banan egin nien koruan parte

hartzeko gonbita. Horrela eratu zen koru mistoa. Otu zitzaidan Gabonetako eszenak (*estampas de Navidad*) euskarazko gabon kantekin antzeztea: oso erraz prestatu genuen, kantuak bada herrian eta etxean ikasitakoak nituen eta. Han ez zekiten Olentzero zer zen. Bi urtetan egin genuen Olentzeroren kalejira, gabonetako kantuez lagunduz.

Txominen apaiz-laneko trenak Gatikan izan zuen hurrengo geltokia; gauza asko ditu esateko. “Hemen ikusi nuen euskaraz alfabetatzeko premia. Hemen hasi nintzen sermoiak idazten eta oso lan zaila egiten zitzaidan. Gauza bat da gutunak-eta idaztea eta beste bat sermoiak idaztea” dio berak.

Gatikan ere korua eratu zuen. 1954. urtean Belokeko *Iratxeder* (Xabier Diharce) eta Lertxundi beneditarrek *Pasionea* izeneko liburua argitaratu zuten, Ebanjelioaren testua Aita Leon Leonen itzulpena zelarik. Honetaz hau dio:

Liburua eskuan, esan nion D. Eutikiri: guk hau erraz-erraz antola genezake. Korua hemen daukagu (benetan, korua ederra zen). Osterantzeko aktoreak ere batuko ditugu handik eta hemendik. *Pasionea* horretan hainbat elkarrikteta zeuden eta. Berak esan zidan: nik testua bizkaieraz jarriko dut eta zuk nota musikalak jarri. Esan eta egin. Ez dakit nondik nora jakin zuten, baina Miguel Angel Aztiz, *La Gaceta del Norte*ko kazetaria eta Gabriel Aresti poeta etxera etorri zitzaizkidan horren berri eskatzera. (...) Artikulu luzea idatzi zuen Aztizek. Emanaldia ezin hobeki atera zen (1958an). Eliza bete jende agertu zen. Amaieran koruko eskaileretan zain egon zen Alfontso Irigoien eta esan zidan: langile! zorionak guztioi! Beste gorbatadun gizon batek itaundu zidan ea parte hartu zuten guztiak Gatikakoak ziren. Erantzun nion: korukoak denak. Eta presbiteriokoak ere hiru izan ezik gatikarrak. Handik hil batzuetara, ni han ez nengoela, jakin nuen gizon hura Joan Aju-riagerra zela eta parrokoari gutun bat idatzi ziola zorionak ematen. Sonatua izan zen ekintza hori. Madrileko Radio Nazionalak ere aipatu zuen gaueko partean. Jakina, gure herriko eta senide Rafael Osa Etxaburu kazetariak igorritako oharraren indarrez.

Beste ekintza bat izan zen, dantza taldea antolatzea. Neskatoen zortziko hiru talde eta mutikoen zortziko talde bi. Dantza taldeak, nik handik alde eginda ere, aurrera jarraitu zuen. Herririk herri ere ibili omen ziren. Nik neure herrian eta etxean hartu nuen herri kultura hor ere zabaldu nuen. Eta kultura aipatu dudanez hona anekdota hau. Dotrinan, mutiko taldeari esan nion: bihar hemendik honako zatia irakurrita etorri, gero! Bueno, bi-

har ez, bihar *iso* eta *aida* daukazue-eta (idi probak zeuden). Handik segundo bira-edo, burua makurtuta xuabe-xuabe Asiok esan zidan: *iso*, jaune, astoari! Asio hau San Francisco-ko euskal ostatu batean aurkitu nuen ni Ameriketatik ibili nintzenean. Jakina, han zeuden euskaldunei kontatu nien pasadizo hau, eta... haiek egin zuten barre algara!!!

Atzerrian

Hurrengo geltokia, non eta San Fernandon, Cádizen. *Capellán segundo del Cuerpo Especial de Infantería de Marina*. Hara bidaltzea zozketa bidez izan ote zen galdetuz, hau erantzun zidan: “Hara bidali ninduten, ez zozketaz, zu haraxe esanda baino”.

Eta han euskara aldi baterako atseden hartzen utzi beharko zuelakoan, baina hona Txominen erantzuna:

Hara, bada: Josebe Garmendia Fanok, Gatikako etxeko seinak, bere eskuz kopia-tuta, Don Eutikik niri aipaturako adizkien paradigmak postaz igorri zizkidan. Eta nik, hantxe, San Fernandoko San Carlos kuartelean paradigmatik paradigma, aditzen eraz garaturako bizkaierazko adizkiak buruz ikasi nituen, euretariko asko, jakina, etxekoak nituen eta beste batzuk ezagunak izan arren erabiltzen ez nituenak. Don Eutikik adizki hauek Azkueren *Morfología Vascatik* hartuak eta aukeratuak zituen.

Hemen ere pasadizo polit eta historia bizi-bizikiak dira, baina trena aurrera doa eta hurrengo geltokia Amoroton zen, Axuritik pasatu ondoren. *Amoroto* idatzi, baina *Amoto* esan. Liturgia, elizako kantak eta Arrate irratiko saioak aipatzen dizkigu:

Liturgia, jada, lekuan lekuko hizkuntzan egiten zen. Mezako *Kirie*, *Sanc-tus* eta *Agnus Dei* parteak euskaraz musikatuta agertu ziren. Eta *Gure Aita* otoitza ere bai. Epistola osteko salmo-kantak Belokeko SALMOAK liburutik hartu nituen. Neurri desberdinetako doinu batzuk irakatsi hango emakume kantoreei eta meza nagusia zoragarri dotoretzen zuten. Herriak ere bere parte ongi abesten zuen.

Mendexa, Amoroto, Gizaburuaga eta Aulestiko apaizek Arrate irratitik ostegunero ematen zuten euren irratsaioa. Niri “aste barruko gorabeherak” azaltzea tokatu zitzaidan. Albisteren baten ostean aukerako bertsoa abesten nuen. Astelehenean Aulestiko D. Emilioren etxean elkartu eta zintan grabatzen genuen eguenetarako emanaldia. Euskara lantzeko abagune aproposa gertatu zitzaidan.

Euskara lantzen jarraitu zuen: "UMANDIren *euskal gramatika* burutik amaierara ikusiz, hango ikasgaien gramatikaz jabetu nintzen, aditzez izan ezik. Aditzak bizkaierazkoak erabiltzen baintuen. Gero, alfabetatze eskolak hartu nituenean ohartu nintzen deklinabidea banekiela, UMANDIren gramatikan, bada, izen hori aipatu gabe zabal eta sakon azalduta dator..."

Ameriketara

Gero Ameriketara joango zen, hango euskal artzainen artzain espiritual eta lagun izateko. Aurreko egunetan estu hartu zuten, kontizu... Honela dio berak:

Ameriketara joan aurreko egun batzuk Ondarroan egin nituen. Lortu nuen pasaporte. Eta 1969ko urtarrilaren 25ean, goizaldean, bost herritar preso eraman gintuzten Bilboko komisariara. Imanol Oruamazaga eta biok aparteko leku batean sartu gintuzten. Hara ekarri zuten Periko Solabarria ere. Han hiru egun egin eta aske utzi ninduten. Eta gau berean Ameriketara airean. LAS VEGAS (Nevada). Behin itaundu nion hango apaiz bati: zergatik *Las Vegas* aipatutakoan, **Nevada** gehitzen duzue? -Ba, New Mexikon ere *Las Vegas* bat dagoelako... Artzainen lekurako asmotan joan nintzen baina, gaputxin (gaztelania) dakidala eta *Las Vegas* (Nevada)ra bidali ninduen Bishop Greenek.

Ameriketatik itzultzerakoan, Bilbon kokatu zen Txomin eta oraingoan San Adrian parrokian. Hau dio berak:

Hemen Joseba Atxak eratuta euskarazko eskolak ematen hasi ginen. Barnetegia ere antolatu genuen Gorbeako txoko handi batean. Oraindik ez zegoen 'barnetegi' deiturarik. Hor ikasten jardun zuen andre batek, Tasio Erkiziaren emazteak, BEC aretotik irteteen esan zidan: "zuri esker orain bertsoak ulertzeko ere banaiz!" Euskara ikastera etortzen zirenen arteko sei bat pertsonari Sopelan eman nizkien alfabetatze eskolak hainbat egunetan.

Santa Ageda eskea, abestia bera Iñaki Garmendiak hiru bozetara konposatua. Eta kantoi guztietan beti kantu bera ez errepikatzearren, beste kantu itxuroso birez txandakatzen genuen kalejira.

Hemen nengoela otu zitzaidan alfabetatze eskolak hartzea. Derioko Udako Euskal Ikastarora joateko izena eman nuen. (...) Antolatuta zeuzkaten urte guztiak egin nituen.

Gerotxoago Deustuko Hizkuntz Eskolan sartu nintzen, sarrerako eta amaierako azterketak gaindituz. Tartean Euskaltzaindiko D eta B tituluak lortu nituen.

UEU: Hiru urtetan.

Karmelo Etxenagusiaren *Iparraldeko Euskal Idazleak* liburuko hitz ez hain ezagunen sinonimoen zerrenda osatu nuen, bera Erromatik etor zedinean erregalatzeko.

Gabonetan ikaskideak zoriontzeko ohitura nuen, euskarazko zertxobait igorritz. *Gabonmin* izenpetzen nituen. Gure Juan Mari Lekuonak, bere liburuetariko batean niri eginiko eskaintzan, besteak beste, hau dio: "Hire Eguberriak opariak eskertuz..."

Hona hemen lagunak zoriontzeko Txominek maitasunez landu eta bidaltzen zituen lantxo batzuen aipamena:

- 1) *Deklinabide batuaren eskema.*
- 2) *Euskal postposizioak* (bidalitako lanetatik zabalena eta sakonena).
- 3) *Bizkaierazko aditz laguntzailearen adizkitegia.*
- 4) *Vulgata Bibliako liburuak, ordena alfabetikoan, alboan euskarazkoetan ematen dizkieten izenak direlarik.* (Erabilitako euskal Bibliak: Duvoisin, Olabide, Kerexeta eta EAB -Elizen Arteko Biblia-).
- 5) *Deklinabide Batua / Deklinabidea Bizkaieraz.*

Gotzaindegian itzultzaile-lana egin zuen 1978tik 1991ra bitartean. Ordenagailuz lehenengo saioak noiz egin zituen galdeturik, 1987an edo 1988an erantzun dit.

Estropada Hiztegiaren egileek, zertan edo hartan lagundu dieten askori eskerrak ematen dizkiete. "Bostak bat" taldea ere hor agertzen da bere ekarpentxoak egin zutenen artean. Txomin Solabarrieta, berriz, bi aldiz ageri da. Batean hau dator: "Estropadazale jakitun Txomin Solabarrietari"; eta bestean, hau: "Txomin Solabarrietari, ingelesezko ordainengatik".

Txomin Solabarrieta, ez dugu ahaztu behar apaiza izan zela eta eliza barruan nahiz kanpoan egin zuela ebanjelizatze-lana. Herrian eta herriko kulturen sartu-sartua egon zen beti; guztiei on egiten, laguntzen. Euskara eta musika (kantua) izan

zituen euskarririk sendoenak, eta hortik egin zituen bera ibili zen leku guztietan ekarpenik hoberenak.

Ikastaro eta ikasketa batzuk egina izan arren, esan genezake, gehienbat, autodidakta izan zela euskaran. Orduan eskura zeuden liburu eta gramatiketarik, baina batez ere, herritik ikasten zuen eta herriari itzultzen zion era sistematikoago eta jantziagoan. Talde-lana zuen maite. “Bostak bat” lantaldean aurkitu zuen aukerako baratzea. *Adorez hiztegi*etan egin zuen lana handia eta ona izan da; azpimarratzekoa da Txominen zorroztasun eta fintasuna eta, arlo batzuetan batez ere (itsasoaz zeriakusia dutenetan, adibidez), taldeari ematen zion ziurtasuna. Honen harian hau idazten genuen beste behin:

Itsaso eta lehorrekoen arteko elkarlana izan da gurea. Gehienok lehorrekoak gara; zehazki esanik, lehorrekoak bost eta bat itsasaldekoka. Baina bat horrek nortasun berezia erakutsi du eta ekarpen ezin hobea egin dio talde-lanari. Beraz, hemen ere latindarren esatera betetzen dela esan behar: “non numerantur, sed ponderatur”, hau da, kopurua baino bakoitzaren pisua da kontuan hartzekoa...

2011ko ekainaren 6an “Bostak bat” lantaldeari *Urrezko Luma* saria eman zion Bizkaiko Foru Aldundiak, urtero izaten den Bilboko Areatzako Liburu Azokaren barruan. Lantaldearen izenean, Txomin Solabarrietak jaso zuen saria. Honela idazten genuen, zertzelada hori azpimarratuz:

Denboralari aurre eginez, bat-batera arraunean dabiltzanen irudia dator kit une honetan. Irudi hau normala da, aurrean egiteko latzak eta arriskutsuak direnean batez ere. Eta honek, “Bostak bat” traineruko arraunlari zaharrena, nekaezina, dakarkigu gogora eta aho-mihiera: Txomin Solabarrieta Etxaburu jauna. Izan ere, berari dagokio taldearen izenean *Urrezko Luma* jasotzearen ohorea.

Joan zaigu Txomin Solabarrieta Etxaburu. Hemen geratzen dira haren lanak, batez ere “Bostak bat” lantaldean elkarlanean eginiko *Adorez hiztegiak*. Hemen geratzen dira Ondarroako bere lehengusu-lehengusinak eta ilobak; hainbat urtetan berarekin bizi ziren Gatikako garmendiatarren ondorengoa (Garikoitz), eta lagunak, hemen Txomin Solabarrieta bera ere adiskideen bihotzean eta oroimenean.